

HORRETAZ

Zazpi saiakera labor

ezta
baida

Txillardegi

0|1|2

elkar

Azalaren diseinua: Borja Goitia
Azaleko eta hegaleko argazkiak: Dani Blanco/ARGIA

© Jose Luis Alvarez Enparantza
© ELKARLANEAN S.L. 2007
L.G. SS. 1343/2007
ISBN 978-84-9783-540-4

Elkarlanean S.L. Argitaletxea
Portuetxe kalea, 88 bis
20018 Donostia
Tel. 943 31 02 67
Fax: 943 31 02 16

elkarlanean@elkarlanean.com
www.elkarlanean.com

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L., Tafallarako bidea 1. km - Villatuerta (Nafarroa)

HITZAURREA

1964ko bukaeran Ipar Euskal Herritik bidali ninduten frantsesek. Eta horrela iritsi nintzen Belgikara, errefuxiatu gisa. Euskal Herriari agur esan beharra eta 5 urtez iraugo zuen deserrialdia hasi nuen.

Hara baino lehenago idatzirik neukan *Huntaz eta Hartaz* saiakera mordoxka (10 guztira). Liburua J. M. Benito del Vallek sustaturiko Goiztiri argialetxeak kaleratu zuen 1965 hasieran.

Huntaz eta Hartaz sortak, Ipar Euskal Herrian idatziak (“huntaz” horretan ikusten denez) helburu hau zeukan: gaurkotasunezko gaiak (mementokoak) euskaraz azaltzea.

Marilyn Monroeren heriotzak, adibidez, oihartzun handia izan zuen: teorian “garaitu” zuen emakume ederrak bere buruz beste egin zuen.

Baina bestelako gaiak ere ukitu nituen: Pio Baroja, idazle handia bai, baina euskarari buruz uzkur, are trufakor ere.

Neokarlismoa nagusi zela euskal politikan, eta honetaz ere beste saiakera bat. Biarno euskaldunaz kezka banuen, eta

Hegoaldean txarto ezagutzen zen muga-kontuaz zerbait esatea bururatu zitzaidan.

Eta horrela mamitu zen liburua. Euskararentzat erabilpen normala bilatzen genuen; orduan, hitz lauz batez ere, euskara ez baitzen tresna arrunta.

Horretan izan zuen bere funtzioa, iruditzen zaidanez.

42 urte joan dira geroztik. Eta *Horretaz* honek *Huntaz eta Hartaz*-ekin osatu nahi du hirukia.

Zaila izan zait zazpi gai hauek hautatzea, eta ez beste batzuk.

Bi idazle hautatu ditut: Jean Paul Sartre, batetik, berriki bere mendeurrena burutu dela eta. Eta Rosalia de Castro galiziarra bestetik.

Ameriketako genozidioa salatu behar dela iruditzen zait, eta V. Centenariokoan jasan behar izan dugun erasoak erantzun bat merezi zuela.

Gainerako saiakerek gai unibertsalak ukitzen dituzte. Oraindik ere gure artean Darwinismoak merezi duen maila jaso ez duela-eta, gizonaren kondaira egitea egokia dela iruditu zait. Puntu honetan Arsuaga hartu dut gidari nagusitzat, baina Leakey eta gainerakoak kontuan nituela.

“Antropokeriak” saioak erlijioaren eta antropozentrismoaren kritika gogorra izan nahi du. Richard Dawkins eta Onfrayren berri ematen dut. Ez dira gure artean ezagutzen, eta berorien obra gure artean osasungarria izan daitekeela uste dut.

Bi saiakera moldatu ditut, azkenik, Astronomiaz. Giza patua eta lekua zentzuz ezartzeko guztiz beharrezkoa irudi-

tzen zait. Neronen iritzia azaldu badut ere, liburu funtsezko batzuen berri ere ematen dut bertan. Batzuetan bibliografi ildoan kokatu naiz, baina ez zait bide hoberik bururatu. Denbora izan banu, bestela egingo nukeen. Baina besterik ezean hau bederen eskaintzea bururatu zait.

Liburu hau eskaini nahi nieke, beraz, giza arazo nahasiak beren haragi eginik ere, Kosmosaren eskeratasun misteriotsuak pentsakor uzten dituen guztiei.

Donostian, 2007ko irailaren 17an

SARTRE: EHUN URTE

1905eko ekainaren 21ean jaio zen Parisen Jean Paul Sartre. Eta handik 75 urtera hil zen bere sorterrian (1980ko apirilaren 15ean, zehazki).

Lehenengo mailako idazle izan zenak arrasto sakona utzi du zenbait alorretan. “Ecrivain engagé” baten izena eskatuz gero (“idazle engaiatu edo konprometitu” euskaraz), askok eta askok Sartre hautatuko lukete Europa osoan.

Baina gure herrian, iruditzen zaidanez, eta beste batzuetan ere errepikatua dudanez, arrotz dago oraindik, ezezagun. Sartrek Euskal Herrian ahanztura hori besterik mereziko ez balu bezala.

Lerro hauek ez dute gure zorra kitatuko. Noski! Baina bilduma honetan *La Nausée*-ren egileak kapitulu bat bederen behar zuela iritzi nion. Eta hemen duzu.

Orekak eta desorekak gurean

Gure herrian dagoen “desoreka”, nolazpait esateko, oso nabarmena da. Eta ez Sartreri dagokion alor honetan bakarrik. Baina honetan ere bai.

Ezer ez daukat nik, esate baterako, Lisieux-ko Teresaren kontra. Baina hor dugu euskaldunok geure esku *Teresa Lisieux-koa* liburu mardula: 1.223 orrialde; 1996an Markina-Xemeinen argitaratua. Azpituduluak hau zehazten du: “Idazlan guztiak”.

Hamaika itzultzailek frantsesetik euskaratua (hauetako batzuk adiskide hurbil, eta gainerakoak ere euskalgintzan lankide bederen), “bere heriotzaren mendeurrenean” kaleratu zen ikerlan zehatza. Teresa, oso gazterik, 1897an hil baitzen.

Oraintsu Sartrearen jaiotzaren mendeurrena izan dela bide, aldiz, alferrik bilatuko duzue euskaraz tamaina bereko bildumarik. Ez dago.

Badaude, hau ere esan beharra dago, atal edo izkribu batzuk. Maila bereko euskal bilduma orokorrik ez, ordea.

Non gara euskal intelektualok? Non euskal idazleok? Non, bereziki, euskal gizartea ezkerretik eraiki nahi dugunon ekarpen sendo mardul eta simetrikoa?

Irakurleak erantzun beza.

Aztergaiaren izaria

Sartrearen obraren eskergatasuna ezaguturik, harrokeria litzateke nik hemen neure aldetik irizpide orokorrik eskaintzeko asmorik aurkeztea.

Alor filosofikoari dagokionez, hasteko, bi liburu agertzen dira gailen: *L'être et le néant*, batetik (1943), existentzialismoaren oinarriak ipini zituena; eta *La critique de la raison dialectique*, bestetik (1960), funtsean marxismoari buruz marnitutako azterketa, eta desadostasunen balantze mamitsua.

Eta prestutasunez, eta neure mugak ezagutzen ditudalako, ezin nezake eginkizun hori neure gain har. Sartre filosofoa filosofoek neurtu behar dute.

Alor literarioari buruz, berriz, ezintasun bertsuan aurkitzen dut neure burua. Sartreren nobelagintzak eta antzerki-gintzak, kezka filosofiko sakonez oraturik, eta multzo gaitza osatzen dutelarik, ikertzaile espezializatuen azalpena eskatzen dute hertsiki.

Zein sailetan kokatu behar da, bestetik, 1945ean Simone de Beauvoir-ekin eskuz esku sortu zuen *Les Temps Modernes* sail trinkoa? Aldizkari filosofiko-politiko-literario honek bere 101. liburukia argitaratu du orain dela gutxi, Frantz Fanon buruz burutua (aldizkariak bere 60. urtea betetzean).

Sorta osoan barrena mota askotako idazlanak argitara ziztuen Sartrek (argitaragabeko batzuk oso berriki, bidenabar). Harrobi aparta; eta serioski irizpide sendo batez besarkatze-ko, zaila.

Eta non sailkatuko Gustave Flauberti buruzko ikerketa erraldoia?

2.802 orrialde. Eta azkenean bururatu gabe utzia. Literatura azterketa dea? Soziologi entsegua?

Sartrek anti-Flaubert gisa hartzen zuen bere burua; ondoko esaldi hauetan ikus daitekeenez:

“Le néo catholicisme d’une part, et le socialisme de l’autre, ont abêti la France”, zioen Flaubertek... “Je crois que la foule, le troupeau, sera toujours haïssable. Il n’y a d’important qu’un petit groupe d’esprits, toujours les mêmes, qui se repassent le flambeau... La Commune réhabilite les assa-

sins... Le peuple est un éternel mineur, et il sera toujours au dernier rang, puisqu'il est le nombre, la masse, l'illimité”.

Eta abar, eta abar. Flaubert eskuindarren artean kokatu behar da osoki. “Le premier remède serait d'en finir avec le suffrage universel, la honte de l'esprit humain”.

Nabarmena da Sartrek, geroko lerroetan agertuko denez, “les masses” goraipatzen dituenean, Flauberten antipodetan kokatzen dela...

Sartre anti-Flaubert huts-hutsa da. Koldo Izagirre Txomin Agirrereren ukazioa den bezalaxe.

Baina bego hori bere horretan.

Bibliografia hautatua

Badu Sartrek, bere “idazlearen konpromisoa” dela-eta, prentsan eta chunka hitzalditan azaldutako testu mamitsu pilo bat. Eta horietan bilatuko dugu. Gauza ezaguna baita Sartre, xuxen ala oker, bere garaiko borroka garrantzitsu guztietan lazkatu eta inplikatu zela buru-belarri.

Nola abiatu saiakeratxo hau, azkenik, Simone de Beauvoir idazle bikain eta bizilagun iraunkorrarekin 50 urtez bizi izandako giza esperentzia garden harrigarria ukitu gabe?

Sartre ez faltsutzekotan, honetaz ere zerbait esan behar da.

Eginkizuna zabalegia, benetan. Dena arakatuko? Bizkaitarrak esan ohi duten bezala, nik ere berba honeik esango dodaz hobarik ezean: “enei”...

Sartre jenio bat izan da (berak ere, bere buruaz ari zelarik, uste zuenez...). Horra hor... “panorama”!

Hauta ditzagun bospasei alderdi garrantzitsu, beraz, eta ekin diezaiogun.

Eta irakurleren batek gai hau sakondu nahi izanez gero, hona hemen 1905-2005 mendebetea dela-eta, kaleratu diren eta aise eskuragarri dituzkeen lan batzuk.

“Etxeko”en eskaintza honetatik has gaitezen:

Notre Sartre – Les Temps Modernes, 2005 – 632/633/634 liburukia – 767 or.

Parte hartzaileak: J. Cau, R. Débray, Geismar, A. Gorz, Jeanson, Lanzman, B. H. Lévy, Marty, B. Denis, Keck, Constat, Desanti... Zerrenda luzea. Baita Sartre bera ere: argitaragabeko izkribu luze batez: “Morale et Histoire”, 146 or.

Eta orain pasa gaitezen Sartreren figura “kanpotik” aztertu duten batzuen lanetara:

Jean Paul Sartre – Annie Cohen-Solal – PUF, Que sais-je? – 2005 / III – 127 or. Azalpen sistematiko gardena.

Sartre: 1905-2005 – Annie Cohen-Solal – Folio, Gallimard – 2005 / IV – 971 or. Dagoen azterketarik zehatzena agian.

Badago, horrez gain, Sartrek berak proposatutako izenburuaz emandako *La cérémonie des adieux* bilduma bikun harrigarria. Simonek zehaztasunez 1981ean, Sartre hil berrikan, Gallimardekin argitaratua (1981).

Eskaintza maitekor honek irekitzen du izkribua: “*À ceux qui ont aimé Sartre / L’aiment / L’aimeront*”.

Sartreren zahartzaroko osasun-miseriak ezagutzeko (15-159 or.); baita 1974an (Sartrek 69 urte zituenean) Simonek gidatutako galde sorta mamitsuaren bitartez (163-559), Sartreren figura ongi ulertzeko lanabes aparta.

Eta badago, noski, hemen bertatik jarraituko dugun testua bereziki: *Qu'est-ce que la Littérature?* – in Situations II, nrf – 1948 – 55-331 or. Egiazki 1947an idatzia.

Hots, saiakera famatu honen hastapenean, eskaintza labur hau dator: “À Dolorès”.

Nor ote zen emakume hau? Non edo nola ezagutua?

Kezka honek “desbideratu” egingo gaitu apur batez geure bidetik, eta Sartrearen psikologian sartzen lagunduko.

Zeren Literaturari buruzko entsegu famatu horretan, arestian aipatu dugunez, “Dolorès” hori agertzen baita; eta ez espero genezakeen (zitekeen) Simone, edota gaitzizenezko “mon Castor”.

Idazle konprometitua, borrokalari aspergaitza, sentimenduen alorrean nahaspilatsu agertzen zaigu.

Dolorès Vanetti

Bai 1947ko *Qu'est-ce que la Littérature?* saioan, bai 1945ean hasitako *Les Lettres Modernes* sortan ere, “Dolorès” bera agertzen zaigu aipaburu.

Erantzunak ezagunak dira gaur.

Emakume hori Sartre 1945ean ezagutu zuen Ameriketan, eta Dolorès Vanetti zeritzon.

Areago: nolako itxurakoa zen ere jakin dezake gaur irakurle jakinminak (begira bitza Annie Cohen-Solal biografoaren argazki saileko 32 eta 35 erreperereko fotoak).

Emakume gaztea ageri da berorietan. Ez Simone de Beauvoir-en xarma eta edertasun berdintsukoa, ene uste apalez; ez-

ta adimenez ere *Le Deuxième Sexe*-aren egilearen mailakoa. Ez da ahanzi behar, gainera, 1929an, Filosofi Oposaketetan, Sartrek irabazi zuela lehenengo postua, eta Simonek bigarrena.

Baina amodio kontuetan, nork zer esango?

Maitemindu egin zen paristar filosofoa urrutiko Dolorès hartaz; eta Saint Germain-des-Près auzoko bikote ospetsuak, itxura denez, bere lehenengo krisi larria jasan zuen.

Nola gertatu ziren gauzak? 1945eko neguan, nazismoaren porrot odoltsua bere azkenera iristen ari zelarik, kazetari mordoxka bat (zortzi hautatu zituzten guztira) Estatu Batuetara hegazkinez bidaltzea erabaki zuten frantsesek.

Han-hemenka bi hilabetez libro mugituko ziren, eta ikusitakoak frantsesei kontatuko.

Hots, Sartre izan zen zortzi horietako bat.

Famatua zen hau ordurako. *La Nausée* nobelagatik, bate-tik; eta existentzialismoaren aitapontekotzat gailentzen zelako, bestetik.

Sartrek ez zekien ingelesez. Simonek bai. Baina berau ez zuten zortzikote horretarako aukeratu. Eta Sartrek Ameriketari bizi eta frantsesez zekiten batzuen laguntza behar izan zuen.

Dolorès Vanetti izan zen laguntzaile horietako bat, hain zuzen.

Eta Dolorès hartaz liluraturik itzuli zen Sartre Ameriketari; nahiz, gero jakin dugunez, elkarrekiko sentimenduen aldetik simetriarik ez egon.

Sartrek 39 urte zituen. Eta 16 urte hartan (1929az geroztik, alegia) Simone-rekin bizi zen.

Bidaia amaituta, Sartrek berriro Ameriketara itzultzeko deliberoa hartu zuen.

Alde batetik, *Les Lettres Modernes* aldizkarian Estatu Batuei buruzko lan monografiko bat prestatzeko (1946ko udan argitaratuko zena). Eta, bestetik, bere bihotzondoan zeraman Dolorès Vanetti ikustekotan.

Oraingoan hegazkinez joateko adina dirurik aski ez zuela-eta, Bordelen hartu zuen Ameriketarako itsasontzia. Zenbait unibertsitatetatik hitzaldiak eta elkarrizketak proposatu zizkieten, eta Sartrek baietz erantzun zuen.

Eta bigarrenez Dolorès Vanetti bihurtu zen laguntzaile nagusi. Eta 1946ko bidaia honetan elkarrekiko sentimenduak parean kokatu ziren.

Dolorès Sartreren maitale bihurtu zen; eta, denbora berean, *Les Temps Modernes* eta gainerako obren ordezkari sutsu.

Urtean hiruzpalau hilabete New Yorken eman, eta gainerakoak Parisen egiteko plana azaldu zion Jean Paulek Simoneri.

Egoera hau (edota antzekoak) oso tipikoa izan zen aurrerakoan Sartreren bizieran; eta horregatik ari gara pittin bat luzatzen Dolorèsekiko gertakarietan.

Simone oso minduta geratu zen, are beldurtuta ere, eta deplauki Sartreri “Dolorès ala ni. Hauta ezazu” bota zion halako batez.

Hots, behin eta berriz erabiliko zuen taktika aukeratuz, hau erantzun zion Sartrek: “Zu eta bion arteko maitasuna, denaren gainetik dago. Eta gure artean ezkutukerietan ibiltzeak ez luke funtsik. Izan dezagun ausardia ‘axaleko menturak’ (‘les amours contingentes’ esan ohi zuen frantsesez)

onartzeko; gure arteko maitasun handia txikikeria horien gainetik ezarriz”.

Eta amore eman zuen Simonek. Dolorèsenak ez zuela luzaz iraungo iragarri honek, eta adierazi egin zion Sartreri.

Beldurrak egon zela aitortu zuen gerora Simonek *La Cérémonie des Adieux* zirraragarrian: “Vous avez énormément tenu à elle, c’est la seule qui m’a fait peur d’ailleurs” (389).

Eta hala izan zen azkenean. Sartrek eten egin zuen harremana bat-batean; eta Dolorès pertsonarekiko “estimurik txikiena ere” ez zuela aitortu zuen (A. C-S, 461)

Nola egiten zuen Sartrek, beraz, bai Dolorès bai ondoko urteetan izandako beste emakume asko bereganatzeko? Sartre itsusia baitzen, txaparroa, betokerra. Eta bazekien “txikitandik”, Simoneri aitortua zionez.

Urrun erabat Robert Redford edo Richard Gere-ren gaitasun “natural”etatik, nola uler daiteke emakumeekin izandako arrakasta?

Dolorès Vanettiren lekukotasuna interesgarria da. Zekien eta zeukan guztia (eta “guztia” azpimarratzen zuen: “tout, tout”) jartzen omen zuen aurrean, bere bizia garden eta egiaz aurkeztuz. Tolesturarik gabeko jokabide honen bitartez, gainditu ezinezko erakarmena sortzen bide zuen bere inguruan. Proposamena garbia zen, gardena, jukutriarik gabea; eta proposatzen zuena kezkaz eta justizia-egarriz itotzen zen pertsona zen. Sartre “boussole éthique” hutsa zen (“iparrratz etikoa”, gero bera definitzekotan erabili izan diren hitzak gure eginik).

Mon Castor

Simonerekiko lehenengo krisia ote zen Dolorèsena? Ez dakigu; baina badirudi.

1929an ezagutu zuen Sartrek “mon Castor” deitzen zuen Simone. Eta guztiz amodio beroa bizi izan zuen berarekin: “Zu zara nire bihotzaren eta nire begien xarma –idazten zion Sartrek 1938an, harremanetan hasi eta bederatzi urtera–, zu zara nire habe nagusia, nire ezaguera eta nire arrazoia. Pasio osoz maite eta behar zaitut”.

Simonek ere errotik maite zuen Sartre; 1947an, Dolorèsen garaietan, Ameriketara bidalitako eskutitz honetan argiro ikus daitekeenez: “Zu zara nire bizieran gertatu zaidan esperientziarik harrigarriena, azkarrena, sakonena eta egiazkoena”.

Beren maitasuna egian eta gardentasunean eraiki nahi hartan, biek jakiten zuten elkarren berri zehatza beti eta gertatze beretik. Bai Dolorès-ekikoan, bai ondoko urteetan, Sartreren bizieran agertu ziren Arlette Elkaim, Olga Kosakiewicz, Lena Zonina, Sylvie Le Bon, Nathalie Sorokine eta gainerakoetan. Filosofoak ez zion Simoneri ezer ostendu.

Simonek berdin jokatu zuen, jakina; eta Nelson Algren amerikar idazlearekin eta besterekin ezagututako amodioetan ez zuen deusik ezkutatu.

Hain zuzen berriki (Gallimard 1997) kaleratu da liburu gotor bat: *A transatlantic love affair – Letters to Nelson Algren* – 559 orrialde – Simone de Beauvoir.

Hogei urtez iraun zuen maitaldi “contingente” hau, Sartrek ezagutua eta onartua, oso interesgarria da alderdi askotatik.

Algren iparramerikarrak sakonki ukitu zuen Simoneren sentimendua. Ez da erretorika hutsa Simoneren “Algren, my husband” esakera, esate baterako.

Nahiz eskutitz batzuk frantsesez agertuak izan, Simone de Beauvoirrek ingelesez idatzi zituen denak; eta hau dela-eta, zehazki neur daiteke Simone-ren hizkuntz ezagutzaren aurrerapena bere harremanean barrena.

Sartre-Beauvoirren arteko “maitasun nagusiak” (elkarri beti “vous”ka mintzo zitzaizkiolarik eta ez “tu”ka, pittin bat gure artean senar-emazteen artean zuka mintzatu ohi garen bidetik eta ez hika), zailtasun guztien gainetik eta makina bat sufrikariotan askotan, are sexu-harremanak amaitu ondoren ere, Sartre hil arte iraun zuen (Simone 1986an hil zen, sei urte geroago bere bikotekidea baino).

Hots, filosofoa hil baino ordu batzuk lehenago, hitz hun-kigarri hauek esan zizkion Simoneri: “Je vous aime beaucoup, mon petit Castor” (C.A., 155).

“Je vous aime” soila azkarrago zatekeen; “maite zaitut”, “erruz maite zaitut” luzea baino aise indartsuago den bezala. Baina hitz horietxek erabili zituen, eta ez besteak.

Bego horretan.

Eta Beauvoirrek epitafio gisa har daitezkeen hitz hauek utzi zizkigun:

“Haren heriotzak elkarrengandik bereizi gaitu. Eta nire heriotzak ez gaitu elkartuko. Horrela da. Ederra izan da hala ere gu bion bizierak horren luzaz elkarraditurik joan izana” (C.A., 159).

Bere pisu berezia hartzen du horrela Parisko Père Lachaise hilerri famatu eta eskergan, azalpenik gabe, oroitarri hau

aurkitzeak: “Jean Paul Sartre, 1905-1980 – Simone de Beauvoir, 1908-1986”.

Sartre musikazale

Sartrek oso maite zuen musika, eta piano dohainak bazituen. Piano-jole trebearen alderdi hau bereziki azpimarratu dute bai Annie Cohen-Solal biografoak, bai Simone de Beauvoirrek berak. Baina ez da ezagutzen.

1944ko udaberrian, adibidez, bi pieza hauek maite zituen bereziki Sartrek eta maiz jotzen: “Les papillons de nuit” eta “J’ai vendu mon âme au diable” (Cohen-Solal, Biogr., 362).

Amagandik jasotako piano-jaiera horixe azpimarratu zuen Simonek: “Vous étiez vraiment assez bon au piano” (C.A. 283); baita aurreraxeago ere: “Vous ne jouiez pas mal du tout... vous jouiez infiniment mieux que moi” (284).

Cohen-Solalek zehaztasun mamitsuak utzi dizkigu. Askotan, Bonaparte kaleko etxean, Simonek idazten eta irakurtzen zuen bitartean, “Sartre s’asseyait à son piano retrouvé, déchiffrant une sonate de Beethoven, un prélude, ou une fugue du *Clavecin bien tempéré*” (Biogr., 487).

On izango da ondoko gertakari eta jokabide “estetiko” askotan, Sartrearen musika-zaletasunaren alderdi hau kontuan hartzea.

Juliette Gréco eta beste zenbait artistarekiko harremana ulertzeko, agian, musikazaletasun honetan argi daiteke.

Sei hari nagusi

Goazen gu orain geure harira, laburki bederen, sei izari funtsezko hauek hautatu ditugularik:

1. Sartre idazle konprometitua.
2. Sartre anarkoa eta ohore ofizialekiko uzkurra. Nobel Sariaren ukoa.
3. Sartre inperialismoaren etsai eta herri kolonizatuen aldekoa. Russell tribunala.
4. Sartre eta Aljeriako gerla. Camusekiko harremanak.
5. Sartre eta estalinismoa. Budapest, Praga, eta abar.
6. Sartre eta Burgosko epaiketa (1970). Sartreren izkribu historikoa.

Has gaitzen, luza gabe, 1, 2, 3 eta 6 puntuak aztertzen.

Camusekiko harremanak (4) aztertzeke asmoa banuen. Baina urrutira eramango ninduke, eta saiakera bilduma honetan lekurik ez. Agian beste batean!

Oso zelebrea da egoera funtsean. Camus aljeriarra, “français d’Algérie” esan ohi zuen harro, uzkur agertzen da herri kolonizatuen arazoaz. Beti prest kolonizatuen jokabidea kritikatzeko, eta Frantziarena nola-hala onesteko.

Sartre paristarra, aldiz, prestago dago beti kolonizatzailea gaitzetsi eta kolonizatua konprenitzeko.

Eskuin/ezker joera sakona suma daiteke aise dikotomia horretan.

Interesgarri gerta dakioke irakurleri *Le Magazine Littéraire* hilabetekariak berriki (453. zb, 2006ko maiatzean) “Albert Camus, penser la révolte” ale berezia plazaratu duela (45-84 or.). Bertan ikasten dugu Camus aljeriarrak arabieraz

“hitz batzuk ahoskatzen zituela”; baina frantsesez idaztea erabaki zuela...

Baina gaurko honetan ez gara gogoetan barrena abiatuko. Barka.

Galga berak behartzen gaitu estalinismoari buruzko borroka nekagaitzen azterketatik baztertzeke.

Ondoko lerroetan, bestalde, puntu hau behin eta berriz agertzen delako.

Idazle konprometitua

Gure gazte denboretan ospe handia zuten Gregorio Marañón-en liburuek.

Ez genuen bera guztiz begi onez ikusten, egia esan; Errepublikara garaietan ezkerrean ibilitako intelektual famatua, Francoren diktadurapean aise eta ohorez mugitzen zelako. Halako “collabo” kutsua antzematen genion.

Baina haren jakinduria polifazetikoaren mailaren aurrean, gudan sortzen zen mirespena ezkutagaitza zen.

Pertsona bakar batek batera horrenbeste jakintza sailetan erudizio eta maisutza apartak nola lortu ote zituen galdetzen genion harriturik geure buruari. Eta gaurtxe ere galdetzen.

Eta irakurri egin genituen lan historiko eta mediko-literario batzuk: *Tres ensayos sobre la vida sexual, Don Juan, Enrique IV y su tiempo...*

Ni neu, Amiel-en kasua azaltzen zuen liburuak harritu ninduen gehienik.

Henri Frédéric Amiel suitzarrak (1821-1881) bere “Egun-kari ezkutua” idatzi zuen 1839tik aurrera, xehe-xeheki, 42 urtez; eta 17.000 orrialdeko corpus harrigarri bat osatu arte.

Hots, auto-azterketaz mamitutako liburu hori ez zuen Amielek inoiz argitaratzeko asmorik izan. Liburua bere burua-arentzat idatzi zuen.

Kasu kliniko hau Marañónek aztertu zuen zehazki 1932an: *Amiel. Un estudio sobre la timidez*. Eta nik, 1950 inguru hartan, beste gazte askok bezala, harriturik eta oso gogoz irakurri nuen. Orain ozta-ozta lerro nagusiez oroi banai-teke ere...

Handik urte batzuetara, eta ordurako Frantzia bizi nintzenez, Sartre-ren *Qu’est-ce que la Littérature?* irakurri nuen; eta %100ean Amielen kontrakarrean, anti-Flaubert bezala Sartre anti-Amiel bat zela topatu nuen.

Eta euskal gizartean eragiteko nire asmoa indartu zuen.

Alegia: besterentzat idatzi behar dugula aldarrikatzen zuen Sartrek; inguruan eragiteko tresna zela luma. Eta honek bizkortu egin ninduen neure xedeetan.

Entsegua luzea da, sakona; nahiz zenbait aldetatik bitxia eta eztabaidagarria izan.

Lau atal ditu. Eta guri artez dagozkigunak hiru hauek dira:

- I. Idaztea zer den (59-88). Fr. *Qu’est-ce qu’écrire?*
- II. Zergatik idatz? (89-115). Fr. *Pourquoi écrire?*
- III. Norentzat idatz? (116-201). Fr. *Pour qui écrit-on?*

I. ataletik beretik botatzen du Sartrek ondoko orrialdeetan (II. atalean, eta III. atalean bereziki) landuko dituen erantzunak.

I. atalean, esate baterako, hau aurreratzen baitu: “Idazle konprometituak badaki hizketa ekintza dela” (75).

“Artea ez da sekula egon garbikoien alderdian; arte garbia eta arte hutsa, hutsala alegia, gauza berbera direlako” (77).

Prosaren eta poesiaren artean ezartzen zuen etenduramarra, esate baterako, ez zait garbi agertzen. “On croirait que le poète compose une phrase; mais ce n’est qu’une apparence. Il crée un outil”... “Le poète emploie les mots comme des choses, non comme des signes... La prose est utilitaire par essence: le prosateur est un homme qui *se sert* des mots” (64).

“Le prosateur écrit, c’est vrai; et le poète écrit aussi. Mais entre les deux actes d’écrire il n’y a de commun que le mouvement de la main qui trace des lettres. Pour le reste leurs univers demeurent incommunicables” (70).

Barka. Eta beude jatorrizko hizkuntzaz aurreko esaldi horiek.

Eta Marxen ideien oihartzuna entzun daitekeelarik, honela aurkezten du Sartrek idazlearen betekizuna: “Mundua erakusten bazait, bere bidegabekeriez oratua, ez dagokit niri beroriei hotzean so egitea. Hain zuzen ere, biziarazi egin behar ditut bidegabekeria horiek neure amorratioaz, desmozorrotu egin behar ditut, eta bidegabekerien gakoa azaltzen saiatu. Alegia, erauzi-egin-behar-diren-bidegabekeria gisa begiratu behar diet” (111).

“Abiatu aurretik hautua egin behar du idazleak: ea pin-pilopausez idatziko duen, ala juduen patuaz” (77). (Sartre-

ren jarrera ulertzeko, nazien genozidioa gertatu berria zela hartu behar da kontuan, eta Israel jaio gabe zegoela).

“Halako batez luma gelditu beharra gertatu ohi zaio idazle konprometituari, eta armak hartzera joan” (114).

“Idazlea bere garaikideei mintzo zaie, bere aberkideei, bere arrazakide edo klasekideei” (117).

Idea horiek entzutean, jarraitzaileek galdera hau egiten zioten Sartreri: “Zein mugimendutan edo taldetan egin behar du lan idazle konprometituak?”.

Erantzuna eufemismorik gabe eman ohi zuen filosofoak: “Gaur egun galdera hori egiten baldin bazait, populuaganaino (“les masses” zioen berak) iristeko bere zerbitzuak Alderdi Komunistari eskaini behar ote dizkion, nik ezetz erantzuten dut: komunismo estalindarra, batetik, eta literaturagintza presutuki moldatzea, bestetik, ezkondu ezinezkoak dira” (280).

“Marxismoa eliza bihurtu da; eta barne-eztabaidak ahiturik, determinismo zozo bilakatu da” (188).

“Aski da edozein izkribu komunista zoriz, ausaz, hautatu, eta gainbegirada bat ematea. Jokabideak kontserbadoreak direla erreparatzen da. Eta ez da gure errua Alderdi Komunista alderdi iraultzailea jadanik ez izatea”.

Eta hori joera nagusia da. Sartreren anarkismoa sumatzen da jarrera hauetan, Bertrand Russellekiko kidetasuna handitzen delarik. Esaldi hauetan, adibidez: “Ideologiak gauzakuntzan ari diren bitartean, mamikuntzan, askatasuna dira; baina gauzaketa amaituta bururaino iristen direnean, zapalkuntza bihurtzen dira” (195).

“Idazleak bere osoan behar du konprometitu bere izkribuetan” (75).

“PCak ez ditu jadanik arrazoiak eztabaidatzen. Irainez eta gezurrez erasotzen dio etsaiari: ‘polizi agentea da’, ‘Intelligence Service-koa da’, edota ‘faxista da’” (280).

“Hain zuzen –dio Sartrek– gure eginkizuna pertsonaren askatasunaren aldeko borroka da, batetik; baina baita ere, eta batera, Iraultza Sozialistaren aldekoa” (288).

Sartrearen jokabidea eta PCarekin izandako istiluak garbi agertzen dira lerro horietan.

Zalantzarik gabe, iraultza sozialistarako bidea PCaren ezkerretik bilatzen zutenek interes handiz irakurtzen zituzten izkribu hauek.

Nik ere bai. Deplauki aitor dizuet.

Sartre akrata

Nahiz behin eta berriz, politikari dagokionez, bere burua ezkerrean kokatu, eta ondorioz eta oro har mendebalde kapitalistaren kontra eta Ekialde sozialistaren alde agertu, nekez pentsa daiteke gure filosofoa agintekerien alde egon zenik; are inoiz egon zitekeenik ere. Ezta sozialismo “errealaren” izenaz plazaratzen zenetan ere.

Raymond Aron soziologo ospetsuak (nerabezaroan Sartrearen eskolakide, eta geroko urteetan guztiz beste mutur batekoa) txikitandik ezagutzen zuen gure autorea. Eta honela definitu zuen behin: “spontanément anarchissant”.

Instituzioak oro gorroto zituen Sartrek: monogamian funtsatutako ezkontza azkengabea barne. Eta eskandalua franko sortuz, beste modu batera antolatu zuen sexuaren arazoa, funtsean poligamia praktikatu.

Unibertsitateari dagokionez, bide beretik, irakasle tradizionalaren eta *ex-cathedra* emandako kurtsoen kontra paratu zen, hierarkian oinarritutako irakasle-ikasle eskema bikuna ezetsiz.

Frantses gauchistek famatu zuten esaldi hura (“*élections, piège à cons*”) egin zuen bere. Eta hauteskundeetan ez zuen inoiz botorik ematen.

Annie Cohen-Solal biografoak, Sartreren gaztaroaz, egokiro idatzi du: “Sartre est alors (1930eko hamarkadaz ari da) un personnage très anti-institutionnel, fondamentalement libertaire et irrespectueux, et se situe dès cette époque dans le débat des modes de vie quotidiens, rejoignant un grand courant libertaire anarcho-syndicaliste” (Cohen-Solal-ek *Que sais-je* saileko liburuan, 47).

Eta bere biografia zehatzean, zuzenki dio bide bertsutik: “Sartre est proudonien et anticommuniste” (677).

Bertrand Russell matematikari eta zientzi gizonarekiko hozitzen ari zen hurbilketak (*Tribunal Russell* atalean itzuliko gara hona) sustrai eta kidetza sakonak zituen. Lord Russellek ere “anarko-sindikalista” zela esaten baitzuen hitzez hitz.

Nobel Sariaren arbuioa

Hau guztia oso garbiki agertu zen 1964 urtean.

Urriaren 22an eman zion Nobel Saria suediar Akademiak. Baina Sartrek arbuiatu egin zuen, eskandalu izugarria eraginez.

Euskal Herriraino ere iritsi zen ezezkoaren berria; eta neronek ere, besteak beste, mirespen artikulua bat argitaratu

nuen euskal prentsan, jokabidea txalotuz. Artikuluaren data hauxe da: 1964ko azaroaren 18an. (Ikus “Sartre-ren ukoaz” artikulua bere osoan, *Gertakarien lekuko* bilduman, I, 88-90 orrialdeetan).

Ez nengoen ni memento lasai horietako batean. Labéguérie ipartar diputatuari esker jakina baikenuen egun haie-tantxe, Marcellin frantses barne-ministroak ni Frantziatik kanporatzea erabakia zuela...

Baina Sartreren ukoaz jarduteko parada aurkitu nuen.

Mauriac (1952), Camus (1957) eta St. John Perse (1960) frantsesen ondoren, ilarako laugarren frantses idazle sariduna izan zen Jean Paul Sartre, 59 urte zituela.

Sumatu egin zuen honek, *Figaro Littéraire*-k zenbait egun lehenago agertutako ohar baten bitartez, urte hartako Nobel Saria bere eskuetara joango zela.

Eta Nobel Fundaziora idatzi zuen segituan (urriaren 14an) eskutitz irmo eta zuhur bat.

Eta arrazoi “pertsonalengatik” eta arrazoi “objektiboen-gatik”, saria ez zuela onartuko jakinarazi zien. Otoi, beraz, ez sariztatzeko. Ez 1964an eta ez ondoko urteetan.

Argi eta garbi azaldu zuen Nobel Saria, *de facto*, Mendebaldeko idazleei eta Ekialdeko disidenteei ematen zitzaien sari bihurtua zela. Bera sozialista izanik, eta itxaropen kriti-koa Ekialdeko sistemetan ikusirik, ez zuela sarituen multzo-an “errekuperatua” izan nahi joko hartan eroriz. Eta ezetz.

Uko egin zion izendapenari horretara.

Suediara eskuz idatzitako gutun haren facsimilea bere osoan irakur dezake gaur gogoia duen irakurleak. Irmoa be-

zain zuhurra, eskutitza ez da batere luzea. (A. Cohen-Solal, 741. or.)

Mingarri zitzaion Sartreari sariari dagozkion 250.000 suediar koroak galtzea. Eta adiskideek bi irtenbide proposatu zizkioten: bata Londresko Apartheidaren aurkako Elkarteari helaraztea, eta bestea diru hura Tupamaroei bidaltzea.

Baina, zalantzatan luzatu gabe, dirua suediar Akademian uztea erabaki zuen.

Erretratu bikaina utzi zuen Sartrek erabaki horietan.

Urratsaren gako ilunak eta sinesgaitzak hedatu zituen prentsak, hala ere. Azalpen “arrosak” ere ez ziren eskas izan: Simone de Beauvoir ez mintzekotan ukatu zuela, adibidez.

Askok ez zuen egia borobila aintzakotzat hartzen. Ez zuela Sartrek bere burua “totem” gurgarritzat ikusi nahi. Bere burua kritikatzeko eta bestek hankaz gora jartzeko aukera atxiki nahi zuela.

Idazlearen jarrera etiko hau txalotzea gogorra zitzaion askori 1964an.

Eta oraindik ere berdintsu daude jarrerak zenbait girotan.

Eta ez eskuindarren artean bakarrik...

Russell Tribunallean

Viet Nam-go gerra aurrera zihoan, gero eta basatiago. “Komunismoaren kontrako Gurutzada”ren aitzakiaz, napalmez eta bortizkeria guztiez baliatuz erasotzen zieten iparramerikarrek bertako biztanleriari eta naturari berari; ondoko urteotan Iraken eta Afganistanen ikusi dugun bezalaxe.

Orain leloa aldatu da: “Gaizkiaren Ardatza”... Baina zapalketa giroa bera da.

1966ko azaroaren 13an, “isilpe guztizkoaren barrera hautsi” eta mundu zabalaren aurrean Indotxinan gertatzen ari zena salatzea proposatu zuen Bertrand Russellek.

Honetarako, aurretik bost hilabetez gertakariak xeheki aztertuko ziren; eta, lan horren ondorioz, epai goren bat hedatuko zen munduaren aurrean:

“Tribunal honek –argitu zuen Russellek– ez du aurrekaririk. Ez dugu inongo Estatu-aginterik ordezkatzeko; eta politikari erantzuleak inora agerrarazteko ahalmen hertsatzailearik ez daukagu.

Baina geure buruaz mintzo, eta inoren menpeko ez izanik, ikerlan sakon bat burutu nahi dugu.

Ezen nola uler ote daiteke laborari herri txiki batek hama-bi urte honetan munduko industri indarrak handienari horren irmoki eustea?

Batzorde batzuk eratuko ditugu, eta hemendik bost hilabetera Parisen aurkeztuko ditugu berorien emaitzak.

Ez dut nik –beti Russell mintzo– honelako kasurik ezagutzen munduaren kondairan. Ez dut neure oroimenean aurkitzen maila horretako ihardokitze gaitasunik erakutsi duen herriarik.

Ez dizuet ezkututzen, beraz, Viet Nam-dar herriarekiko sentitzen ditudan jainera eta mirespena.

Nire xede nagusia, hitz batez, hauxe da: gertatzen ari den sarraskiaren murrua haustea”.

Oso pertsona ezagunak ziren Russelli baiezkoa eman ziotenak.

Lelio Basso italiarra aipa dezakegu aurrenik. Sozialismoa eraberritzeko zenbait saialditan ibili eta gero, ondoko urteetan Herrien Eskubideen aldeko Liga Internazionalaren bultzatzaile nagusi gisa aurkituko dugu.

Alejo Carpentier kubatar nobelagile ospetsua (Habana, 1904), eta bai literaturgintzan bai kazetaritzan gailen.

Isaac Deutscher poloniar historialaria (Krakovia, 1907). Poloniako Alderdi Komunistan 1926-1932 urteetan ari izana, bere jarrera anti-estalinistengatik Londresera ihesi joana, Errusiako Iraultza aztertu zuen inork baino zinkiago. Famatuak dira Stalinen biografia (1949), eta Trotskyren Trilogia (hurrenez hurren 1954, 1959 eta 1963an argitaratua). Leninen biografian barrena abiatu berria zelarik (eta Russell Tribunalaren Batzarra amaitu eta berehala), bat-batean hil zen.

Peter Weiss alemaniarra (Berlin, 1916), Stockholmen gazetandik finkatua. Saiogile eta antzerkigintzaren berritzaile garrantzitsua izan zen urte haietan. Viet Nam-go gerratea zela bide (eta Russell Tribunalaren ildotik), Viet Nam-i buruzko txosten gogorra kaleratu zuen 1968an.

Horiez gain, **Josue de Castro**, **Vladimir Dediger** jugoslaviarra eta beste banaka batzuk. Tribunalkideak ez ziren anitz, ospe handikoak baziren ere.

Eta Russell adinaren ondorioz Parisa ezin bertaraturik, Jean Paul Sartrek hartu zuen haren ordezkari Tribunalaren Lehendakaritza. (Russellek 1950ean eskuratu zuen Nobel Saria, eta arazo filosofiko sakonak zituen Sartrekin filosofiaren alo-

rrean; baina Tribunalara aurrera ateratzekotan, alde batera utzi zituen).

Aurreikusitako bilera hurbiltzerakoan, 1967ko apirilaren 13an preseski, eskutitz bat bidali zion Sartrek De Gaulle Presidenteari, bileraren helburua garbiki azalduz:

“Amerikar gobernuak erruduna da; bakebide bat bilatu beharrean, genozidio osoa helburu, oldarketa hazkorra eta gerra nahiago izan baititu...

Erruduna da gerrari eutsi eta azkartzeagatik...

Erruduna da gerra horren bitartez genozidioa etsenplu ezarri, eta herri guztiak mehatxatzen dituelako...

Hots, vietnamdarrek, erasotzaileen aurrean belauniko ez jarririk, gu guztion duintasuna defendatzen dute...

Hori aldarrikatu nahi dugu Parisen...

Bidenabar, Jugoslaviatik tribunalkide gisa datorren Vladimir Dedigerri ukatu zaion sarrera-baimenaren arazoa konpontzea eskertuko nizuke”.

De Gaulleren erantzuna, harrigarria, ez zen luzatu: “EZ”. Uko borobila. Russell Tribunalak ez zuen baimenik izango Parisen elkartzeko.

“Zeren beldur zarete? –erantzun zion Sartrek segituan–. Ez Russell zaharraz, bere 94 urteetan; ez nitaz, neure 62etan. Baina guk gerra-krimenak salatu nahi ditugu munduaren aurrean Tribunalaren bitartez. Eta honetxek beldurtzen zaituzte”.

Apirilaren 26an Parisen batzartu behar zutenak, mila kastramila eta traba burokratikoren gainetik, astebeteko atzera-

penez, Stokholmen elkartu ziren azkenean 1967ko maiatzaren 2an. Erabakigarria izan zen Sartreren bultzada iraunkorra poto ez egiteko.

Ordurako, eta Viet Nam-go gerra zela-eta, gaiztatuak ziren USAren eta Suediaren arteko harremanak.

Russell Tribunalak Stockholmen bildu ondoren, okerrago jarri ziren. Jakina.

Aurkeztutako txostenen bilduma liburu gisa argitaratu zen, eta oihartzun zabala izan zuen: *Tribunal Russell. Le judgement final.*

“Mai 68” Parisen eta “Pragako Udaberria” Txekoslovakian, Dubceken eskutik, bazetozen handik urtebetera.

Russell Tribunalak eta Sartrek nork bere modura iragarri zituzten.

Sartre eta Burgosko Epaiketa

1967 ondoko urteetan ere, lekuko eta eragile aurkitzen dugu Sartre lehenengo lerroan.

1968an Txekoslovakiako Alderdi Komunistak Alexander Dubcek aukeratu zuen idazkari nagusi. Honek orduan prentsa eta telebista askatasuna bultzatu zituen, alderdiaren barruko demokrazia azkartuz.

Moskuk ez zuen eboluzio hura begi onez ikusi; eta, “lorpen iraultzaileak” arriskutan zeudela argudiatuz, Varsoviako Ituneko tropak bidali zituen Txekoslovakiara, “Pragako Udaberria” deritzon mugimendua erauztera. Denaz gain, Dubcek bera atxilotu zuten.

Sartrek orduan bere indar guztiez eta hitzik gogorrenez Sovietar Batasunaren jokabidea gaitzetsi zuen; berriro ere komunista ofizialekiko harremanak gaiztatuz.

Eta 1970eko abenduarekin, Burgosko Epaiketa hasi zen.

Sartrek Franco goraki gaitzetsi eta ETako militanteen alde “arrunt bustitzea” erabaki zuen.

Maila berezia aurkezten zuen Epaiketak hastapenetik: ETako 16 inkulpatuak zeuden batetik, eta beren aurkako eskaera fiskala bestetik: 6 heriotza-zigor eta 752 kartzela urte.

1970eko abenduaren 2an ETak Beihl alemaniar kontsula bahitu zuen Donostian, eta Zuberoako Montorin ezkutatu.

PCEko militante batzuen kontrako “1001” epaiketa erabat bigarren mailara jaitsi zen; eta Europatik Euskal Herrira etorritako ehunka kazetariak Lapurdin kokatu ziren, “de facto” Telesforo Monzon ministro ohiak Hegoaldearekiko kon-tuak kontrolatzen zituelarik.

Gisèle Halimi abokatu frantses-aljeriarrak jarraitu zituen bertatik Epaiketako gorabeherak, eta liburu batera bildu zituen: *Le procès de Burgos*, Ed. Gallimard, 1971.

Liburuarentzako Hitzaurrea prestatzeko eskatu zion Sartre-ri. Honek baietz erantzun, eta aparta eta historikoa izango zen dokumentua prestatu zuen.

ETak euskaraz argitaratu eta isilpean banatu zuen. Beste bertsio bat aurki daiteke gaur, Txalapartak 1993an argitaratua, *Euskadi Ta Askatasuna*, 3. lib., 277-285 or.

Espainieraz ere badago testua; Sartre-ren heriotzaren ondoren, *Punto y Hora de Euskal Herria* astekariak 1980ko api-

rilaren 24an argitaratu baitzuen (idazlea apirilaren 15ean hila zen Parisen). Ale bereziko 16-28 orrialdeetan ikus daiteke.

Testuari, Sartreren kronologia bat erantsi zion; baita hiru artikulu ere: bi erdaraz, espainieraz zehazki, Alfonso Sastreren eta Luis C. Núñez-en lumaz; eta bat euskaraz: “Sartre, leku-ko eta gidaria”, liburu hau idazten ari den honenaz.

Euskal arazo nazionala espainiar klase-arazoaren azpi-kapituluxka gisa aurkeztea oso modan zegoelarik, bere ausardia eta zorrotzasun osoez euskal arazoa **nazio askapen arazo gisa** aurkeztu zuen Sartrek munduaren aurrean.

Eskandalu gaitza, jakina.

Orain badakigu Sartrek alor hau aspaldidanik lantzen zuela, eta “ezker abstraktuak” aldarrikatzen zuen sasi-askapenaren salaketa prestatzen ari zela.

Simone de Beauvoirrek eman digu bere kidearen kezka nagusi horren berri (C.A., 26-27). Pasartea ezagutaraztea oso komeni delakoan, hitzez hitz emango dugu euskal itzulpena:

“Burgosko Epaiketan ETako euskal kide batzuk auziperatu ziren. Francok Estatuaren aurkako konplot baten errudun jo zituen.

Begirale gisa hartu zuen parte Gisèle Halimik, eta Gallimard-enean argitaratu zuen txosten orokorra liburu batean.

Hitzaurre bat eskatu zion Sartreri, eta honek pozarren onartu zuen berorren idazketa. Euskaldunen arazoa zedarritu zuen, berorien borroka kontatu, eta ETaren kondaira bereziki.

Sutan salatu zuen zanpaketa frankista, oro har; eta partikulazki Burgosko Epaiketa nola antolatu eta burutu zen.

Honakoan, adibide konkretu bat oinarri, oso barruan zerabilen ideia bat azaltzeko aukera izan zuen. Alegia, funtsean zetzan kontraesana argitzeko. Batetik, unibertsal abstraktua dago, gobernuek eta enparauek aiputan izan ohi dutena; eta, bestetik, unibertsal bakuna eta konkretua, hezur-haragizko gizakiez osatutako herrietan aurkitzen dena.

Hauxe da –zioen Sartrek– kolonizatuen iraultzetan mami-tu nahi izaten dena –kanpotik zein barrutik– eta hauxe da babilio duena, hain zuzen. Zeren-eta gizakiak, beren egoeran, beren kulturaren eta beren hizkuntzan hartzen baititu; eta ez kontzeptu huts gisa.

Sozialismo zentralizataile eta abstraktuaren kontra, Sartrek *beste sozialismo bat* aldarrikatzen zuen, deszentralizataile eta konkretua. Horixe da ETAk zapaltzaileen aurka kontrajartzen duen euskal unibertsaltasun berezia.

Hain zuzen ere, gizaki sozialista sortu behar litzateke; bere lurrean, bere hizkuntzan eta bere ohitura berrituetan funtsetua.

Horrela lortuko da, eta ez bestela, pixkanaka, gizona bere produktuen produktu izateari utzi eta gizonaren seme bihurtzea”.

Simoneren azalpen hauen argitan, are ulergarriago agertzen zaigu Hitzaurre bikain eta profetikoa.

Komunismo ofizialaren tesien antipodetan, Sartrearen Hitzaurrea bizkorgarri eta esperantza-iturri gaitza izan zen. Nik neuk gutxitan jaso dut neure biziera politikoan 1971 hartan Sartreri esker jaso nuen itsas haize balaren tamainakorik.

Pentsaera ildo horri eutsi zion ondoko urteetan. *Les Lettres Modernes* bere aldizkarian ale berezi bat argitaratu zuen 1973an nazio arazoaz. (Bidenabar: azken urte hauetan *Les Lettres Modernes* izenekoak, bi sortzaile gogoangarriak zikinduz, hartu duen “eboluzioaz”... isil nadin!)

Testua bere osoan irakurri beharra dago, baina azpimarratu zituen puntu batzuk aipatuko ditugu hemen.

–PNV, “aurrerazalea politikoki”, Euskal Herriarentzat askatasuna eskatzen duen heinean, “sozialki atzerakoa” da. Kontraesan horretan oinarriturik, aitzina egin ezin, eta erreformismo burges autonomistara lerratzekeo arrisku handia dago. Ezker Abertzalea agertu arte (“ETA” irakurtzen da Sartreren izkribuan) euskal borrokak ez du izan helbururantz artez aurreratzerik.

–Hizkuntzan ikusten du Sartrek Euskal Herriaren ardatza (gure gazteek ez dakite; baina ezker espainolistaren lerroetan “euskara gain-egitura burgesa dela” aldarrikatzen zen ozenki eta harro-harro). Eta oso adierazgarritzat jo zuen Epaiaketakoan akusatuak euskaraz mintzatzean ikusitakoa: “Epaileek ez zuten zipitzik ere ulertzen, baina bazekiten ongi asko non zegoen gakoa. Ikusten zuten Baskoniako nazioa Epaiaketako aretoraino sartua zela. Eta honen aurrean ezjakinarena egiten zuten, entzuten ari ziren euskara *hizkuntza probabletzat* joaz; eta zalantzan jarriaz galdekatutakoek benetan hitz egiten ote zuten ala zentzurik gabeko hotsak egiten ote zituzten”.

Horra Euskal Herriko kulturaren muina eta epaileen burohausterik larriena; hizkuntza hori hil balezate, aldiz, euskalduna (*bere* hizkuntza ez den eta inoiz izango ez den) espainola desiratu eta espainolez mintzatuko litzatekeen *gizon abstraktu*

bat litzateke... *Kolonizatu bat bere bizkuntzaz mintzatzea berez da ekintza iraultzailea.*

–PCEk leku geografikotzat besterik ez dauka Euskadi. Hau da, zentralkeriara jausi da. Hitz batez, sozialki aurrerazalea da, baina politikoki kontserbadorea. Eta klase borroka *kimikoki hutsa* bultzatu nahi duelarik, prozesua geldotzen du.

Gu, frantsesok, nahi ez dugunean ere, hein batez bederen jakobinoak gara, eta ez dugu beharbada ulertzen. Baina alderdi iraultzaile batek zuzendutako herri heroiko horrek *beste sozialismo* mota bat erakusten digu... ETAk zapaltzaileen zentralismo abstraktuari, euskal unibertsalismo berezia kontrajartzen dio.

Testua egokiro laburtzea zail gertatzen zait.

Garbi dago, ordea, orain dela 35 urte “modako gauche divine” espainolistaren kontra, eta Francoren kontrako oposizioan PCEk isilpean bildutako ospearen aurka altxatzean, urrats erraldoia egin zuela Sartrek Espainian benetako ezkerria eta Euskal Herrian Ezker Abertzalea sor zitezela.

Horregatik idatzi izan dut zenbait aldiz, eta oraingoan ere errepikatzen, badela garaia Sartrearen oroitzapenetan kale edo enparantza batzuk beraren izenaz bataiatzeko.

Mereziak baititu aise.

GALIZA ETA ROSALÍA

Lerro hauek idazten ditudan urtean (2006), “Leturia” Ferrrolen izkiriatu nuenez geroztik 50 urte joan direla-eta, bi aldiz ibili naiz Galizan gaindi: uztailen eta urrian.

Juan Luis “Pipi” Zabalak *Berría* egunkarian argitaratutako erreportaje hirukoitza (fotoak eta guzti) irakurlearen eskuragarri dagoenez (ikus urriaren 27, 28 eta 29ko ihekietan), ez dut bigarren bidaiako kontuez ezer errepikatuko.

Lehenengoaz, aldiz, bego informazio iturritzat *Berriaren* 2006/VIII/2 egunean neronek argitaratutako artikulua: “Leturiaren egunkari ezkutua: 50 urte”.

Ohar hauek eginda, bidezko iruditu zait saiakera bilduma honetan neure “bigarren aberritzat” daukadanari gogoeta mordoxka hau eskaintzea.

Galizaz ikuspegi orokorra ematen maisu antzean ni hemen agertzea harropuzkeria zentzugabea litzateke, eta porrot segurua.

Zilegi bekit, beraz, bihotzez maite dudalako, neure iritzi batzuk apalki eta anaikiro jaulkitzea.

“Galiza” hitza nik entzun, eta bi oroitzapen datozkit arrapaladan. “Ría” bare amesgarrien irudia dakusat, batetik, neu-

re bihotzondoan. Eta Padróngo “A Matanza” etxe balkoiduna begitantzen zait, bestetik.

Lurraldea gogoratzen zait aurrenik, beraz; baina segidan, etendurarik gabe, Rosalía poeta hilezkorrak hain zehazki azaldu zigun herriaren patu hitsaren oinazea datorkit.

Xosé Estévez euskal galiziar historialariak 1985ean argiro adierazi zuen galizazaleok lehen-lehenik hunkitzen gaituena: “el embrujo envolvente del paisaje”.

Ría guztiei datxekie xarma malenkoniatsu hori.

Batetik A Coruñatik Iparralderanzko “Rías Altas” deritze-nei: A Coruña bera (bidenabar, bai Curros Enríquezek, bai Pondalek, bai bestek, “A Cruña” beti), eta Ferrol, eta Cedeira, Ortigueira, Vivero, Ribadeo-raino.

Eta berdin, azkarkiago agian, “Rías Baixas” zabalagoei: Corcubión, Muros-Noia, Arousa, Pontevedra, Vigo.

Baretasunez, itsas kresalez eta antxeta urubiz oratutako eguratsak liluratzen gaitu.

Baina gero, Galizaren kondaira eta gertakariak ezagutzen ditugunean, sakonkiago inarrosten gaitu herri anaiaren giza patu doilorrak.

Niri dagokidanez, eta egiaren ohoretan deblauki aitor dut, bi urratsok hurrenkera horretan mamitu dira nigan. Eta ez alderantzizkoan.

Azkeneko espainiar **kolonia** izan baita Galiza (hitza azpimarratuz); gu berandu arte jabetu ez arren.

Beste edozein kolonia klasikotan bezalaxe, bertako jauntxoak metropolian kokatu dira aspaldidanik, Madrilen. Eta handik urrunean, “pazo” zoragarriak atxiki dituzte, gaizki or-

daindutako morroi batzuk zaindari utzita. Eta ustiaketa ekonomikoa bermatzeko baizik ez dira haietaz arduratu.

Trenen sarea bera, esate baterako, ez da Zamoratik Ipar-Mendebaldera oso berandu arte hedatu (1885).

Curros Enríquez poetak (Rosalía eta Pondalekin galiziar “hirukote sortzailea” osatzen duenak) honela deskribatu zuen trenaren etorrera:

*Velabí ven, velabí ven avantando
comaros e corgas, e vales, e cerros.
¡Vinde véla, mociños e mozas!
¡Saludáina, rapaces e vellos!*

Alegia:

Horra hor, hortxe dator
mugak eta putzuak, ibarrak eta muinoak gaindituz.
Zatozte ikustera neska-mutilok!
Agur egiozue, mutiko eta agureok!

(itzulpenaren eskasiak, eneak)

Ikus testua Carlos Casaresen liburuan, *A Chegada a Ourense da primeira locomotora*, 225. or.).

Habanarako helburua

Lurralde ahantzia, Naturaren eta Zuzenaren kontra Portugaldik bereizia; Madrilek interesik gabeko eskualde isolatuztat tratatua, txirotasuna izan du luzaz ezaugarri nagusi.

Eta, honen ondorioz, eta ez galiziarrek atzerriratzea maite omen dutelako, emigrazioa izan dute deskalabru nazionalaren ikurrik garbiena.

XIX. mendean 900.000 joaleren galera jasan du Galizak. Bi milioi biztanle zituen herrialdea urteko 9.000 lagunez izan da hustua; kopuru ertaina, mende bukaeran urteko 15.000 eta 20.000 migrariren heina iritsi baitzuen.

Arestian aipatu dugun Curros bera Habanan hil zen 1908-ko martxoaren 7an.

Oro har, norat ari ziren atzerrira zihoazen oste haiek?

Ezaguna da.

Parte bat Argentinara, Buenos Aires hirira maiz. Bestetan Pampara. Egia.

Baina gehienak Kubara, Habanara.

Zerk harrituko gaitu? Horren desberdina al zen, izan, gairai hartako gure egoera eta galiziarrena?

Euskal Herrian Ameriketara joan eta azkar aberasteko mitoak indar handia zuen:

*Habanara joan nintzan
xentimorik gabe,
handik etorri nintzan,
maitia,
bost milioiren jabe.*

Neronen etxean ezagutu dut nik Habanarako emigrazioaren gertakaria.

Ene aita Habanara joan zen ni jaiotakoan; eta hantxe eman zuen hiru urte.

Zergatik joan zen, ordea, Habanara, eta ez beste norabait? Bera baino lehenago nire izen-deitura bera zeraman José Luis Alvarez osaba (“tío Pepe” etxean) jadanik Habanara aldegina zelako.

Horretara, XX. mende hasiera hartan Kubara aldatzen ziren “etorkinak”, bertakoek sistematikoki “gallego”tzat hartzen zituzten. Neronen aita barne, askotan entzun nionez.

Oro har, estatistikak oinarri, Iberiar penintsulatik irteten zirenak, %60 gutxienez, galiziarrek zirelako.

Baina goazen aurrerago.

Dialektologia apur bat

“Galaiko-portugesa” deritzona (Galiza, Portugal, Brasil eta Afrikako kolonia ohietan mintzatua) latinetik jalgitako 10 hizkuntza erromanikoetako bat da.

Aspaldiko izkribuetan (XIV. mendera arte) ez dago testu bat portugesez ala galizieraz idatzirik ote dagoen jakiterik. Galderak zentzurik ez du. Aspaldiko mende zaharretako testu zaharrak letonieraz ala lituanieraz dauden galdetzeak funtsik ez duen bezala.

Iberiaiko mendebaldean hizkuntza bakar bat zegoen, ña-barduraz horniturik normala denez. Eta mintzaera multzo horri, erosotasunez, *galego-portuges* deitu diogu.

Are XV. mendean ere, trobadoreak galizieraz mintzo ziren. Eta Gaztelako Alfonso X.a erregeak berak (1252-1281 tronuan) galizieraz idatzi zituen bere “Cántiga” sonatuak.

Baina XVI. mendean gauzak aldatu egin ziren, eta gaztelania bihurtu zen Espainia Estatu berriaren hizkuntza ofizial bakarra. Eta galiziera gainbehera hasi zen.

Areago, noski, 1780tik aitzina; gaztelania irakaskuntza tresna bihurtu zenean.

Eta Galizan diglosi egoera gorpuztu zen. Gaztelania, geroztik espainiera ofiziala, A hizkera bihurtu zen, bertako galiziera motak B hizkeren mailan gelditu zirelarik.

Esan beharrik ez: Portugalen ez ziren gertakari hauek maitu, eta portugesak A maila bakarra atxiki zuen.

1840 inguruan Rexurdimento izeneko pizkundea Galizan sortu zenean, hizkuntza minorizatuen bilakaera ezaguna errepikatu zen, ondoko orrialdeotan azalduko dugunez.

Isoglosak eta muga politikoak

Gaur egun galiziera *Galicía* ofizialetik at ere mintzatzen da. Asturias, León eta Zamora espainiar probintzien mendebaldean entzuten da.

Arrazoi historikoengatik, bide beretik, Espainiako lurraldeetan (Badajoz) dagoen Olivenzan, espainiera-portuges elebitasun diglosikoa sortu da; A espainiera, berria eskualdean; eta portugesa, aspaldidanikoa, B mailara eramana.

Gaur egun Galizako hirietan oso hedatua dago espainiera, eta gero eta indartsuago, galiziera bitartean atzera ari delarik: bai hizkeraren beraren *kalitateari* dagokionez (galizieratzat “castrapo” entzuten da; sasi-galiziera, alegia), bai *kantitateari* buruz ere. Populazioaren laurden bat inguru, hirietan eta goiko klaseetan, espainieraz mintzatzen da. Eta elebakar bihurtua

da praktikan, eta mespretxatu egiten du galiziera. Galizieradunak, erabilpenean eta jarreran maingu.

Joera hauek ez dira bat-batean sortu, jakina; baina gero eta nabariagoak dira.

Tipikoa denez.

Hona hemen, adibidez, Carvalho Calero ferroldarrak XIII., XIV. eta XV. mendeez dioena: “O galego é a lingua normal da Galiza, e a literatura galega é a literatura normal: a ninguén se lle ocorre escribir na Galiza senón en galego” (*A nosa literatura*, 8; ASPG, 1982).

Galizieraren egiazko muga Hegoaldetik ez dago Miño ibaiaren ertzean, Dourokoan baizik. Ipar Portugalen galizeraz mintzo da oraindik gaur herri xehea; zeren-eta XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan “a ósmose entre o Norte e o Sul do Miño era constante”.

Nahiz gero eta Lisboaren eraginaz kutsatuago: “Ainda recubertas actualmente, e cada vez máis profundamente por unha capa de portugués *padrão*, de portugués normativo, de dialecto lisboeta, se asmellan moito máis ao galego das provincias de Pontevedra o de Ourense, e as de Lugo e A Coruña, que ao portugués normativo, que é unha abstracción... En todo o Norte de Portugal ás solucións, aínda dentro desta relativa consecución que caracteriza as falas non escritas, as falas populares, as falas rurais, responden máis ben á normativa galega que á normativa portuguesa”.

Eta xehekiago Carvalho Calerok berak azaltzen: “O galego, como fala popular, se estende moito máis aló dos límites do Miño; xa que calquera que considere os estudos que se teñen feito sobre o léxico das provincias de Entre Douro e Mi-

ño, Tras os Montes, ou da mesma zona de Coimbra, observará que, aínda... non figuran nos dicionários portugueses habituais, porque o portugués é o andaluz do galego”.

Desberdintasun fonologiko batzuk

Galizieraren normalkuntza, eta sendotu diren bi joera nagusien arteko hautua, hau da gaur: *reintegracionismo lusista* dago, batetik; eta galizieraren barruko *galegotasun isolatzaileria* bestetik.

Arazoa, berriro ere, ez da *linguistikoa*, *sozio-linguistikoa* baizik. Eta berariaz azpimarratu dugu “sozio” osagaia. Ez da “corpus”ari buruzko eztabaida teknikoa.

Baina maila horretako desberdintasunen berri gaingiroki bederen ematea interesgarri izan daiteke.

–Galizierak 7 bokal toniko ditu gaur, portugesak 11.

–Galizierak ez du sudurkaritza fonologikoa erabiltzen, portugesak bai.

–Galizierak ez ditu /j/ frikari ahostuna eta /x/ frikari ahoskabea bereizten. Biak fr.[ch] ahoskatzen ditu (“charbon” bezala). Baina portugesak bereizten ditu fr.[j] vs. fr[ch], (“joue” hitzean bezala). Frantsesez grafiaz ere bereizten dira biak, portugesez bezala. Galizieraz ahoskabea hartu da fonema bakartzat “xunta” eta “xastre”. Euskalkien artean gertatzen zaigun bezala, erronkarieraz “xin” esaten zena, zubereraz “jin” esaten da.

Posible ote zen, ordea, euskararen alorrean egin dugun bezala, grafia bikoitza atxiki (lusista kasu honetan, Portugalen bitasuna bizirik dagoenez), eta *binomia* baten bidez bi ahos-

kerak onartzea? “Junta” idatzi, esate baterako, baina bi ahoskerak, [junta] eta [xunta] alegia, onartuz?

Joan Corominasek proposatu bezala, helburua “escreber urbanamente” baldin bada (ik. *Agália*, 48, 1996; 411-416), baietz dirudi.

Baina kataluniar jakintsuaren iritzia neure eginez, nik ere neure “absoluto respeito con as decisións que corresponden únicamente aos galegos” aldarrikatzen dut.

Iberiaiko latinak erromantzeak sortzerakoan, hiru bloke mamitu ziren, oro har: katalana ekialdean, Elxeraino; gaztelania erdian, eta galegoa mendebaldean. Mahometarrak He-goaldera uxatu ahala, hiru bloke horiek luzatu egin ziren, Portugalen eta herri katalanen mapetan garbi ikus daitekeenez.

Tartekoak (Aragoikoak eta Leongoak, lehen hurbilketa batez) beste hiru nagusi horietara bildu ziren, eta arrasto batzuk salbu, desagertu egin dira.

Hori dela bide, gaur galizieraren normalkuntza (hizkuntzalari huts gisa mintzatuz) erdialdeko gaztelania arrotzari begira moldatu nahi izateak, politika arrazoiengatik ez bada, ez du funtsik.

Nederlandera argitzaile

Honetaraz gero, *Flandria/Holanda* bikotea datorkit burura, eta bertako bi mintzairen artean XIX. mendean zegoen egoera.

Zalantza igarokor batzuk gainditu ondoren (erlijioa tarteko: holandarrek protestanteak zirelako eta flandriarrak katolikoak), *flandriarrek Holandako nederlandera* normalizatu

eta ofiziala hautatu zuten ardatz eta A hizkuntzatzat; eta Flan-
driako dialektoak B mailako hizkera gisa utzi zituzten.

Suenens kardinala eta gainerako frankofilo amorratuak
oihuka hasi ziren, flandriera Leuven, Gent eta gainerako uni-
bertsitate flamenkoetan sartzea “jakintzaren aurkako atenta-
tua” izango litzatekeela-eta. Eta abar.

Baina nederlandera maila guztietan erabiltzen zen Holan-
dan (Unibertsitatea barne), eta istilurik edo asaldurik batere
gabe.

Eskandalagarria, ordea, frantsesa baztertzea zitzaien; Flan-
drian burgesia frantsesurik zegoelako, eta bertako hizkuntzari
bizkarra emanda, flandriar herri xeheak “vlaams” dialektoak
(flamenderazkoak) erabiltzen zituen arren (Holandako neder-
landera ofiziala batere ezagutu gabe).

Gertakari historiko hauek kontuan hartzeko gomendatu
izan diet galiziar adiskideei neure iritzia emateko eskatu dida-
tenean. Zeren-eta han ere, holandarrek goitik behera eta ha-
rroxko begiratzen baitzieten flandriarrei; eta itzulelara, hauek
ere apalegi eta gorroto puntu batez Amsterdam eta Den Ha-
guko auzoeci.

Rexurdimentoaren sorreraz eta hazkunderaz

Gatozen berriro 1850 inguruko Galizara.

Han zegoen hizkuntz egoerari, Psichari eta Fergusonez
geroztik, *diglosia* deritzo zentzu hertsian. Alegia: hizkuntza
baten bi molde edo aldaki, gizarte erabilpenean, A eta B mai-
latan sailkatzen direnean.

Portugalen, arestian esan dugunez, ez da diglosiarik gertatu.

1850 urtean, halako “bonba editorial” bat lehertu zen Galizan. Pintosen “A gaita gallega” liburua galiziera (ia) hutssez kaleratu zen. Pontevedran 1811n jaioa, Xoán Manuel Pintos Villar idazleak Santiagon ikasi zuen Zuzenbidea; eta legegizon gisa egin zuen lan bere bizi guztian barrena. Eta 1876an hil zen.

Liburu honen xedea garbi azaldu zuen: Galizako fala altxatzea, eta ikasteko metodo bat eskaintzea: “Unha carta para ir deprendendo a ler, escribir e falar ben a lingua galega”. Denaz gain hau zuen helburu: “Unha sorte de apoloxia xeral de Galiza e un alegato patriótico” (Carvalho Calero).

Liburu honen kaleratzea gertatu zenean Murguía (Galiza berriko Aitalehena) 17 urte zituen; eta handik zortzi urtera emaztetzat hartuko zuen Rosalía de Castrok, 13.

Hots, bai bikote hilezkorra, eta areago hastapen hartako aintzindariak (Pintos, adibidez), diglosi giro hartako biktima eta lekuko ziren batera.

Galizaren pizkundean, maiz agertzen dira “hirukoteak”. Eta nik bi gogoraraziko ditut.

Neronek arestian egin dudan bezala, Literaturaren alorrean hiru izen aipatu ohi dira: Eduardo Pondal, aberatsa, zaharrena (1835-1917, Ponteceson jaioa, A Coruña); Rosalía de Castro (1837-1885), txiroa, Compostelakoa jaiotzaz; eta Manuel Curros Enríquez, gazteena (1851-1908, Ourenseko Celanovakoa).

Rexurdimentoaren hasierako hiru literatura obrarik gorenak aipatzerakoan ere beste obra hauek hautatzen dira: Cu-

rrosen *Aires da miña terra*, Rosaliaren *Cantares Gallegos*, eta Pondalén *Queixumes dos pinos* (Pinuen intziriak).

Kasu! Hirurok idatzi zuten bai galizieraz eta bai espainieraz. Baina Palacký txekiarrak alemanez; eta Lönnrot, Snellmann eta Runeberg suomiar abertzale gorenak suedieraz idatzi zuten beren obra; hasieran batez ere.

Rexurdimentoko buruzagiak askotan gaztelaniaz mintzo ziren beren artean, eta gaztelaniaz argitaratu zituzten beren izkribuak. Ez baita oso harritzekoa alde batetik.

Rosalíak Murguía bere senarrari espainieraz egiten zion: “Manolo: tú sabes que cuando estoy enferma me pongo de un humor del diablo, todo lo veo negro... Estando lejos de tí vuelvo a recobrar fácilmente la aspereza de mi carácter que tú templas admirablemente”. Eta “Rosa” sinatuz amaitzen zuen eskutitza.

Eta Murguía, bide beretik, espainieraz erantzuten zion.

Kontraesan bera aurkitzen dugu Curros Enríquezengan:

*O millor viño, o da adega;
a millor carne, a da alcatría,
a millor terra, a da patria;
¡a millor patria... a gallega!*

(C. Casaresen lib., 169)

Alegia:

Ardorik onena, upategikoa;
okelarik onena, zangarena;
lurrik onena, aberrikkoa;
aberririk onena, galiziarra!

(zanga, txori mota bat da)

Baina Currosek berak espainieraz idazten zion Ramona bere arrebari Habanatik (1906): “En esta Habana no puedo vivir por lo caro que cuesta todo, y especialmente por los atroces calores que de año en año aumentan” (ik. Casares, *ibid.*, 62).

Aldez aurretik suma zitekeenez, joera diglosiko hori oso nabarmen agertzen da aurreneko galegozaleengan.

Aurelio Aguirre Galarraga, adibidez, galiziarra sorkuraz eta sentimenduz, nahiz euskal jatorrikoa, Rosalíarekiko maitasun arbuioaren ondorioz (beronek Murguía hobetsi zuenean) A Coruñaako San Amaro inguruan bere buruaz beste 1857an egin (bide) zuena, gaztelaniaz mintzo zen galizieraren alde: “... consolar con dulcísimos cantares, / de tus hijos Galicia los pesares”, eta abar.

Poesías selectas bilduman Aguirreren olerki batzuk agertzen dira, gaztelaniaz. Eta batek titulu adierazgarri hau darma: “A la poetisa R.C.”

Horren gazterik hildako poetak bazeukan zer esanik, “El murmullo de las olas” poema honetan igar daitekeenez, bartzuetan Rosalía tematzen zuen “itzala”ren oihartzun:

*Dímelo tú, ser misterioso,
que en mi ser oculto moras
sin que adivinar consiga
si eres realidad o sombra,
ángel, mujer o delirio
que bajo tan distintas formas
a mis ojos apareces
con la noche y con la aurora,
y a todas partes me sigues
solicita y cariñosa,*

*y en todas partes me buscas,
y en todas partes me nombras,
y estás conmigo si velo,
y si duermo en mí reposas,
y si suspiro, suspiras,
y si triste lloro, lloras...
¡Oh! Dímelo, tú lo sabes...
Díme, visión tentadora
¿qué les dice a los que sufren
el murmullo de las olas?*

(Enc. *Galicia*, 289)

Ez da segurua Aguirre eta Rosalía Conxoko oturuntza ospetsuan izan zirenik. Urrun ibili ez zirela segurua da; Murguía mahaikide izan zelako.

Baina Galizako Larrazabalgo zinaren kideztat har daitekeen *Xantar de Conxo* bilera historikoan (1856ko martxoaren 2an) berdin egin zuten mahaikideek. Eta gaztelania hutsez mintzatu ziren bai Eduardo Pondal, bai Murguía bera, eta bai Lois Rodríguez Seoane.

Ikuspegi abertzalea Murguíaarengan

Hona hemen, hasteko, 1885ean, emaztea galdu zuen urte berean, Murguía idatzitako argiemale hauek: “Hay que intentar en Galicia algo más noble y trascendental que proclamar una idea y levantar una clase: hay que formar una patria”.

Soinez txiki baina izpirituz handi, ongi jabetua zen Murguía Portugalekiko anaitasunaz; baina arrazoi praktikoengatik ez zen oso lusista agertu.

Alde batetik, portugaldarrek ez zuten interes berezirik agertzen Galiza aurrera ateratzeko (holandarrek Flandria aurrera ateratzeko joran bizirik erakutsi ez zuten bezalaxe). Eta, bestetik, Espainiak Galizan ereindako arbuio giroa lagun, itzuletara, Portugalekiko inolako jainerarik ez zuten gali-ziarrek.

Galiza aberritzat altxatu nahi hartan, “había que demostrar que Galicia era una nación *per se*, y que sus habitantes sentían intuitivamente esta especial identidad”.

Eta honen ardatz, hizkuntza jarri zuen Murguía: “Pueblo que pierde su lengua es pueblo muerto”.

Galizieraren atzerakadaz jabetua zen, noski: “En nuestra juventud el dominio del habla gallega era total en Galicia”. Nahiz gero, esana dugunez, gaztelaniaz erruz baliatu. Hala ere:

–1891n, Tuin ospatutako “Xogos Florais” direlakoetan galiziera hutsez mintzatu zen beste bi antolatzaileak bezalaxe: Alfredo Brañas eta Cabeza de León.

–1903an, *Cova Céltiga* zeritzon galegozko antzerki taldearen sustatzaile topatzen dugu.

–Eta 1906an, *Academia Gallega* eratzean, lehenengo Presidente hautatu zuten.

Hiruzpalau xehetasun adierazgarri segidan, Murguíaaren nortasuna hobeki ulertzeko.

Murguía Froxelen jaio zen (1833-V-17an), Arteixon, A Coruñatik oso hurbil.

Bere jaiotetxearen fotoak baditugu (ikus *Galicia* Entziklopedia, XXXI. lib., 238). Zinez horma zahar eta leiho bakar hartan, txirotasun guztizkoa sumatzen da. Nahiz aita, Martí-nez jauna, botikaria izan.

Hain zuzen ere, Murguía Farmazia ikasi zuen Compostelan eta Madrilen. Baina ez zen inoiz lanbide horretan aritu.

Froxelen urrun gaude Emilia Pardo Bazán coruñatar idaz-le aberats eta arrakastatsuen oparotasunetik. Azpimarratu beharrik ez: kondesak ez zuen sekula lerro bakar bat galegoz idatzi, bere nobelen tematika askotan Galizan gertatu arren. Ezaguna da, bestalde, Pardo Bazán andereak eta Murguía-Castro bikoteak elkar gorroto zutela.

Data funtsezko bi: Murguía Rosalíarekin ezkondu zen Madrilen 1858ko urriaren 10ean; eta 1885eko uztailaren 15ean alargundu. (ik. Francisco Rodríguez, *Análise Sociológica da obra de Rosalía de Castro*, 51. AS-PG, 1988. Doktorego Tesi hau da nik ezagutzen dudana azterketarik osoena).

Beste xehetasun adierazgarri bat.

Murguía, izan, Manuel Martínez Murguía zen. Baina beti “Manuel Murguía” sinatzen zuen. Ez zuen aita gogoko. Eta honek azal dezake Martínez deituraren ezkutaketa.

Ama, berriz, Kontxa Murgia Egaña, arrunt maite zuen. Oiartzuarra (Xosé Estévez historialariak berriki frogatu duenez, eta ez tolosarra), semearen eskerrona jaso zuen behin eta berriz: “Mi madre, que era de aquella tierra en que ni se teme ni se miente, me dió con su sangre eterno amor al país natal... En mis horas de desaliento y desolación aprendí a cono-

cer que del corazón de mi madre venía aquel enérgico movimiento que me arrastraba sin vacilación ni temor a los combates y al peligro” (ik. *Manuel Martínez Murguía*, X. Estévez, 2000; 30).

Eta gertakari gogoangarri pare bat, atal honi amaiera eman aitzin: bere obra guztia argitaratzeko Habanako Centro Gallego-aren diru-laguntza lortu zuela; eta bultzadan lagundu zukeela Curros Enríquezek, urte haietan biltoki hartan ibiltzen zenak.

Historiako gorabeherak ez ziren izan ondoriogabeak haien etxean:

1874ko irailaren 29an Martínez Campos jeneralak Saguntón estatu kolpea eman zuenean, eta erregetza Alfonso XII.aren pertsonan berrezarri (“Restauración” erdaraz), Cánovas del Castillo eskuindar eta zentralista nagusitu zen Madrileko gobernuaz. Eta Karlos VII.aren kontrako gerrateaz gain, errejionalistak eta ezkertiarak oro “purgatzeari” ekin zion. Baita Galizan ere.

1868ko Iraultza “Gloriosa”koan, Santiagoko Juntako sekretario izendatu zuten Murguía; eta geroztik markatuta gelditu zen.

1871z geroztik, hain zuzen, Galizako Artxibari izendatu, eta familiarekin bere aberrira itzuli zen.

1875ean, ordea, Cánovasen aginduz, Artxibari lanpostua galdu zuen; eta berriro ere koloka geratu zen Murguía-Castrotarren bizimodua.

Berauen seme-alaben kopurua ugaldua zen: bost guztira, foto famatuan ikus daitekeenez (ik. X. Estévez, *ibid.*, 13). 1859an jaiotako Alejandra lehendabiziko alabari, Aura

jarraitu zitzaion (1868), Gala eta Ovidio bikiak (1871), eta Amara (1873).

Rosalía etxeoandereak, 37 urte orduan, bazuen etxe hurra zuzentzen makina bat lan; eta izkiriatzeko giroa dexente zailduta... Eta González Besadak esan zuenez, “bikotea gaitasunez mukuru hornitua, maila berean zen baliabide ekonomikorik gabea”.

Rosalía de Castro, Galiza berriaren aitzindari

Rosalía Santiagon jaio zen 1837ko otsailaren 24an.

Murguía-rengan bezala, galiziar abertzaletasuna borobilki topatzen dugu olerkariarengan. Rosalíaren kasuan gainera, bere bi obra nagusitan galizieraz adierazia.

Gaztelaniazko ekarpena mespretxagarria ez da: *La flor* (1857), *La hija del mar* (1859), *Flavio* (1861), *El cadiceño* (1863), *A mi madre* (1863), *Ruinas* (1866), *El caballero de las botas azules* (1867), eta oso garrantzitsua, bere azkeneko obra, bertsotan, *En las orillas del Sar* (1884).

Baina galizieraz argitaratutako bi poema liburuk eman diote ospea Rosalíari:

Cantares gallegos (1863)

Follas Novas (1880).

Rosalía aitoren seme etorkikoa zen: “solteira fidalga de menguada fortuna”.

Galicia Entziklopedian ikus daiteke bere jaiotetxea (XXXI, 262), “O camiño novo” bidean, Santiago ondoan. Areago idarokitzen du miseria, aisia ekonomikoa baino.

Rosalíaren aita José Martínez Viojo apaiza izan zen (73 urteetan 1871n hila, poetak 34 zituelarik).

Honek ez zuen aski bertuterik izan bere aitatasuna aitortzeko; eta gizarte hetsi hartan zama latza jarri zion alabari bizi guztirako.

Ulegarria da Rosalíak “de Castro” sinatzea; baina sekula Martínez deitura ez agertzea.

Bere ama (1862an hila) beti maitatu zuen; “A mi madre” poeman (1863) froga daitekeen bezala:

*¡Ay! ¡qué profunda tristeza!
¡Ay! ¡qué terrible dolor!
¡Ella ha muerto, y yo estoy viva!
¡Ella ha muerto, y vivo yo!
Mas ¡ay!, pájaro sin nido
poco lo alumbrará el sol,
¡y era el pecho de mi madre
nido de mi corazón!*

Azalpen handirik gabe, horrela, Teresa Martínez izebarekin Ortoñoeko etxe ederrean pasa zituen bere haurtzaroko urte batzuk (Amesen, A Coruña).

Osasunez beti makal ibilita, umetokiko minbizia aurkitu zioten 1883an; eta Padróngo “A Matanza” bere etxe balkoi-dun ospetsuan hil zen 1885eko uztailaren 15ean, 48 urte besterik ez zuelarik.

Bere azkeneko hitzak hauek izan ziren: “Ireki leiho horiek; itsasoa ikusi nahi dut”. Baina Padróndik itsasoa ikustea ezinezkoa da.

Etxe hori, Iria Flaviako eliza eskergatik hurbil, tren gelto-ki arrosa erdi abandonatuaren ondoan kokatua, Rosalíaren Etxe-Museo bihurtu da 1972az geroztik.

Gaztetan Santiagoko abertzale gazteen multzokoa izan zen. Eta han ezagutu zuen jadanik aipatua dugun Aurelio Aguirre Galarraga, Rosalíaz maitemindua, azaldu dugunez.

Badirudi Padróngo gizon ezkondu batekin ere harreman iraunkorra izan zuela. Baina familia Murguíaekin bakarrik izan zuen. Arestian aipatu ditugun bostak 1875 artean; gehi beste biga: Adriano (1875), mahai batetik erori eta urte eta erdiarekin hila; eta Valentina (1877), jaio orduko hila.

Nire lehenengo oroitzapenak Rosalíaz

Galiza 1956an ezagutu nuenean, eta nire oroimenak desbideratzen ez banau, ez nuen Rosalía de Castro ezagutu. Besterik nerabilen buruan eta bihotzean. Jator aitor dizuet.

Gero jabetu naiz Rosalíaren garrantziaz.

Handik hogeitaz urtera (1977), neure deserrialdia amaitu eta ihes egin baino lehenago ezagututako lekuak berrikusteko gogo bizia sentitu nuenean, Galizaraino ere iritsi nintzen. 1979an preseski. Baita geroago ere, askotan.

Eta 1980an izan bide nuen lehendabizikoz Rosalíaren eta Padrónen berri zuzena, orain berriro topatu dudana artikuluan ikus daitekeenez (“Rosalía bihotzean”, *Punto y Hora* aldizkarian, 1980ko martxoaren 20an).

Horretan ematen diren xehetasunen artean, bat iruditzen zait azpimarragarri: Donostiako Karlos Santamaria kristau intelektual abertzale ospetsuak Rosalíaren obra ezagutzen zuela.

Areago, “él nos tradujo al vasco diversas poesías de Rosalía” esan zidaten Padrónen.

Ez dakit nik Don Karlosek berak itzulpen horiek benetan burutu ote zituenetz. Arakatzeko puntutxo bat izan daiteke hau.

Gakoa hau izan daiteke, ene ustez: Rosalía, Unamuno bezalaxe, erlijio tirabira iraunkor eta biziaren jasale izanik (sine-tsi nahi baina sinetsi ezin, ondoko pasarteetan erakusten denez), eta Santiagoko poeta Bilboko existentzialista tragikoa baino lehenagokoa izanik (27 urte gazteago), ez litzateke bati harrigarria izango Santamaria donostiarrak *En las orillas del Sar* gupidagabea, edo beste zerbait, dastaturik izatea.

Unamunoren kontra Elizak hedatutako gaitzespenak, bestalde, askoz ere eragin handiagoa zuen urte haietan orain baino.

Hiru liburu nagusi

Rosalíaren obra guztia, hizlauzkoa barne, lerro batzuetara bildu nahi izatea porrotera abiatzea izango litzateke. Batez ere prosazko lanak, tamainaz, poema guztiak baino ugariagoak direla badakigularik.

Ikuspegi orokorra izateko (obra guztia aztertu baita hor) Francisco Rodríguez-en tesi mardularen irakurketa gomendatzen dut zalantzarik gabe.

Nik neuk ongixko ezagutzen ditudan hiru poema liburu ospetsuenen berri emango dut; irakurleari iturrira jotzeko eskatuz.

1. *Cantares gallegos* (1863). Rosalía gazte zelarik. Galizieraz. Nik daukadan edizioko aleak, 1995 data darama (Ed. Galaxia); eta María Xesús Lamak zuzendurik ageri da. 37 poemak osatzen dute.

2. *Follas novas* (1880). Galizieraz. Nik dauzkadan edizio-ko aleak desberdinak dira. Bata galiziera hutsez dator (7. argit., 2004); Marina Mayoral eta Blanca Roigek zuzendua (Ed. Xerais, 2004). Eta bestea, elebiduna (galiziera-espainiera, *Follas novas – Hojas nuevas*, Fund. Rosalía de Castro, 2004). Itzulpenaren ardura X. Rábadak eta H. Villarek hartua, Rosalía ez baitzuen itzulpenik egin. 136 poemak osatua.

3. *En las orillas del Sar* (1884). Espainieraz. Nik daukadan alea 2002koa da, *Colección Austral* sailean. Argitaraketa hau Mauro Armiñok zuzendu zuen, hitzurre oso mamitsu bat erantsiz. Jatorrizko bilduman 99 poema daude, 7 ataletan; ondoko edizioetan poemen kopurua aldatu bada ere.

Cantares gallegos liburuaz, hasteko, aurre-ohar batzuk egin nahi nituzke. Antonio Trueba de la Quintana bizkaitarraren eraginez idatzi zuela dio Rosalía:

“O *Libro dos Cantares* de D. Antonio Trueba, que m’inspirara e dera alento pra levar a cabo este traballo, pasa polo meu pensamento com’un remorso, e casi asoman as bágoas de meus ollos ó pensar como Galicia se levantaría hastr’o lugar que lle corresponde, si un poeta como Antón o dos Cantares fose o destinado pra dar a conocer as súas bellezas e as súas costumes. Mas a miña infeliz patria, tan desventurada neste como en todo o máis, tense que contentar cunhas páxinas frías e insulsas...

O máis triste nesta cuestión é a falsedade con que fóra d'aquí pintan así ós fillos de Galicia com'a Galicia mesma, a quen xeneralmente xuzgan o máis despreziable e feio d'España, cando acaso sea o máis hermoso e dino d'alabanza" (ib. 126-127).

Hots, Rosalíak galizieraz idatzi zuen liburua, eta ez espainieraz.

Truebak, aldiz, bai *Libro de los Cantares* eta bai *Libro de las Montañas* izenekoak, espainieraz idatzi zituen, eta ez euskaraz.

Areago. Truebaren tema, euskara baztertzea bide zen; euskal ipuinak, Ramón Artola, Felipe Arrese-Beitia, are Iparragirrerren *Gernikako Arbola* bera (arrakastarik gabe, beharrik!) espainieraz hedatzen saiatuz.

Puntu bakar batean jotzen ditut nik biak irizkide: Gaztela lehorrarekiko biok sentitzen zuten gorrotoaren aldetik. Eta mespretxuaren muina lurraldearen idortasunean datza.

Hona hemen, hasteko, Trueba galdamestarraren lerro hauek:

*Madre España, Madre España,
yo he cruzado tus llanuras
de Portugal, de Castilla, de Aragón,
y de las cuatro estaciones en tres las he visto tristes,
y desoladas y muestias...
Dios les ha negado las lluvias.*

(*Libro de los Cantares*, 62).

Eta bide bertsutik Rosalía, gaztetandik, honela mintzo zen Gaztelaren aurka:

*Que Castilla e castellanos,
todos nun montón, a eito,
non valen o que unha herbiña
d'estos nosos campos frescos.
Solo pezoñosas charcas
detidas no ardente suelo,
tés, Castilla, que humedezan
esos teus labios sedentos...
Nin arbres que che den sombra,
nin sombra que preste alento.
Llanura e sempre llanura,
deserto e sempre deserto,
mellor que Castilla
valera decir inferno...
¡Trocar campiños frocidos
por tristes campos sin rego!...*

(*Cantares Gallegos*, 28: “Castellanos de Castilla”, 272-277)

Rosalía poeta herrikoia

Rosalíaren kantoreak harrigarriro zabaldu ziren Galizan zehar; eta norenak ziren jakin gabe, herriak zehazki atxiki zituen bazter guztietan, eta ondorengoei irakatsi. Gure bertsolari famatuen bertsoak ahoz aho eta belaunez belaun ikasten, irakasten eta errepikatzen diren bezala.

Nekazariekin eta arrantzaleekin osoki bat eginik. herriaren hatsa egin zuen bere Rosalíak. Eta arrakastaren gakoa identifikazio horretan datza denen iritziz.

Alvaro das Casasek Ons uhartean bildu zuen 1934an (Rosalía hil eta mende erdira) poema famatu hau:

*Miña terra, miña terra,
terra donde me criei,
terriña que quero tanto,
figueiriñas que eu plantéi...*

Cantares gallegos bilduman, 15. errepera daraman poeman aurkitzen dugu Rosalíaren lumaz munduratu zena:

*Adiós ríos, adiós fontes,
adiós regatos pequenos,
adiós vista dos meus ollos,
non sei cando nos veremos.*

Eta bigarren estrofan aldaketa ñimiñoz aldera dezakegu jatorrizko poema:

*Miña terra, miña terra,
terra donde m'eu criei,
hortiña que quero tanto,
figueiriñas que prantéi...
... Xa sóien lonxe, moi lonxe,
as campanas do Pomar,
para min ¡ai! coitadiña,
nunca máis han de tocar.*

Eta *Follas novas* argitara baino aise lehenago entzun daiteke Galizaren deia:

*Cantar'ei si queres
na lingua qu'eu falo;
dareich'un mantelo,
dareich'un refaixo...
Cantar'ei, Galicia,
na lingua gallega,
consolo dos males,
alivio das penas...
qu'así mô pediron
qu'así mô mandaron,
que cante e que cante
na lingua qu'eu falo.*

Eta hasieratik Galiza eta galiziera altxatzeko deliberoa.

Zein galiziera mota hautatuko?

Horra hor Rosaliak gainditu behar izan zuen lehenengo oztoparria.

Bai *Cantares Gallegos* eta bai *Follas novas* liburuetan, bera jaiotzaz Santiago ondokoa izanik, sorleku honen inguruko dialektoa aurkitzea (Amaia eskualdekoa preseski, haurtzaroan ikasitakoa) aurreikusteko modukoa da.

Horrez gain, halere, Rosaliaren hizkera sakonki aztertu dutenek hau diote: galizierarik jatorrena baliatu nahiz, **Sar eta Ulla ibai arroetakoa** hautatu zuela ardatz.

Nonbait han ere, gurean euskararik jatorrena Tolosa ingurukoa dela esan ohi den bezala (baiespen hau guztiz eztabaidagarria izan arren), Galizan ere, agiri denez, Sar eta Ullabarretakoa dela diote (edo zioten behintzat XIX. mende erdialdean). Eta Rosaliak berak sinetsi.

1863an liburua argitaratu zuenean, ez zegoen galizierazko gramatkarik ez hiztegirik. Erdi Aroko kantak ahanzita zeuden (Murguíaak berak oso berandu arte ez zituen ezagutu); eta lirika herrikoiaz bildutako izkriburik ez zegoen oraindik.

Cancioneiro de Ajuda osoa 1875ean kaleratu zen; eta Pérez Ballesterosen *Cancioneiro popular* izenekoa 1883an.

Galizierazko berbaren katea etenda egon zen hiru mendez.

Baldintza ezin txarrago horietan, aitzindari lan zailean murgildu behar izan zuen *Cantares gallegos* bilduma. Eta normala da, beraz, grafian eta lexikoan zalantza asko aurkitzea.

Berauen zerrendaketa xehea segitzeko, ikus M. X. Lamen ikerlana: *A lingua de Cantares gallegos* (89-112 or.).

Eta orain beste ohar orokor bat.

Ez da egia Rosaliaren galiziar abertzaletasuna galegoz idatzitako izkribuetan ez besteetan agertzen denik. Ez dago, azken funtsean, inolako jauzi edo etendurarik hizkuntza batean zein bestean mamitutako lanen artean.

Hona hemen, adibidez, espainieraz idatzitako *En las orillas del Sar* liburuan irakurtzen ditugun esaldi hauek (122. or.):

*Es el silencio hermano de la muerte,
y yo no quiero que mi patria muera,
sino que como Lázaro, ¡Dios bueno!,
resucite a la vida que ha perdido;
y con voz alta, que a la gloria llegue,
le diga al mundo que Galicia existe,
tan llena de valor cual tú la has hecho,
tan grande y tan feliz cuanto es hermosa.*

Edota beste hau:

*dónde duermen las glorias queridas
de este pueblo sufrido que espera,
silencioso en su lecho de espigas,
que suene su hora
y llegue aquel día.*

Hauek 1884an kaleratuak, Rosalía oraindik bizi zelarik; eta inprimategiko lana jarraitu ahal izan zuelarik.

Nahiz 1881eko uztailaren 26an, Lestrovetik, bere senarra-ri lerro ilun hauek idatzi: “Mi querido Manolo: Te he escrito ayer, pero vuelvo a hacerlo hoy de prisa, para decirte únicamente que me extraña que insistas todavía en que escriba un nuevo tomo de versos en dialecto gallego”.

Oso minduta zegoen *Follas novas* liburuak bere kide batzuegandik jaso zuen harrera txarragatik, eta Murguáari aitortzen zion: “No volveré a escribir nada en nuestro dialecto, ni acaso tampoco a ocuparme de nada que a nuestro país concierne”.

Mehatxu hau ez zuen bete, arestian frogatu dugunez. Interresgarria da, dena dela, Murguíaak bultzatzen zuela horren garbi agertzea.

Baina etsipenak harrapatua zen; beharbada umetokiko minbiziak sorkurazko bere tristurari (galegoz Rosalíak “tristura” hitza zerabilen, guk euskaraz bezalaxe) oinaze hazkorrak erantsi zizkionean:

*Un manso río, una vereda estrecha,
un campo solitario y un pinar,
y el viejo puente rústico y sencillo
contemplando tan grata soledad.*

*¿Qué es soledad? Para llenar el mundo
basta a veces un solo pensamiento.
Por eso hoy, harto de belleza, encuentras
el puente, el río y el pinar desiertos.*

*No son nube ni flor los que enamoran;
eres tú corazón, triste o dichoso,
ya del dolor y del placer el árbitro,
quien seca el mar y hace habitable el polo.*

(*En las orillas del Sar*, 95-96)

Baina bada garaia *Follas novas* liburuaren atal batzuk erakuts ditzagun; “galiziar lirika libururik onena”, Alonso Monteroren iritziz.

Bide beretik, Rosalíaren “lirika guztia” dago liburu horretan, Murguíaaren ustez.

Eta lirika hori oraingoan guztiz da ezkorra eta beltza; eta *Cantares*-en folkloreak eta idazlearen gaztetasunak etsipena goxatzen bazuten ere, *Follas Novas*-en salaketa eta amorrazioa gailentzen zaizkio malenkoniari. Eta Rosaliak gaitzetsi egiten du gizartea, eta tarteka-marteka madarikatzen.

Galizak jasaten duen zapalketa hartzen du salagai; baina baita oso bereziki galiziar emakumea kolpatzen duen patua ere. Testua, zenbait aldiz, gaur “terrorismoaren apologia”tzat hartuko litzateke. Irakur, adibidez, “A xusticia pola mano” gogorra, 110-112.

Follas novas poema bilduma luzean, arazo asko eta asko ukitzen da. Suizidioarena, adibidez, tabu gaitza:

*¿Por qué, Dios piadoso,
por qué chaman crime
ir en busca da morte que tarda,
cando a un esta vida
lle cansa e lle afrixe? (134)*

Badaki salaketa bortitz horiek ez direla maiz gertatzen emakumeen luman:

*Daqueles que cantan as pombas i as frores
todos din que teñen alma de muller.
Pois eu qu n'as canto, Virxe da Paloma,
¡ai! de qué a terei?*

*Ben sei que non hai nada
novo en baixo do ceo,
que antes outros pensaron
as cousas que ora eu penso*

*E ben, ¿para qué escribo?
E ben, porque así semos,
relox que repetimos
eternamente o mesmo (36)*

*mollo na propia sangue a dura pruma,
rompendo a vena hinchada,
i escribo, escribo [...]*

Eta etsipenak gainditurik:

*Desde entonces busquei as tiniebras
máis negras e fondas,
e busqueinas en vano, que sempre
tras da noite topaba ca aurora...
Só en min mesma buscando no oscuro
i entrando na sombra,
vin a noita que nunca se acaba
na miña alma soia.*

(ikus “Na Catredal”, F.N.,82)

Eta oso bere giro etsian:

*¡Padrón...! ¡Padrón...!
Santa María... Lestrove...
¡Adiós! ¡Adiós!*

*Aquelas risas sin fin,
aquel brincar sin dolor,
aquela louca alegría,
¿por que acabou?*

*Aqueles doces cantares,
aqueles falas de amor,
aqueles noites serenas,
¿por que non son?*

*Aquel vibrar sonoro
das cordas da arpa i os sons
de guitarra malencónica,
¿quen os levou?*

*Todo é silencio mudo,
soidá, delor,
onde outro tempo a dicha
sola reinou...*

Baina emigrazioa gaitzesteko hitzik ez bide du aurkitzen bere hiztegian:

*Este vaise i aquel vaise
e todos, todos se van.
Galicia, sin homes quedas
que te poidan traballar.
Tés, en cambio, orfos e orfas
e campos de soledad,
e nais que non teñen fillos,
e fillos que non tén pais.
E tens corazóns que sufren
longas ausencias mortás,
viudas de vivos e mortos
que ninguén consolará.*

(V, 323-324, Ed. Xerais)

Seme-alabei zer eman ez duten ama bakartuen miseria gorriaz ere kantatzen du gordinki:

*Miña casiña, meu lar,
¡cantas onciñas de ouro me vals!
Vin de Santiago a Padrón
cun chover que era arroiñar, descalciña de pé e perna,
sin comer nin almorzar.*

Eta abar. Normalean lotsaz ezkutatu ohi diren miseriak argiro azaltzen direlarik. Irakurgarri, benetan, gizona gabe gelditutako amen drama sumatzeko.

Eta, amaitzeko, bi hitz *En las orillas del Sar* tragikoaz.

Azaldu dugun bezala, *Cantares gallegos* liburuak berrasi zuen galizierazko literatura, eta etena zegoen kateari katenbegi gotorra erantsi zion. Eta, 17 urte geroago, *Follas novas*-en birtartez, goreneko mailara jaso zuen.

Bi liburu hauek besterik izkiriatu ez balu ere, Rosalíak bazukeen betirako lekune aparta Galizaren kondairan.

Iruditzen zait, halere, *espainieraz* (ez gaztelaniaz; P. Rodríguez-en tesiak egokiro markatutako hizkera geure egiten dugularik) *En las orillas del Sar* poema bilduma dela giza partuari buruz izkiriatu zuen libururik zirrargarriena.

Alde batetik, “saudade”aren azalpenean bere gailurra lortu zuelako: “*En las orillas del Sar* es, en mi opinión, no sólo el libro en que la *saudade* y la angustia existencial adquieren mayores proporciones, sino también una de las mejores expresiones líricas de la época y de todos los tiempos” (ik. *Rosalía de Castro y Emilia Pardo Bazán*, Matilde Albert

Robatto irakaslea, jaiotzaz Mugardoskoa. Ed. do Castro, 1995; 92).

Eta aurreraxeago: “Es el libro más desolado de la obra rosaliana”.

Carvalho Calerok bere bidetik hau dio: “Rosalía é, por excelencia, o poeta da saudade”.

Saudadea zer den

Rosalíaren luman “soidade” ere deitua. Zer da, izan? Jo dezagun hiztegieta.

Vox hiztegiak honela itzultzen du: “nostalgia, añoranza”. Eta “Portugués-Español” *Collins* sailekoak: “lembrança nostálgica”.

Zehazkiroago Piñeiro nire ustez: “la saudade es el sentimiento de la soledad ontológica del hombre”.

Rosalía existentzialista da errotik. Armiñok ongi ulertu duenez: “Antes de Unamuno no encontramos ningún caso en la lírica española que haya formulado, en verso o en prosa, las grandes preguntas con mayor angustia, ni quien haya rozado más de cerca la negación religiosa”.

“Esa duda, ese pensamiento ante la nada que siente, y la fe que no siente, pero que quiere sentir, le convierte a Rosalía en un poeta vivo, con la emoción de la lucha que su pensamiento lleva a los principales problemas del ser” (Mauro Armiño, in *En las orillas del Sar*, Introducción, 61).

Aipatua dugu Unamuno. Nork ez du gogoan haren silogismo faltsua?: *Quiero creer, luego creo*.

Unamunok ez zuen sinesten; eta Rosalíak ere ez.

Ez zuen brauki aitortu nahi. Baina fedea galduta, gizonaren patua *tragikoa* zitzaion, bilbotarrari bezala:

*Desierto el mundo, despoblado el cielo,
enferma el alma y en el polvo hundido
el sacro altar en donde
se exhalaban fervientes mis suspiros,
en mil pedazos roto
mi Dios, cayó al abismo,
y al buscarle anhelante solo encuentro
la soledad inmensa del vacío.*

Eta aurrerago:

*Soy menos que un átomo leve
perdido en el universo;
nada, en fin... y que al cabo en la nada
han de perderse mis restos.*

Ikara iturri bazaio ere, heriotzaren bakardadea nahi du:

*Yo deseo de la muerte
la soledad terrible.*

Zalantza azkengabeek unatzen baitute:

*Cuando del alma atea
en la profunda oscuridad medrosa
brilla un rayo de fe, viene la duda
y sobre él tiende su gigante sombra.*

Ez dago ezer betirakorik, dio Rosalía:

*Nada hay eterno para el hombre, huésped
de un día en este mundo terrenal
en donde nace, vive y al fin muere,
cual todo nace, vive y muere acá. (90)*

Inmanentzia orokor horrek urrutira garamatza; baita Rosalía bera ere. Izaturik, hemen ulertzen dira Murguía-ren moldaketak eta eransketak.

Gizadiaren garrasia ez da sekula zeruraino iristen:

*... al cielo
nunca ha llegado el insolente grito
de un corazón que la vil materia
y del barro de Adán formó sus ídolos (93).*

Baina bihotzak gorako esperantza eroa du:

*Hierve la sangre juvenil: se exalta
lleno de aliento el corazón, y audaz
el loco pensamiento sueña y cree
que el hombre es, cual los dioses, inmortal.
No importa que los sueños son mentira,
ya que al cabo es verdad
que es venturoso el que soñando muere,
infeliz el que vive sin soñar (93)*

“Santa Escolástica” poema ospetsua mamitu zuenean bezala, argi-izpi bat sumatu uste zuen poetak. Giroak ez zuen sinestera bultzatzen:

*¡La gloria es humo! El cielo está tan alto,
y tan bajos nosotros, que la tierra
que nos ha dado volverá a absorbernos.
Afanarse en luchar, cuando es el hombre
mortal ingrato y nula la victoria.
¿Por qué, aunque haya Dios, vence el infierno? (172)*

Etsi nahi ez, eta sinetsi egin behar:

*Y orando y bendiciendo al que es todo hermosura,
se dobló mi rodilla, mi frente se inclinó
ante El, y conturbada exclamé de repente:
¡Hay arte! ¡Hay poesía!... Debe haber cielo. ¡Hay Dios!*

(Orillas, 174)

Baina nekez onar daiteke zentzuzkotzat arima egarriaren leherketa hori.

Armiñok ironiaz dioen bezala: “Ez dago Jainkoaren izatearen alde hau baino aldrebeskeria handiagoz gauzatutako al-darririk”. Bide beretik, Carvalho Calerok ere frogabide “estetiko” horrek ez duela balio objektibo handirik idatzi du.

Eta hauxe baiesten du Rosalíaren “venda” famatuaren funtsak.

Egia latza ezin aurrez aurre jasanik, begiak estaliko dizkion “venda” eskatzen dio zeruari:

*Señor:
vuelve a mis ojos la celeste venda
de la fe bienhechora que ha perdido...*

Ezen:

*yo veía entre nubes de incienso
visiones con alas de oro
que llevaban la venda celeste
de la fe sobre los ojos...
que hay abismos arriba
y en el fondo abismo.*

Baina egin dezagun esandakoen bilduma.

Rosalía Galiza zapalduan bizi zen, eta batzuetan ezin gogorkiago eman zuen bere iritzia:

*Pobre Galicia:
non debes chamarte nunca española,
qu'España de ti s'olvida,
cando eres, ¡ai!, tan hermosa*

(*Cantares gallegos*, 285)

Gazte gaztetandik, beraz, Galiza bihotzean.

Eta helburu laukoitza:

–Mespretxatutako bere herrialdea eta herrikideak goratzea.

–Ahaztutako bere hizkuntza indartzea.

–Galiziar emakumearen patu doilorra ausarki salatzea.

–Existenzialistek handik urte batzuetara Europan, Kierkegaard eta Unamunoren lumaz, modan jarriko zuten filosofia Galiza ahantzian aldarrikatzea.

Apostu gaitza Rosalíarena.

Zinez: **Parabéns a Galiza e a Rosalía!** Zorionak!

AMERIKETAKO GENOZIDIOAZ

1965 eta 1971 urteen artean Bruselan egin nuen lan ingeniari gisa. “Hamon-Sobelco” zeritzon enpresari. Hozketa dorreak eraikitzen genituen.

Agian erreparatuak dituzke irakurleak zentral termikoe-tan, lurruna darielarik, dorre hiperboliko handiak; ehun metro gora askotan. Dorre horien egonkortasun kalkuluak eta planoak egiten nituen nik.

Gure bulegoa Capouillet kalean kokatuta zegoen, Saint Gilles udalerrian (Bruselako seigarrena); Hegoaldean, baina hirigunetik ez urrun. Askotan, eta eguraldi txukuna zegoenean bereziki, bulegotik irten, pittin bat gora egin, eta Porte Louise aldera jotzen nuen. Izen bereko galeria estaliko liburu-dendan egunkariren bat erosten nuen zenbaitetan, edo Gallimard-eneko “Idées” saileko liburukiren bat. Eta Porte de Namur bizi eta koloretzurantz joaten nintzen.

Beste zenbait aldiz, berriz, Toison d’Or hiribidea zeharkatu, Iparralderago segi eta, alimaleko Palais de Justice delakoa ezkerretan utziz, hiri barnerantz abiatzen nintzen.

Bihozkadaz, gaurko neure idatz-kezkak aurreikusi banitu bezala, Petit-Sablongo jardinetan esertzen nintzen, Lamoraal Egmont nederlandar gizaurenari begira.

Hiribide nagusietako orrotik at, baina ez urrun, txoko isil hark xarma berezia zeukan. Eta gertakari latz bat zekarren bisitariaren gogora.

Iturriko oroitarriaren gainean, Herbehereetako (Nederlandeko, alegia) bi konde martirien imajinak ageri dira.

Lamoraal eta Hoorneko aitonsemeen sarraskia oroitarazten du nederlanderaz “Kleine Zavel” deritzoten lorategi xumeak. Bruselako Grand-Place ospetsu eta miresgarrian hilarazi baitzituen Espainia okupatzaileak 1568ko ekainaren 5ean burugabeketa krudelaz.

Bulegokideek berek eman zidaten, ni Bruselara joan eta berehala, eta xehetasun handirik gabe, gure bulegotik hurbil zegoen txokoaren berri. Ni “espainiarra” nintzenez, bereziki zegokidalakoan.

Bruselan abdikatu zuen Karlos V.a enperadoreak Flandria eta Brabanteko koroez 1555eko urriaren 25ean; segida Felipe semeak, bere 28 urteetan, hartu zuelarik.

Hurrengo urtean, 1556ko urtarrilaren 16an preseski, Valladoliden aldarrikatu zuten berori errege “Felipe II.a” deituraz; Karlos V.a aitak, hezueriak jota, erretiratzea erabaki zuelako.

Eta 1557ko otsailaren 3an, ordurako ospetsua zen Yusteko Monastegian sartu zen (Cáceres), 50 zerbitzariz inguratuturik. Denbora gutxiz iraun zion hango egonaldiak; 1558ko irailaren 21ean hil baitzen.

Karlos V.a flandriarra zen sortzez (Gent-ekoa), eta bere jarretan ezagun zuen. Felipe II.ak, aldiz, inolako errestarik gabe hasi zuen bere erregealdia.

Harro-harro errepikatzen dute oraindik espainiar inperio-koiek: “Aquel grandioso imperio en el que nunca se ponía el sol”. Baina zabaltasunez zegokiokeen pluralismotik urrun zegoen arrunt.

Autokrata harroputz gupidagabeak, Kontrarreforma giroaz baliaturik, eta bere burua “Elizaren ezpata” izatera deliberraturik, zapalketa eta odol diktadura hedatu zituen guztietara.

Testuinguru horretan gertatu zen arestian aipatu dugun Lamoraal Egmont eta Hoorneko bi kondeen hilketa.

Espainiako errege berriak konfiantzazko jeneral bat nahi zuen Herbehereetako matxinada separatista gainditzeko.

Eta helburu horretan hautatu zuen buruzagi Fernando Alvarez de Toledo militarra, Albako Duke izenez ezagunago. Eta kanpaina burutzeko 10.000 soldadu jarri zituen haren manupean.

Oraindik ere bizirik dago flandriarren artean beronen oroitzapena; hitz hauek mehatxatzen baitituzte ume irtenak: “Pas op, de hartog van Alva komt, hé”.

Alegia, eta euskaraz: “Habil kontuz; bestela Albako Dukea etorriko duk hire bila”.

Felipe II.arekin, eta XVI. mendearen erditsuan, herbeheretarak sekula pairatu duten arorik latzena hasi zen. Geaffrey Parker britainiar historialariak dioenez, “Albako Dukeak espainiar inperialismoaren Rubikoia gurutzatu zuen”.

1561eko uztailaren 23an bertan, Granvelle Mechelen-go apezpikuburu izendatzean, Orange-Nassau eta Egmont kondeek beren dimisioa eman zuten; eta Inkisizioaren ezdeustea eskatu.

Baina Felipe II.a, “heretikoak” garaitzeko aitzakian, sarraskia prestatzen hasi zen; 1565eko urrian, Segoviatik, berragindu zuenez.

Herbehereetako buruzagiek aurre egitea erabaki zuten honakoan. Eta Bréderodeko konde gaztea, beste 300 nederlander aitonsemerekin batera, Parmako Margarita erregeordearengana joan zen 1566ko apirilaren 5ean, eta eskaera hau egin zion denen izenean:

1. Inkisizioaren ezabaketa;

2. Herbehereetako Estatu Orokorretara deitzea. Alegia, aitonsemeen, elizgizonen eta udalerrien ordezkariak osatutako Batzarra.

Bilera amaituta, oturuntza naroa egin zuten elkarrekin; eta hantxe entzun zen lehenengo aldiz espainiarren kontrako leloa: “Gora itsasoetako erromesa!” (“le gueux” irakurtzen dugu frantsesez).

Adierazgarria zen itsas zarpail haien goiburua: “Liver Turcx den Pausch”, Aita Saindua baino hobe turkiarrak.

Herbeheretarrik radikalenek (Antwerpenen bereziki) eliza katoliko batzuk ostu zituzten 1566ko abuztuan, inkunabile bikainak hondatuz, imajinak erraustuz.

Felipe larderiatsuak fideltasun zin osoa exijitu zuen orduan. Batzuek, Hoorne eta Bréderodeko kondeek barne, ez zuten amore eman, eta ezezkoan kokatu ziren.

Egmontekoak ere, 1557an (Saint Quentin) eta 1558an (Gravelines) guduketan lortutako garaipenen ondoren oso herrikoia, zalantzaldi baten ondoren, ezezkoaren bidea hautatu zuen; eta Ganteko gotorlekuaz jabetu zen.

Baina espainiar armadak garaitu egin zituen matxino nederlandarrak Jemmingengo batailaren ondoan. Eta 1567ko irailaren 9an epaitu egin zituen Egmont eta Hoorne, eta heriotza penaz zigortu.

Bederatzi hilabetez egon ziren preso leku ezkuturen batean, beren kontrako epaia noiz beteko zai.

Lamoraal Egmont (46 urte orduan) eta Hoorne (44) oso ezagunak izaki, sekulako kanpaina antolatu zen beren alde Europan barrena. Eta oso pertsonaia ospetsuek eskatu zuten epaia ez betetzeko.

Baina Albako Dukeak entzungor egin zuen azkeneraino.

Eta 1568ko ekainaren 5ean, burugabeketa hil zituen Bruselako Grand-Placean.

Albaren zanpaketa azkartu egin zen, eta herbeheretarrek hilaraziak izan ziren milaka. “Des milliers furent exécutés”, dio Manu Ruys flandriar kondairalariak (*Les flamands*, 28). Eta “l’exécution de centaines de révoltés et d’hérétiques qui n’ont pas fui à temps”, berriz, Lode Wilsek *Histoire des natios belges* izenekoan, 78).

Ehun milatik gora joan ziren ihesi Holanda eta Zeelanda aldera, eskualde horietaz espainiarrak inoiz jabetu ez zirelako.

Eraso eta kontra-eraso odoltsuak elkarri zerraizkion. 1572ko apirilaren 1ean, adibidez, Itsas *Gueux* multzo bat Brielle, Flessingue, Rotterdam, Schidam eta Goudaz jabetu zen.

Estatu Orokorren bilerakoan, urte bereko uztailaren 15ean, Orange kondea hautatu zuten buruzagi (“stadhouder”). Baina, bestaldetik, Mons eta Valenciennesez nagusitu zen Albako Dukea, beti ere hilketak eta terrorea hedatuz.

Orangeko Willemek bazekien, bestetik, Ameriketako gertakarien berri.

Eta, frantses hugonoteek lagundurik, bere *Apologia* aurkeztu zuenean (1589), mihian bilorik gabe esan zuen “que los españoles habían querido exterminar a los habitantes de los Países Bajos; como habían hecho en las Indias, donde hicieron morir miserablemente a más de 20 millones de personas”.

1576 urtean (azaroaren 5ean), espainiar absolutismoaren aurka elkaturik, “Ganteko Bake-Ituna” sinatu zuten herbeheretarrek.

Baina hamazazpi probintzia nederlandarrek estatu bat osatzeko azken saioa ez zen mamitu.

Erresuma pan-nederlandarraren proiektuak porrot egin zuen. Eta Holanda protestanteak batetik, eta Hegoaldeko nederlandar katolikoek bestetik, bizkar eman zioten elkarri betirako.

Baina Egmontek hilezkortasuna lortu zuen XIX. mendean, bai Goethek (1780) eta bai Beethovenek (1810) *Egmont* gogoratzeko beren obrak burutu zituztenean.

Felipe II.aren inperialismoak, dena dela, ez zuen hala ere bere gailurra iritsi. Gehiago nahi zuen.

Eta 1580an, makina bat aitzakia baliatuz, Portugalgo errege ere aldarrikatu zuen bere burua.

Batasun “iberiko” horrek, dena dela, Espainiak behin eta berriz atzipetua 60 urtez baizik ez zuen iraun.

Eta Felipe II.aren jokamoldeak bazuen maizegi azpimarratzen ez den beste izari bat.

Ikus, adibidez, lehen ere gogoan hartutako Manu Ruy-sen liburua (*Les flamands*, 26): “Batera herbeheretar instituzioen espainiarkuntza kanpaina bat plazaratu zen. Bruselan batik bat, mende eta erdi hartan puntuzkoen hizkuntza frantsesa izan zelarik, presioak hasi ziren (Madriletik), hizkuntza hori erauzi, eta espainiera inposatzeko”.

Bide beretik Lode Wilsek ere azpimarraturik (*Histoire des nations belges*, 71), “Felipe II.a ez zen gauza frantsesez hitz egiteko. Eta are gutxiago nederlandaraz. Erregeak, horretara, espainiar kontseilariekin ez besterekin tratatzen zituen Herbeheretako gorabeherak”.

Protestantismoaren kontrako helburu ofizialez gain, Felipe II.ak jokabide anti-nederlandarrak eta espainolistak erakutsi zituen lotsarik gabe.

Baina guk batez ere **Ameriketako genozidioaz** mintzatu nahi dugu kapitulu honetan.

Eta Menéndez Pidalek esate baterako (eta orobat Menéndez Pelayok), Bartolomé de Las Casas dominikar famatuak bere begiez ikusitako izugarrikeriak salatuz, “enormizaciones” batzuk baizik ez zituela egin idatzi duenez, eta “paranoico” baten aurrean gaudela defenditu, garai bertsuan Espainiak Europan ere egindako sarraskiak gogoratzea oso beharrezko jo dut.

Eta horretara etorri da Herbeheretako gertakarien laburtzapen hau. Bihur gaitezen orain, beraz, geure hari nagusira.

Antzinako amerikarrak

Iazko hasierakoan, TLS (*Times Literary Supplement*) aste-kari ezaguna irakurtzen ari nintzelarik (5366 zb., 2006ko otsailaren 3koa), artikulu mamitsu bat topatu nuen. “Smoke at Sea”, Ronald Wright kazetariak idatzia.

Ancient Americans. New revelations of the Americans before Columbus liburuaren berri ematen zuen. Granta Books-ek argitaratua, London, 2005. 480 orrialde. Autorea: Charles C. Mann.

Ez bat eta ez bi, erostera joan nintzen Antiguara. Hain zuzen, flandriar emakume batek daraman Caxton liburu-dendara, berau ingelesezko liburuetan espezializatuta dagoenez.

Eta lortu nuen aleak idazpuru hau dauka: “Ancient Americans. Rewriting the History of the New World”.

Datuak biltzen hasia nintzen aspaldixkodanik Ameriketan gertatutako genozidioaz; eta Mannen lana ezagutu nahi nuen.

USAn argitaratuz geroztik, arrakasta itzela izan zuen liburuak; eta itzulpenak agertu ziren beste zenbait hizkuntzatan.

Espanierazkoa titulu honekin kaleratu zen: *1491. Una Nueva Historia de las Américas antes de Colón.*

Argia euskal astekaria ibili zen erne hastapenetik beretik.

Eta Pello Zubiriaren lumaz azpimarratu zuen liburuaren garrantzia bere orrialdeetan: “1491: Colon izeneko tsunamien aurreko amerikar haiek” (ikus *Argia*, 2.056 zb., 2006ko urriaren 1, 4-7 or.)

Has gaitezen Erdialdeko Mexikon gertatutako jendaketa-ren galera ikaragarrien grafikotik (130); Berkeleyko Cook eta

Borah ikertzaileek hamarnakako urteetan burututako kalkulu-
luen ondorioz lortua.

1518an 25,2 milioi lagun bizi ziren. Hona hemen populazio horren bilakaera mendebetea barrena:

1518	25.200.000	biztanle
1532	16.800.000	
1545	6.300.000	
1568	2.700.000	
1585	1.900.000	
1595	1.400.000	
1605	1.100.000	
1623	700.000	

Alegia: %97 suntsituak mendebetea.

Urteroko galerak aurkeztea argigarriago gerta daiteke:

1518-1532	600.000	pertsona urtean
1532-1545	808.000	
1545-1568	166.500	
1568-1585	47.060	
1585-1595	50.000	
1595-1605	30.000	
1605-1623	22.200	

Ikus daitekeenez, genozidioa burutu ahala, eta jende kopuru osoa behera joanik, urteko galera zifrak txikitu egiten bide dira.

Garai hartan, ordea, Espainiak eta Portugalek, elkarrekin, ez zuten 5 milioi biztanle baino gehiago.

Zalantzarik gabe, europarrek eramandako eritasunek parte handi bat izan zuten holokausto sinestezin hartan. Indioek ez zeukaten aurka egiteko anti-gorputzik.

Baina deskalabru demografiko alimaleko hura osasun arazo huts gisa aurkeztu nahi izateak ez du funtsik. Indioen ustiaketa gupidagabea ere faktore garrantzitsua izan zelako (“encomienda” esplotazio sistema batez ere, eta plegu bereko aldakiak: “mita” eta beste).

Bartolomé de Las Casasek berak, “encomendero” ere izana lehendabiziko urteetan, ongi zekien zertaz mintzo zen.

Espainiarrek Española uhartean (“kolonizatutako” lehenengoan, gaur Haiti eta Dominikar Errepublika bikotea bihurtua) burututako triskantza ikaragarria gauza frogatua da gaur egun. Eritasunen garrantzia sobera hanpatzea egia latza ezkutatzeo jukutria besterik ez da.

Hasieratik Colonek ezarritako sistemaren arabera, inbadi-tzaile espainiarrek banatu egiten baitzituzten indioak, gaine-rako gauzak bezala; eta hil arterainoko bortxa lanetan ustia-tzen zituzten.

Bartolomé de Las Casas bi hitzetan

Bartolomé de Las Casasek (Casaus ere sinatzen zuen) Se-villan 1474an jaioa, eta Madrilen 1566an hila, dominikarra, eta Chiapasko Apezpiku izana, 14 aldiz gurutzatu zuen Atlantikoa indioen aldeko bere lan nekagaitzean. Gehi beste hamaika bidaia Ameriketako lurraldeen arteko itsasoetan ba-rrena hona eta hara burutuak.

Francisco Casaus aita, lehenago, Colonekin berarekin joan zen Ameriketara beronen bigarren bidaian. Eta, hain zuzen, handik etortzean, ohiko “banaketak” zirela-eta, Bartolomé semeari eman zion oparizat itsasoz handiko indio bat.

Bartolomé Salamancan ari zen orduan ikasten filosofia eta eskubidea.

1502an, 28 urte zituenean, Ameriketarako bidaia egin zuen lehendabiziko aldiz. Bidaia oso txarra tokatu zitzaion, bidenabar, itsas ekaitz bortitz batek bera zeraman ontzi eskasaria hondoratu baitzuen.

Eta zortzi urte eman zituen Españolan, indioekin harreman zuzenean, berauen aurkako borroketan ere parte hartuz.

Besteei bezala berari ere “repartimiento on bat” tokatu zitzaion Xagua herritik hurbil; eta, “encomendero” bihurturik, onartu egin zuen.

1510ean Frai Pedro de Córdoba dominikarra iritsi zen Españolara. Predikatu egin nahi zien indioei; baina, jakina, espainieraz ezin egin. Itzultzaile bat behar zuen, eta Las Casasek eskaini zion bere burua.

Frai Bartolomé orduantsu apeztu berriak barne krisi sakona jasan zuen. Egia garratza erakutsi zion Frai Córdoba. Eta, ordura arte lasai ontzat eman zituen jokabideen bidegabekeria sakona ulerturik, errotik aldatzera deliberatu zen.

1514an 48 urte zituen; eta kolonizatzaileek, are beste ordenatako fraideek –jeronimoek, adibidez– esaten zutenaren kontra sutsu predikatzen hasi zen.

“Espainiarrak indioen arimak salbatzeko joanak zirela” eta antzeko ipuinak baztertuz, garbi mintzatu zen: “La causa porque han muerto y destruído tantas y tales y tan infinito

número de ánimas los cristianos, ha sido solamente por tener su fin último **el oro**, y henchirse **de riquezas** en muy breves días” (*Brevísima relación de la destrucción de las Indias*, 77).

Eta salaketa nekagaitzean ez zuen mihian bilorik izaten: “Todas las conquistas realizadas por los españoles fueron ilegítimas y tiránicas. Fueron los indios quienes tenían motivos para hacer la guerra santa a los invasores... Algunas veces, raras y pocas, mataban los indios algunos cristianos con justa razón y santa justicia”... Aitzitik, “los cristianos una ni ninguna nunca tuvieron justa contra los indios” (37).

Zeren eta “lo que los españoles llaman conquistas, son invasiones violentas de crueles tiranos” (104)... “En todas las tierras que los españoles han entrado, hacen una cruel y señalada matanza, porque tiemblen dellos aquellas ovejas mansas” (106).

Doilorkerien eta basakerien salaketak behin eta berriz errepikatzen dira.

“Hacían apuestas sobre quién de una cuchillada abría el hombre por medio, o le cortaba la cabeza de un piquete, o le descubría las entrañas... Tomaban las criaturas de las tetas de las madres, y daban de cabeza con ellas en las peñas” (80).

“Hacían unas horcas largas que juntasen casi los pies a la tierra, y de trece en trece, a honor y reverencia de nuestro Redemptor y de los doce apóstoles, poniéndoles leña y fuego los quemaban” (80).

“A otros les cortaban las dos manos y dellas llevaban colgando, y decíanles: ‘Andad con cartas’, conviene a saber, lleva las nuevas a las gentes que estaban huídas por los montes” (80).

“Yo vide todas las cosas arriba dichas y muchas otras infinitas” (81).

“Y porque toda la gente que huír podía se encerraba en los montes y subían a las sierras huyendo de hombres tan inhumanos, tan sin piedad y tan feroces bestias, extirpadores y capitales enemigos del linaje humano, enseñaron y amaestraron lebreles, perros brevísimos que en viendo un indio lo hacen pedazos en un credo, y mejor arremetían a él y lo comían que si fuera un puerco. Estos perros hicieron grandes estragos e carnicerías” (81).

“Por un cristiano que los indios matasen, habían los cristianos de matar cien indios... Han sido grandes y señaladas las destrucciones que los españoles han hecho en aquellas gentes, salteándolos y tomándolos los más que podían para vendellos como esclavos” (136).

“Han muerto y despedazado totalmente grandes y diversas naciones, muchas lenguas, que no han dejado persona que las hable, si no son algunos que se habían metido en las cavernas y entrañas de la tierra” (146). Eta salaketa zehaztuz: “Ahorcábanse maridos y mujeres, y consigo ahorcaban los hijos” (101).

“Por manera que tenían los españoles dentro de sus mismas casas todos los indios, señores, viejos, mujeres y niños, y a todos hacen que les sirvan noches y días sin holganza, hasta los niños, cuan presto pueden tenerse en los pies, los ocupan en lo que cada uno pueda hacer y más de lo que puede, y así los han consumido y consumen hoy los pocos que han restado” (101).

“Han fatigado y opreso, y sido causa de su acelerada muerte de muchas gentes de esta provincia [Nikaragua], haciéndoles llevar la tablazón y madera de treinta leguas al puesto para hacer navíos, y enviarlos a buscar miel y cera por los montes, donde los comen los tigres, y han cargado y cargan hoy las mujeres preñadas y paridas como bestias” (101).

Historia de las Indias lan mardula, Las Casas bizi guztian barrena osatuz joana, gaur egun hiru liburu lodikotetan irakur daiteke (Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian begiratu ahal izan dut nik).

Baina sistematik gabe prestatua, balio praktikorik gabea dela esan nezake. Teologi arazoak, mementoko gogoetak eta Ameriketako ikusitako gertaera larrien kondaira nahasian azaltzen direlako.

Hau dela-eta, *Brevísima Relación de la destrucción de las Indias* manifestua da egokiena (ikus Consuelo Varela CSICEko ikertzailearen zuzendaritzapean, Ed. Castilla, 1999, 187 or.).

Ataw Wallparen patu hitza

Espaniaren “kolonizazioa”ren argigarri izan daitekeela-koan, Ataw Wallpa Inkaren hilketaren kasu ezaguna gogoraziko dugu.

Eta informazio iturritzat Charles Mann jarraituko dugu batetik (*Ancient*, 81); baina baita José María González Ochoa zehatza (*Atlas Histórico de la América del Descubrimiento*, 135), eta Henri Fabre CNRSko ikertzailea ere (*Les Incas*, Puf, 106. or. eta hurrengoak).

Wayna Capac XI. Inka 1527an hiltzean, Inken “Pirú”an gertatu ohi zen bezala, seme eta oinordekoen artean piztu zen borroka.

Bi anaiak zuten aukerarik handiena Inka berri bihurtzeko: Washkar zegoen, batetik, Hegoaldeko buruzagigaia, nolazpait esateko; eta Ataw Wallpa, bestetik, Iparraldekoa, Cuzco (Qosqo) hiriburuan.

Tawantisuyu zen munduan egon den inferiorik zabalentako bat. Eskaladun mapa bat arretaz begiratu besterik ez da egin behar.

Jakin du Pizarrok honen berri; eta anaien arteko etsaigoa baliatzea erabaki.

Eta Cajamarcako gudua garaitu ondoren, egoera beneratan bitxia sortu da Tawantisuyun.

Washkar printzea Ataw Wallpa printzearen preso erori da. Baina, batera, Ataw Wallpa printzea Pizarroren gatibu ere bada... Inork ez du oreka hauskor hura asaldatu nahi, ageri denez.

Bere gogoetak Pizarrok egin orduan; eta, lehenengo pausuan, Ataw Wallparen alde jokatzeko erabaki du. Eta batere garbi agertzen ez den sasi-konplot bat dela bide, Ataw Wallparen mesedetan, Washkar hil dute.

1532ko azaroaren 15ean, Ataw Wallpak Pizarro bisitatzea erabaki du era berean; eta hor doa Cajamarcako plazara. Adi jarri ditu bere 32.000 indio jarraitzaileak, hiria inguratuz; eta, mementoa etorrita, Pizarro harrapatzera deliberatua.

Valverde kapellauak kristau fedearen berri eman dio orduan Ataw Wallpari; baita Madrileko agintea zer den, eta Espainiarekin leial jokatzeko komeni zaiola azaldu ere. Ataw

Wallpak orduan Aita Valverdek eskainitako Biblia hartu, eta lurrera bota du.

Hots, oraindik ere zehazki nola gertatu ote zen ulertzen ez dugularik, tiroka hasi dira beren arkabuzez bai oinezkoak eta bai zaldi gainean zetozen espainiarrak (indioek ez zituzten Europako zaldi handiak ezagutzen); eta hezitako zakur gaiztoei jaregin diete indioen kontra.

Eta iskanbila hartan Ataw Wallpa Inkagaia preso altxatu dute espainiarrek.

Ikusten ari zirena ezin sinetsirik, indioak zurtuta paratu, eta ihesari eman diote.

Balantzea, beraz, hau da: Washkar hila, Ataw Wallpa preso, eta indioak izututa, antzinako iragarpen sakratuak begien aurrean obraturik ikusi uste zituztelarik.

Pizarroren urre-nahia ezaguturik, eskaintza bat egin dio Ataw Wallpak bere burua askatzearen truke: bera preso zegoen gelaren tamainako bat urrez, eta beste bi horrelako zilarrez emango zituela.

Pizarrok baietz, ados dela.

Nolako gelak ziren gogoraraziko dugu: 6,70 metro luze eta 5,18 metro zabal. Kalkuluak eginda, eta urrezko gelari dagokionez, 4.800.000 dukat.

1532ko abenduaz geroztik, eta 1533ko maiatzera arte, benetako karabanak hurbildu ziren Qosqotik Cajamarcaraino, opari eramale.

Eta lortu beharreko urreketaren erditsua bildu denean, agindu hau eman du Pizarrok: lingotetan urtu, eta Espainiara

igortzeko, arrakasta hura ezagututa Gortearen oniritzia bil-tzeko.

1533ko abuztuaren 29an, horrelakorik espero ezin zite-keelarik, Pizarrok heriotza-zigorra eman dio Ataw Wallpari epaiketa ilun baten buruan, eta hil egin du garrotez.

Harrapakina banatzerakoan 4.880na peso jaso zuten Cajamarcako 480 inbaditzaileek. Datu honi esker dakikegu Tawantisuyu famatuaren amaia ekarri zuten salbatzaileak zen-bat izan ziren. Bostehun bat espainiar, indioak 60 aldiz gehia-go zirelarik.

Ezin hau azaldu espainiarren teknika-gaintasun osoa kon-tuan hartu gabetanik.

Horrela ehortzi zuten betirako Tawantisuyu zaharra, be-rau “Perú” izendapenaz Espainiaren menpera pasatuz.

“Betirako” idatzi dugu. Baina gure mendera arte idaztea litzateke zuhurrago.

Evo Moralesen kastako amerikar lider berriak gaina har-tzeko bidean ikusten ditugulako.

Urrearen egarriaren emaitzak

Bagenekien, Bartolomé de Las Casasi esker (*Brevísima relación de la destrucción de las Indias*, 95, aipatua dugunez) espainiarrek benetako basakeriak egiten zizkietela indioei urrea eman ziezaieten. Adibidez: “Este gobernador [Pedra-rias Dávila-z ari da oraingoan] y su gente inventó nuevas ma-neras de crueldades y de dar tormento a los indios, porque descubriesen y les diesen oro”.

Eta bi orrialde aurrerago: “Tórnale a dar tormentos, y él, no dando más oro porque no lo tenía, o porque no lo quería dar, tuviéronle de aquella manera hastra que los tuétanos le salieron por las plantas, y así murió. Y déstos fueron infinitas veces las que a señores mataron por sacalles oro” (97).

Jokabidea sistematikoa zen: “Prendieron al señor supremo de toda aquella provincia [Venezuela] sin causa alguna más que por sacalle oro dándole tormentos” (146).

“Así mesmo Alvis, gran señor de los que había en Quito, quemaron los pies y le dieron otros muchos tormentos porque dijese dónde estaba el oro de Atabaliba, del cual tesoro (como pareció) no sabía él nada” (159).

“Así mesmo quemaron en Quito a Cozopanga, gobernador que era de todas las provincias de Quito. El cual, por ciertos requerimientos que le hizo Sebastián de Benalcázar, capitán del gobernador, vino de paz, y porque no dio tanto oro como le pedían, lo quemaron con otros muchos caciques y principales” (159).

Las Casasek ongi zedarritu zuen espainiarren helburua: “Alcanzar su fin último, que es el oro” (164). “Solo los atormentaban porque les diesen más oro y piedras de lo que les daban” (165).

Honen emaitza sinestezina izan zen; José M. González Ochoak emandako estatistiketan garbi agertzen denez (*Atlas histórico de la América del Descubrimiento*, 265).

1503-1660 urteetan (mende eta erdian, beraz), Espainiara bidalitako urre eta zilarraren kopuruak hauek dira:

Urrea	181,3 tona
Zilarra	16.886,8 tona

Horrez gain, jakina, konkistatzaileek Ameriketara bertan erabili zituzten kopuruak falta dira; Ameriketako indioei burututako lapurreta bere neurri osoan agertzeko.

Datuak hamar urteka kontsulta daitezke liburuko tauletan (265). Gailurra 1591-1600 hamarkadan iritsi zen:

Urrea	19,4 tona
Zilarra	2.707,6 tona

Ikerketa hau Harvard University Pressekin argitaratu zuen 1934an: *American treasure and the price revolution in Spain (1501 – 1650)*. Zuz.: Earl Hamilton.

Zertan erabili ziren aberastasun horiek? Mintza bekigu González Ochoa: “Sevillara etorritako urre eta zilar horiek, %60an, Koroak atzerrian zituen gastuak ordaintzeko erabili ziren; baita dirua aurreratzen zuten bankari eta mailegu-emaleekiko zorrak kitatzeko ere”.

Genozidioaz zifra batzuk

González Ochoaren estatistikek berretsi egiten dute osoki hondamendiaren larria: “Los aborígenes antillanos desaparecieron casi completamente en apenas 25 años; es decir, murieron aproximadamente 5 millones de personas, la población de España en aquel momento” (*Atlas*, 307).

Española uharteko genozidioaren kurba ikus daiteke 5. grafikoan (308). 1496ko 3.800.000 biztanleetatik, 100.000ra jaitsi zen 1510erako (%97,4 desagertuak 16 urtean). Eta 1564rako bertakoen arrastorik batere ez zegoen.

Peruko grafikoak ez da askoz hobea (ikus 310). 1530ean 10 milioi indio zeudelarik, 1540 orduko (hamar urtean, beraz),

populazioa 2 milioi besterik ez zen (alegia, 8 milioi desagerturik 10 urtean). Eta nolabait “egonkortu” ondoren, milioi erditso bat 1620an (%95 desagertuak mendebete eskasean).

Dokumentu mordo batek multzo-suizidio eta abortuak aipatzen ditu, protesta etsiaren izari azkarra ezkutatu ezinik utziz.

“Karibeko eskualde batzuetan, azkenik, eta bertako jendaketa ozta-ozta desagertua izanik, Afrikatik eramandako beltzek bete zuten hutsunea” (311).

Hitzez hitz aipatuko ditugu González Ochoaren hitzak: “La crueldad de los trabajos mineros, la dureza de las plantaciones y las numerosas levas para las construcciones civiles, religiosas o privadas, también supusieron un grave costo en vidas insuficientemente valorado” (310).

Horri, etsipen psikologiko ezin larriagoa erantsi behar zaio: “Los indios ven morir a miles de hermanos y compañeros por causas desconocidas (armas de fuego, extrañas enfermedades), sus héroes y dioses los han abandonado y han sido vencidos, unos extraños dominan sus tierras, están obligados a trabajar como esclavos y su forma de vida ha desaparecido. Por eso muchos nativos se dejaron morir” (311).

Zertan gelditzen da Menéndez Pidal nahiz Pelayoren “enormizaciones” direlakoan kritika ustela? Nork ezkutatzen du egia? Las Casasek ala espainiar inperialismoaren defentsa egiten dutenek?

Mexikoren kolonizazioaz berba bi

Espainiarrak, 400 bat bakarrik, Cortésen manupean (zenbait aldiz, baina ez beti, Alvarado lagun izanik) 1519ko abuztuan aztekarren hiriburu Tenochtitlán-erantz abiatu zirenean, Tlaxcala-ko kazikearen laguntzaz gotorturik zihoazen.

Bazeukan Cortések eragile ezkutu hau: aztekarren urre altxor aparta.

Ez gintuzke harritu behar, beraz, inbasioaren ondoren Cortések 30.000 indioen “encomienda” bat bere buruari ematea; baita Chalco, Coyoacán, Otumba eta Tlaxcoco-koak ere. “Encomienda” horiek kolonizatzaileen mini-kolonia partikularrak ziren. Amerikarren ustiaketak benetako jauntxo, are errege ere, egiten baitzituen.

Eta Ameriketako gainerako lekuetan bezala, jokabide berberaz egin zituen urratsak.

Alde batetik, gainditu nahi zituen etsaien arteko herrak eta etsaigoak azkartu zituen. Eta, bestetik, “makila eta pastanaga”ren metodoa erabili: onez onetara hasi, losintxaz eta gezurrez; eta, helburua honela ezin lortzekotan, inolako barne arazorik gabe torturak eta sarraskiak burutu.

Alfer lana litzateke berriro ere jadanik esandakoa xeheki errepikatzea. Hain zuzen ere, horixe da Bartolomé de Las Casasen kondaira ikaragarria pittin bat kamusten duena: hilkintzen eta sarraskien errepikapenak berak nekatu egiten duela irakurlea, eta bilatutako informazio xedea urruntzen.

Hau dela-eta, bi gertakari adierazgarri hautatu ditugu Mexikoren okupazioa zein bidetatik burutu zen azaltzeko: **Cholulako masakrea** eta **Cuauhtémocen** erailketa.

Cholula

Cholula hiria, Pueblatik ez urrun, oso gune garrantzitsua zen espainiarrak hara agertu baino lehenago. Ikertzaileek dioskutenez, ehun bat mila biztanle zituen; eta Quetzalcóatl suge lumadun sakratuaren tenplu nagusia (“Quu” deitua) hantxe zegoen.

Balio horren lekuko nabarmena da bertako piramidea. Tontorreraino daraman eskailerak 120 maila ditu, eta harrigarriro zabala da oinarrian: karratuaren aldeak 439 metro.

Autore guztiak dira ados hau esateko: Ameriketan Espainiak burututako genozidioaren kondairan, Cholulako hilkin-tza agertzen dela gailen.

Gertakariak 1519 urteko udazkenean gauzatu ziren.

Izugarrikerien zerrendaketa zehatza bilatzen duenak aski du Bartolomé de Las Casasen *Brevísima Relación* liburua irakurtzea (106-107 or.)

Kapituluari “De la Nueva España” deritzo. Espainiarrek, beti bertakoen toponimiaren babesle porrokatu, “Nueva España” bataiatu zuten Mexiko; eta aztekar erresumako hiriburua-
ren jatorrizko izena, Tenochtitlán, ezabatu zuten.

Moctezumaren manupeko hirietako bat zen Cholula; eta erlijio eta herri-ikur balioa zuen aztekarren artean.

Las Casasek azaltzen duenez, aztekar apaiz guztiak, apaiz nagusia barne, prozesioan eta umil hurbildu zitzaizkion Cortési, abegi ona egitera, eta beren etxectan ostatatzeko bidea eskaini.

Espainiarren zamak eramatera etorritako 600 indioak, larrugorrian ia-ia, gupidarik gabe zamaturik, beren garraio lana

bukatu orduko, bertako patio nagusira eramán eta denak hil zituzten.

“Acordaron los españoles –dio Las Casasek– de hacer allí una matanza o castigo (como ellos dicen) para poner y sembrar su temor y braveza en todos los rincones de aquellas tierras. Porque siempre fué ésta su determinación en todas las tierras que los españoles han estado; (conviene a saber) hacer una cruel y señalada matanza, porque tiemblen dellos aquellas ovejas mansas” (*Brevísima*, 106).

Handik bizpahiru egunetara posible zen han-hemenka, hildakoen gorpuen artetik, isil-isilik, aztoraturik, odoleztaturik, indio bat edo beste topatzea. “Otoi! Ez gaitzue hil!”, erregutzen zuten gizajoeak. Baina errukirik gabe hil zituzten haiek ere.

Cuaubtémocen hilketa

1495ean jaioa, eta Moctezuma II.aren suhia, bera izan zen aztekarren hamaikagarren eta azken enperadorea.

25 urteetan (1520) enperadore hautaturik, bera gertatu zen Cortésen aurkari.

1521eko maiatzean Tenochtitlán (“México DF” gaur egun) hiriburuari eraso zioten Cortésen osteek (900 bat espainiar, gehi indiar mordo bat).

Moctezumak harrera ona egin zien inbaditzaileei; eta Axayacatl-eko jauregia eskaini zien.

Cortések, orduan, han bertan altxatu zuten preso.

Moctezumak “kolaboratzea” erabaki zuen, eta Espainiako erregearen jauntasuna hartu zuen aintzakotzat. Ohorea

nolazpait salbatzeko, ez zuen kristautzea onartu eta ez zuen inoiz bataioa hartu.

Cuauhtémocek, aldiz, ezezkoaren jarrera hautatu zuen zindo. Guduketa galdu, ordea, eta txalupaz ihes egiten saiatu zen; baina porrot egin zuen, eta Cortésen gatibu geratu (1521-VIII-13).

Onez onetara saiatu zen orduan extremaduratar militarra aztekarren altxorra eskuratzen. Ezin, ordea; non zegoen Cuauhtémocek argitzen ez ziolako.

Eta orduan preso torturatzera pasa zen inbaditzailea. Baina Cuauhtémocek ez zuen txintik atera.

Cortésesek, badaezpada, atxilotua atzean bakarrik utzi nahi ez, eta berarekin eraman zuen Hibuera Esko espedizioan. Eta 1522ko otsailaren 22an urkatu egin zuen. “Konspirazio” bat prestatzen ari zela asmatu zuen, eta kitto.

Cuauhtémoc mexikar gizauren gisa hartua da; eta hiriburuko Reforma Ibilbidean ezarri dute oroitarri bat haren gorazarrez.

Encomienda

Kapitulu hau amaitu baino lehenago, espainiar kolonizazioan gailen azaltzen diren bi instituzioren berri eman behar dugu, gaingiroki bederen: “encomienda” eta “mita”.

“Encomienda” hitza espainieratik dator, eta normalean “repartimiento de indios”en kideztat hartu ohi da. Alegia, eta orain euskaraz ari, “indio banaketa”.

Funtsean honetara baitzectorren: konkistatzaileen zerbitzutan, okupatutako eskualdeetako lurrak eta indioak banatzeko araudia.

Berrehun urtez erabili zen sistema honetan (ofizialki 1720an deuseztatua) banatu egiten ziren inbaditzaileen artean bai lurraldeak, eta bai hauei atxikirik zeuden indioak.

De facto, benetako “taifa” edo feudotan zatitzen zen lursaila; eta bertako indioek bortxazko lanak egin behar zituzten encomenderoaren zerbitzutan; eta hori luzaz. Perún, esate baterako, bat, bi edo hiru belaunetan barrena.

Irakurleak berehala kalkula dezakeenez, sistema honek gutxienez 20, 40, are 60 urtez ere, legeztatzen zuen indio esklabo mordo bat.

“Nueva España”n (Mexicon, alegia) haratago joan ziren: “bost bizieratara” (“hasta cinco vidas”, espainieraz) iristea legeztatu baitzen (1629) encomiendaren iraupena.

Egia da Koroak berehala sumatu zuela sistema honek egundoko gehiegikerietara eraman zezakeela, eta nolabait gertakizunak “mugatzen” saiatu zela.

Baina encomenderoak berak izan ziren arauketa horien guztien etsai porrokatuak. Eta hasieratik beretik.

Famatuena eta adierazgarriena Gonzalo Pizarrok berak (Francisco konkistatzailearen anaiak) antolatu zuen altxaldia.

Ondorioz, benetako gerla zibila sortu zuen Tahuantisuyun (Peruren berezko izenaz baliatzen ari gara); eta matxinatuek Espainiaren ordezkari nagusia (erregeordea zen, eta Blasco Núñez de Vela zeritzon) hil egin zuten.

Encomenderoak bere eskuetan gertatutako indioak “kristautzea” hartzen zuen bere gain, baita hein batez “eskolatzea” ere.

Beldurtu egin zen Karlos V.a enperadorea matxinada larri haren berri izatean. Eta Ameriketara zihozen kolonoak sobera hoztu nahi ez zituenetz gero (urre iturri naroa nola arriskatu?), erdipurdiko neurriekin jo zuen aurrera; eta encomenderoak harrotu egin ziren.

Eta indioek gorriak ikusi zituzten. Ez zeuden encomenderoek markatutako ziztu hartan lanean aritzen batere ohituak, ordutegia jasan ezina zitzaizen (10-12 ordu egunean), eta unaduraz hiltzen ziren gazterik.

Eritasunen eraginez gain, lan-baldintza horiek ondorio demografiko nabarmen eta ezin larriagoak izan zituzten (arestian ikusi dugunez).

Mita

Hitz hau ketxwa da, “mita”ren sistema Peru zaharretik heldu baitzen.

Hamar laguneko lan-multzoak antolatzen ziren (*puric*); eta hauetan zuzendari bat ezartzen (*camayoc*). Langile kopuru handiagoetara pasatzeko, hamarka egiten zen emendaketa: *palacha-curaca*, *curaca* eta *honocuraca*. Talde handienak mila indio izan zitzakeen.

Potosí-ko (gaurko Bolivian) zilar meategiak “mita” sistemaz antolatu ziren. Eta zilarra atera ahala, gero eta barrurago joan behar zuten “mitayo”ek, gero eta lan-baldintza txarragoetan.

Normalean aste osoan lurpean, egun-argia ikusi gabe lan egin behar izaten zuten. Hau dela-eta, hiru astetan bat ematen zuten lanean, eta biga libro.

Sistema honek langile kopuru hauetara eramaten zuen: 4.500 indio behar txanda bakoitzean; bider hiru, 13.500 meatzari Potosiko Cerro Rico meategi ospetsuak aurrera egiteko. 14.000 indio behar praktikan, gaixotzen zirenen hutsuneak bete ahal izateko.

Lan ordutegia hau izaten zen: egunsentitik ordubetera hasi eta ilunabarrera arte, eguerdian ordubeteko atsedena dia emanaz. Ordutegi hau, dena dela, teorikoa zen oso; ugarizaba bakoitzak bere kasa taxutzen baitzuen bere partea.

Etorkizunari antzemanik, ihes egiten zuten indioek, ehunka.

Beste faktore batek zaildu zuen indio meatzarien lana. Zilarra lortzeko teknika aldatu, eta 1570 inguruan zilarbiziaren erabilpena nahitaezko bihurtu zenez geroztik, bilatzaileak osasuna galtzeko arriskua handitu zen arrunt.

Okerrago, jakina, Perúko Huancavelicako zilarbizizko meategietan.

Eta mitarena, hitz batez, zoritxar katea izan zen bere kondairan.

Eta gauzak bide bertsutik joan ziren Mexikon, hemen nagusi zen *cuatequí* izeneko bortxalana lan-mota bera zelako.

González Ochoa kopuru bat ematen ausartu da: “Cerro Rico meategian, hamarretatik zazpi hil ziren” (*Atlas*, 263).

Leku sekretuak debeku, eta beste

Jadanik garbi azaldu dira amerikarrek espainiarrengandik jasan zuten zapalketaren izari batzuk.

Beste bat azpimarratu nahi nuke nik azkenik; besterik ez bada mayatarrei dagokien debekuaren berria zuzenki jaso dudalako.

Joan den 2007ko urtarrileko alean “dossier” bat argitaratu du *Sciences et Avenir* hilabetekariak: “La chute de l’empire Maya et autres apocalypses”, (40-54 orrialdeetan).

Eta horretan ageri da, besteak beste, Palenqueko piramideen multzoa (46-47), baita Tikalgora ere. Piperra ere badu maya hizkeretatik onena (“el más puro” irakurtzen dut neure txostenetan) Valladoliden mintzatzen dela ikasteak... Yucatán-go “Valladolid” hori... mayaeraz “Zaci” da, Mérida “T’ho” den bezalaxe.

Hots, 1976 urte hasieran, Yucatánen izan nintzen Juan Zelaia oñatiarrarekin; eta Uxmal, Chichén Itzá, Kalakmul, Palenque eta abar ezagutu nituen.

Eta egun hauetantxe (2007ko otsailean), lerro hauek idaztera nindoalarik, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean izan dut aukera aste haietan Méridan nik idatzitako artikulua berriz irakurtzeko: “Ulun-ek Mayootik agur” (alegia, “Maya-herritik agur”). *Zeruko Argia*, 682, 1976-IV-4.

“Nola esaten duzue mayaeraz *Viva el País Maya libre?*” galdetu nion nik espainieraz, ingelesez eta mayaeraz aise mintzo zen gidariari. Eta erantzuna ziplo etorri zen: “Nosotros no decimos eso, señor”.

Hots, gu laguntzen gintuen gidari gazte bipil hark gauza aski zekien; eta Guatemalako mayatarrak eta Yucatángoak anaiak direla esan zigun; baita esalditxo bat edo beste Guatemalan eta Yucatánen nola ahoskatzen diren azaldu ere. Haiek ere erdibanaturik!

Eta hantxe, Chichén Itzáko pilota joko bitxia nola egingen den azaltzen zigularik, bota zigun mayatarren *leku sakratu haiek debekatu egin zizkietela espainiarrek 300 urtez*.

Zein hitz hautatu beharko du mayatar herriak, erlijio, hizkuntza eta kulturaren aldeetatik batera erasota, beste maila honetan ezarritako debekua adierazteko?

Nahiz mayatarren jakintza, matematikaren eta astronomiaren alorretan batez ere, txundigarria izan.

Badirudi oraindik entzun daitekela: “Zuek, urrea eman, eta ixo!”.

Amaitu egin behar

Francis Jenningsek 1975ean idatzi zuena geure eginez: “Europarrek ez zuten Ameriketara basamortuik topatu. Alta, egin egin zuten bat”.

Nor mintzo da, ordea, bidezkoak liratekeen kalteordainez?

Pozgarria da gure kazetari ezagun batzuek puntu hauek behin eta berriz gogoraraztea.

Anjel Rekaldek, adibidez, euskaraz, eta ERCren proposamena ezagutaraziz, Rif-eko gerratean berebertarrei jasana-razitako sarraskiak aipatu ditu (*Berría*, 07-II-24). Eta bide bertsutik, espainieraz, Pablo Antoñanak *Gara* egunkarian

(07-III-1) Cuzcoko elizak eta aberastasunak oroitarazi ditu, baita “Santiago Mata Quechuas” ere.

Oliver Wendell Holmes olerkariak, ahalkerik gabe, zakarkiago azaldu zuen indioen arazoa nola konpondu: “ezdeustaketaz” (ingelesezt: “there was one solution: extermination”, Mann, 130).

Nor mintzo da gaur, bide beretik, Kanarietako guancheei buruz? Uhartetako toponimia zaharra berebertarra da erabat (leku izen batzuk elkarren antzekoak bakarrik ez, elkarren errepika hutsa dira). Canarias berebertarrak? Ahantzita daude. Eta puntu hau nik hemen aipatzea bera, kutsu txarreko hautua da.

Uharteak 1495erako menderatuta zeuden, eta “los dos tercios de la población desaparecidos”.

Alcazovasko Tratuak (1479) Espainiaren jaurgoa onartu zuen, eta konkista ez zen batere gozua izan, “purgatu”tako testuen lerro artean suma daitekeenez.

1483an errenditu ziren Gran Canariako guantxeak, Palmakoak 1491n, eta Tenerifekoak 1496an.

Ondoko urteetan espainiar etorkinen olatuek burutu zuten gainerakoa, eta asimilazioa azken muturreraino eramán.

Datak gogoan hartzea oso garrantzitsua da: 1492 (Granada), 1496 (Kanariar uharteak), 1512 (Nafarroa).

Urte loriosak Madrilen.

“V. Centenario” zatatsua. 1992. Oroitzen al da irakurlea?

Inperialismoaz eta zapalketaz... harro!

Bego horretan.

GIZA JATORRIAZ

Nondik etorri da gizakia? Norat ari da gizadia? Zein izan dira gure arbasoak?

Nork ez dizkio bere buruari galdera hauek egin? Edota antzekoak? Nik neuk ere bai. Noski.

Eta neure entsegu bilduma xume honetan zerbait kon-
tatzea iruditu zait bidezko.

Zerbait irakurri dut alor horretan aspaldidanik.

Baina, liburu honetako gainerako ataletan bezala, kanpotik begiratzen duen lekuko jakinmina (baina ezjakina) besterik ez naiz izango.

Nire mezuak lekukotza dakar, eta kezka ere eragingo du, agian. Baina besterik ez.

Sakondu nahi duenak espezialistetara jotzea dauka. Puntu-
tua jartzea dagokit bakarrik. Bertsoa... bestek burutuko.

Izkribu argigarri bila ari nintzelarik, gomendagarri gerta-
tu zaizkidan liburu batzuekin egin dut topo. Denboraren joa-
naz xaharkitutakoak alboan utziko ditut; zeren-eta, ikerkun-
tzak daraman abiada ikusita, azken urteetakoak besterik ez ai-
patzea iruditu baitzait zuhurrena.

Batetik, tinko baina aldika lehor, Barzelonan berriki erosi eta Donostian irakurri dudana *Evolución humana* liburua azpimarratuko nuke (Roger Lewin; Ed. Salvat, 1994).

Bestetik, garai batez arrabots handia atera zuelako, *El mono desnudo* gogoraraziko dut (Desmond Morris, 1968, ed. Plaza y Janés. *The naked ape*, jatorrizko izenburuz).

Hauxe izango da sail honetan aipatuko dudana aspaldikoen. Orain dela hogeitau urte irakurri nuen. Eta britainiar sexologo ospetsuak orduan emandako azalpenek harritu ninduten, eta oraindik ere harritzen. Zehazki sumatu zuelako ondoko urteetan berretsi izan den puntu asko.

Berrikiago, nolabait neure irizpidea eguneratu nahiz, Chris Stringer eta Peter Andrews-en *La Evolución humana* eskuratu dut (ed. Akal, 2005; jatorriz *The complete world of human evolution*). Bilduma bikaina, gomendagarria ene ustez, eta argazkiz eta grafikoz erruz hornitua.

Richard Leakey-ren *Gizateriaren eraketa*, oso interesgarria. Eta hau, zientzi alorreko obra famatu asko bezala, euskaraz irakur daiteke gaur “Gaiak” sailean (21. zb.), Alfontso Martínez Lizarduikoaren argitaletxearen ahalegin nekagaitzari esker.

Bilduma bikaina, era berean, bi liburuki marduletan Yves Coppens eta Pascal Picq-en zuzendaritzapean argitaratutako *Los orígenes de la Humanidad* (ed. Espasa Forum, 2004; 2 liburuki); anitz grafiko, mapa eta argazkiz hornitua.

Oso irakurterraza, era berean, eta foto gutxi baina interesgarri osatua, Frans de Waal holandar-amerikar irakaslearen *Le singe en nous* (ed. Fayard, 2006).

Oso mamitsua orobat, ene ustez, M. Baur eta G. Ziegler-en *La aventura del hombre* (ed. Maeva, 2002; alemanetik espaineratua).

Horiez gain, eta kapitulu honen irakurketan barrena agertuko denez, beste iturri batzuetara ere jo dut, aldizkari eta beste.

Bi hauetara gehienetan. Frantseseko *Sciences et avenir* irakurri ohi dut maiz. Eta espainierazko *Investigación y Ciencia* hilabetekaria jarraitu ohi dut, ahalean. Berau, irakurleak bada-kikeenez, ingelesko *Scientific American* aldizkariaren itzulpena da.

Oro har, amaitzeko, Atapuercako aurkikunde miresgarrien zuzendari, Complutenseko katedradun, eta oso jakintzutzat daukadan Juan Luis Arsuaga irakaslea aukeratu dut gidari. Eta beronen ondoko hiru liburu hauek gomendatzera ausartzen naiz, ene ustez batere arriskurik hartzen ez dularik:

El collar de Neanderthal – ed. Temas de hoy, 1999.

El enigma de la esfinge – ed. Areté, 2001.

La especie elegida (Atapuercako indusketan lankide duen Ignacio Martínez Mendizabalekin batera idatzia) – ed. Temas de hoy, 1998. Zazpi argitaraketa arrapaladan 2001-2004 urte epean.

Primateak eta gu

Hona hemen lehenengo galdera: zein dira primateetatik gizonerako distantziak? Zertan gara gaur, funtsezko galdera honi buruz?

Has gaitezen hastapenetik.

Zoorra joan, eta askok ezagutu dugu zirrara hori: gorila bati aurrez aurre begiratu, hura guri so paratu eta barrenak ukiturik... ia-ia ezin eustea!

Egia da, ondoko lerroetan erakutsiko dugunez, txinpantzea bertago dagoela gugandik gorila baino. Hala ere, txikiagoa delako seguru aski, txinpantzeak ez du inarosten gorilak bezala.

Gauza bera gertatzen zaigu giboia gora eta behera mugitzen harrituta ikustean. Giboiak ez du isatsik, eta oso maiz zutitzen da, eta bi hankaren gainean ibiltzen. Gizontxo bat ematen du; zirkuetan ikus daitezkeen gizonik zaluenak baino chunka aldiz zaluago. Barre egiten dugu zurturik. Baina ez gaitu barruraino inarosten.

Oso nagia dirudien orangutanak ere ez; nahiz hau, arra batez ere, tamainaz ia-ia gorilen izarikoa izan.

ADNaren azterketak gure arteko distantzien indizeak ematen dizkigu.

Ikus, adibidez, Stringer-Andrewsen *Evolución humana* liburuan datozen tasak (24. or.), dauden 30.000 geneetan aurkitu denaren arabera:

Txinpantzearekiko	%1,2
Gorilarekiko	%1,4
Orangutanarekiko	%2,4

Gauza ezaguna denez, txinpantzeak eta gorilak lau eri-hezurren gainean besoak pausatuz ibiltzen dira (“knuckle walking” esaten zaio ingelesez ibilera mota honi), orangutanek horrelakorik egiten ez dutelarik.

Pääbo eta Krings ikertzaileek (ik. Baur, 169), neanderthal baten humero edo beso-hezur baten muinaren ADN mitokondriala aztertuz, hau ondorioztatu dute: neanderthalda-rrengandik bereizten gituena, txinpantzeengandik bereizten gaitunaren erdia dela.

Biologia molekularraren ikerketaz, bestalde, gure leinuen arteko bereizkuneak aztertu, eta epe hauek ondorioztatu dira, arestian emandako sailkapenekiko orpoz orpo:

Gizakia eta txinpantzea 5,5 / 7,7 milioi urte

Alegia, gizakiaren eta txinpantzearen katean, bion arbaso bakarra topatzeko 5,5 / 7,7 milioi urtez egin behar dela atzera.

Bi hauek eta gorilena aurkitzeko 7,7 / 11,0 milioi urte

Hiru hauek eta orangutanarena 12,2 / 17,0 milioi urte

Lau hauek eta giboiaena 16,4 / 23,0 milioi urte

Txinpantzeen multzoari Pan deritzo zientifikoki; eta bi espezie ditu. Txinpantze arruntari, batetik, *Pan troglodytes* esaten zaio; eta bonoboari, bestetik, *Pan paniscus*.

Gauza hauetaz ezikasiak garenok, zenbait film dokumentalen bitartez ikasi dugu bonoboa are argiagoa dela txinpantze arrunta baino. Nahiz honetxan gaitasunak harrigarriak izan. Baina besterik ez genekien.

Bi txinpantzeek garun izari bera dute: 300 cc / 400 cc. Gorilek baino gutxiago, beraz (400 cc / 500 cc) (Pascal Pick, 2004).

Berriki aurkitutako “Floresko Gizona”ren garuna ere, dena dela, maila bertsukoa zen, geroxeago azalduko dugunez.

Hots, Frans de Waal-en liburu mardulean (326 or.) txinpantzearen eta bonoboaren ikerkuntza eta alderaketa sistematikoa aspaldidanikoak direla aurkitzen dugu.

Liburua nobela on bat bezain aise irensten da; eta autoreak tartekatu duen argazki multzoa (lau, txinpantzeenak; eta beste lau, bonoboena) bere buruz mintzo da.

Esaldi honek lotsatzen gaitu: “Bonoboena eta txinpantzeen jokabideak alderatuz burututako lehendabiziko ikerketak Hellabrunn-go zooan egin ziren 1930 hamarkadan. Eta Edouard Tratz eta Hanz Heck ikertzaileek emaitzak 1954an kaleratu zituzten”.

Eta gu berriki arte bi txinpantze mota desberdin daudenik antzeman ere gabe...

Lehenengo begi kolpean bonoboa eta txinpantzea gauza bera dira tamainaz eta itxuraz (hain zuzen ere, “txinpantze iratxo” bataiatutakoa... txinpantze arrunta baino handixea goa da).

“Gerrakoan” (zein gerratez ari den ez badakigu ere), De Waalek kontatzen digunez, bonbardaketa gogorra egon zen zooa zegoen hirian. Izaturik hiru bonoboak hil ziren bihotzekoak jota; txinpantze arruntek, berriz, arazorik gabe gainditu zuten froga hura.

Bi sentiberatasun maila desberdin gelditu ziren agerian.

Hots, naturan ohikoa izaten denaren kontra, bonoboena multzoetan emeek agintzen dute; txinpantze arruntenetan, aldiz, arrek.

Beste desberdintasun adierazgarri bat. Larrutan egiterakoan, txinpantze arruntek zakurren antzera jokatzen dute

(“more canum”). Bonoboek, aldiz, gizakiek bezala (“more hominum”), arrak emearen aurpegiari begiratzen diola.

Baina honetarako gero, irakur beza gehiago jakin nahi duenak De Waalen liburu mamitsua.

Jatorrizko testua, noski, lehentxeago agertu zen: *Our inner ape*, Riverhead Books, New York, 2005. Nik orain arte irakurri ez ditudan beste liburu batzuk ditu frantsesez:

La politique du chimpanzé (O. Jacob, 1995)

Bonobos, le bonheur d'être singe (Fayard, 1999)

De la reconciliation chez les primates (Flammarion, 2002)

Album de famille (Fayard, 2003).

De Waalek Atlantako Emery Unibertsitatean irakasten du eta goreneko primatologotzat hartzen da.

“Lucy” australopitekoa

Atzera goazelarik, arbaso hauek topatzen ditugu ikertzailleen iritziz:

Homo sapiens sapiens, *Homo neanderthalensis*, *Homo heidelbergensis*, *Homo erectus*, *Homo habilis*, eta azkenik *Australopithecus* generokoak.

Oker ez banago, autore guztiek onartzen dute hurrenkerak hau.

Arsuagaren irakaspenak oinarritzat hartzen ditugula, giza katearen lehenengo katenbegia australopiteko bati dagokio. Zeini, ordea? Hauxe da oztoparria.

Zazpi mota baitaude (Anne M. Bacon), eta zazpiak Afrikan.

Donald Johanson ikertzaileak Hadarren (Ipar Etiopian) 1974ko azaroan aurkitutako hezurdura, nahiz ez osoa (47 hezur, zehazki), oso garrantzitsua izan da paleoantropologian; gure arbasotzat agertzen delako hautagai.

3,18 milioi urteko antzinatasunez, “Lucy” izena jarri zitzaion; neska gazte bati dagokiolakoan.

Hain zuzen ere, Baur eta Ziegler-ek *La aventura del hombre* liburu mamitsuan kontatzen dutenez (ikus 48. or.), modan zeuden oso Beatles taldekoak. Eta Johanson ikertzailea eta lankideak aurkikundeak garagardoz ospatzen ari zirelarik, “Lucy in the sky with diamonds” kanta errepikatzen ari ziren; eta aurkitutako hezurreria emakume gazte bati zegokiolakoan, “Lucy” bataiatzea erabaki zuten.

“Neska”. Edo, zehazkiago, “australopiteko emea”.

Ez zen handia (1,06 m); eta aurkitutako eskualdearen ohoretan, *Australopithecus afarensis* bataiatu zuten, Afar-en aurkitu zutelako.

Arrazoi askorengatik (besoak luze, garun txikia, oin-behatzak mako-aireak, oraingo txinpantzeenen antzera) oraindik halako tximu airea zuen izaki hark.

Baina bi hankaren gainean ibiltzen zen. Hori ondorioztatu zuten ikertzaileek.

Alegia, ez eri-hezurren gainean, “knuckle walking” eginez (txinpantzeak eta gorilak bezala); Arsuagaren hitzak geure eginez, “gu bezala” baizik.

Egiaztatu egin behar, ordea.

Hots, handik lau urtera (1978) Ipar Tanzanian, Laetolin aurkitu zituen Mary Leakeyren ikertaldeak, mirariz bezala, eta

ez Afar-tik guztiz urrun (1.500 kilometro ez baitira gehiegi Afrikako izarien munduan), oin aztarna batzuk.

Lehenagotik ere aurkituak zituzten basahuntz oinatzak, baita elefanteenak ere, jirafenak, eta abar. “Milaka”, esan zuten. Baina oraingoan 69 gizaki-aztarna atxeman zituzten, 27 metro luzetan barrena.

Zaharxeago Lucy bera baino (3,6 milioi urtekoak), baina animalia berarenak. Arrasto haiek bi edo hiru australopitekoko utzitakoak ziren. Bikote bat aurretik joan balitz bezala, ondotik hirugarren bat zerraikielarik.

Hots, pauso marka horietan ez zegoen atzamar edo esku aztarrenik bat ere.

Hastapenetako susmoak berretsita gelditu ziren: Lucy (alegia, *Australopithecus afarensis* bataiatutako izakia) bi hankaren gainean zebilen.

Hori bakarrik ez. Utzitako oinatzetan ikus daitekeenez, behatz lodia ez dago at, txinpantzearena bezala, gainerako lau behatzekiko paralelo baizik.

Australopitekoak gure itxurako oina zeukan.

Eta, hau ere ziur, bi hankaren gainean ibiltzen zen.

Baina Lucy hura, ikertzaile guztiek (Arsuagak barne) adierazi dutenez, ez bide da “gure” australopitekoa. Arrazoi tekniko mordo batengatik, gizakira eraman duen australopitekoa ez bide da Lucyren leinukoa. *Australopithecus afarensis* izenekoa ez da gure arbaso zuzena.

Aspaldiko eboluzioaren geldotasunaz bi hitz

Orain ohar orokor bat egin nahi nuke.

Gaur egun ezagutzen dugun bilakaera isuriaren ziztua, aspaldiko denboretan ez zegoen.

Oso adierazgarria da, esate baterako, paleoantropologia-ren grafikoetan, denboraren eskala logaritmikoa izatea. Honak disimulatu egiten du aspaldiko denboretan egonkortasun harrigarria eta sinestezina zela nagusi.

Eboluzioa bazegoen, bai; baina arrunt geldoa.

Australopitekoen harri-tresnetan ageri da geldotasun hori (oso aspaldiko australopitekoek ez bide zuten harriz tresnarik batera moldatzen, nahiz eta agian harri koskorak hautatu eta erabili, gaur egun txinpantzeek egiten duten bezala).

Harri-tresna horiek ia-ia ezelako aldakuntzarik gabe errepikatu ziren mendeetan barrena.

“Esku aizkora” deitzen direnak, esate baterako, beti berak egon ziren milioika urtetan; Stringer-Andrewsek azpimarratzen dutenez (225).

Jokabide ultra-kontserbadore hori bera aurkitzen dugu Neanderthaletan; ondoko lerroetan azalduko denez.

Cromagnon gizona agertu arte, berrikuntzari buruz uzkur agertzen dira aurre-gizakiak oro. Atzera joanago eta nabarmenago. Gizarte haiek ez zuten deusetarako aldatu nahi.

Eboluzioa egon zen antroipoide haietan aspaldiko mendeetan, natura guztian bezalaxe, bai, baina aldaketaren abiada harritzeko moduko geldoa zen (eta orain, aldiz, inguramendu teknikoaren aldetik batez ere, harritzeko moduko azkarra).

Eta Astronomian aurkitzen dugun mende kopuru gaitzak topatzen ditugu giza bilakabidean historiaurrean.

Oraingo ziztua fenomeno berria da; eta nekez suma daiteke ohiko geldotasunarekin nola uztartuko den.

Neanderthal vs. Cromagnon

1856an Alemanian, Düsseldorf-etik hurbil, Neander ibarrean (“Neander Thal”, orduko grafian), Feldhofer-ko hartzu-loan, sekulako oihartzuna iritsiko zuen gizakume arkaiko baten hezurdura aurkitu zuten.

“Beste” gizaki baten aurrean geundela sumatu zuten iker-tzaileek. Baina, ideia hau orduko arrunt teoria nagusien kontrakoa zelako, ezikusia egin zitzaion luzaz aurkikundeari.

Ez zen lehenengo aldia.

1848an, Gibraltarko Forbe’s Quarry harrobian, itxura bereko kaskezur bat aurkitu zen. Baina, 1864an Busk britainiar geologoak neanderthaldartzat jo zuen arte, ahaztuta egon zen erabat.

1886an, azkenik, Belgikan (Spy) beste bi hezurdura aurkitu zituzten, harri-tresna paleolitikoekin garbiki lotuak. Bi hauek ere neanderthaldarrak ziren nabarmenki.

Mota bereko aurkikundeak ugaltu ziren (La Chapelle aux Saints, La Ferrassie, Moustier, La Quinne). Gero Shari-dango kobazuloetan aurkitu ziren bederatzia daude (Irakeko Kurdistanen). Eta Europan barrena, are Asiako eskualde batzuetan ere, hedatutako gizakumearen garrantzia gutxies-tea zentzugabekieriatzat hartu zen.

Geroztik, gizonaren jatorria aztertzen hasi eta ezinbestean topatzen da Neanderthal gizona, *Homo neanderthalensis*.

Hauxe da lehenengo talka: ez gaudela bakarrik ikastea.

Neanderthal giza mota, gizatar *espezia* zehazkiago, Europan isolamendu osoan ehun milaka urtetan barrena sortua eta nagusitutakoa (200.000 / 30.000 gutxi gorabehera), “la especie de los auténticos europeos” Arsuagaren hitz berak erabiltzekotan, eta, nahiz nabarmenki gizakumea izan, ez da hala ere *gure* arbaso zuzena.

Hiru aldi berezi ohi dira:

Neanderthal aurrea : 400.000 / 200.000 urteak

Neanderthal arkaikoa: 200.000 / 90.000

Neanderthal klasikoa: 90.000 / 30.000

Beste gizaki desberdin bat? Hotzikarak hartzen gaitu; gure Antropologia guztia dardaratzen ari dela ulertzen dugulako.

Claudine Cohen paleontologoaren *Un néandertalien dans le métro* (éd. Seuil) liburu berrian (alor bereko beste bosten ondoren prestatua), Neanderthal gizonaren kondaira egiten duela irakurri dugu *Le Monde*-n (2007-VI-4). Lerro hauek idazten ditudalarik ezin dezaket xehetasunik erants, ez baitut liburua oraingoz eskuetan eduki, baina berdintasun/desberdintasun bikotearen izuez eta erakarpenez egiten dituen gogoetak oso mamitsuak iruditu zaizkit.

Gure arbaso zuzenak, orain dakigunez, Afrikatik etorri ziren Europara. Eta bertako europarrak, neanderthaldarrak, ordezkatu egin zituzten. Hona hemen Baur-Ziegler-ek diotena

(170): “El neanderthal no ha contribuido a la dotación genética del europeo actual”.

Eta Arsuagak, bide beretik: “Zalantza guztietatik at dago europar pleistozenoan sortutako gizaki modernoak, *cromagnon* izenekoak, ez datozela europar neanderthaletatik, baizik eta kanpotik” (*El enigma de la esfinge*, 311). Edota beste esaldi irmo honetan: “Un origen europeo de los humanos modernos puede desecharse por completo” (270).

Galdera, beraz, hau da: noiz iritsi ziren Cromagnondarrak Afrikatik? Eta erantzuna zehatza da: “Orain dela 35.000 urte; 40.000 menturaz” (311).

Baina neanderthaldarrak ez bide ziren Europan eta Ipar Kaukasoan orain dela 30.000 urte arte osotara suntsitu.

Hortaz, gauza segurua da gure arbaso zuzenak (cromagnondarrak, alegia) eta neanderthaldarrak **elkarren ondoan** bizi izan zirela europar lurraldeetan **hamar bat mila urtez**. Gutxienez.

“Gauza ziurra da –dio Arsuagak– oraindik ere Hego Europan azkeneko neanderthaldarrak bizi zirenean, gizaki modernoak hasiak zirela hartzuloetan errinozerontek, lehoiak eta bisontek pintatzen”.

Zer dakigu aldibereko koexistentzia bitxi horretaz?

Gauza handirik ez. Zerbait bai, halere.

Seguru aski, halako uharte motabakarretan egon ziren zaituta eskualdeka.

Nolako harremana izan zuten? Gaurkoz ezin erantzun.

Elkar-ondorio genetikorik utzi ez zutenez, autorerik gehienek uste dute ez zirela “nahasi”. Eta partikulazki ez zela se-

xu-hibridaziorik egon. Edota, bestela, sexu harremanak izan arren, elkarrengandik ez zutela umerik izan.

Europalde zati zabal batean glaziaziorik gogorrenen garaietan iraun zuen neanderthaldar gizonak. Eta hortaz, soinez, gu baino sendoagoa zen.

Oso bizimodu gogorra zeramatela ageri da hezurduren azterketaz. Aurkitzen diren hezurdurak askotan puskatuta daude, borroka gupidagabeetan zauriturik gertatu balira bezala. Piztiekiko liskarretan beharbada; edota beren arteko inkontruetan.

Liburu askotan ikus daiteke (Arsuagarenetan ere bai), zientifikoki marrazturik, neanderthalen itxura, ehiza-haga luzeak eta guzti (ik. *La especie elegida*, 252).

Neanderthaldar gizona ehiztaria zelako.

Bilketa lanak egiteaz gain (are itsas muskuiluena ere), harrizko tresnak prestatzen bazekien.

Eta beste bi gaitasun garrantzitsu zituen: alde batetik sua izekitzen eta baliatzen zekien, eta, bestetik, hilak lurperatu egiten zituen (240). Eta bi jokabide horietan neanderthalدارrak eta gu gara bakarrak.

200.000 urtez geroztik erabiltzen zuten sua. Bizi ziren kobazuloak epeltzeko pizten bide zuten (esana dugunez, neanderthalدارrek hozte apartak jasan zituzten); baina baita janarien prestatetan ere, dirudienez.

Hildakoen gorpuak kobazuloetako sarreran ehorzten zizuten. Areago: Shanidarren (Irak) aurkitu ziren hezurduretako batean, polena atzeman zen erruz; gorpuekin batera loreak ere lurperatu balira bezala.

Aurkikunde hau Arlette Leroi-Gourhan palinologoak egin zuen 1968an; eta handik hiru urtera Soleck-ek *The flower people* liburuan ehorzketa-erritu baten aurrean gaudela adierazi zuen.

Hematite gorria erabiltzen zuten beren burua eta tresnak apaintzeko, orain arte zenbait tribu modernotan egin izan den bezala.

Neanderthaldarren burumuina, bestalde (1.500 cc), gurea baino handiagoa zen (1.350 cc batez beste).

“Los neanderthales y nosotros –dio Arsuagak– somos las dos formas humanas más encefalizadas de la historia” (253).

Suntsitu egin ziren hala ere, orain dela 25.000 urte gehienez.

Gibraltarko neanderthaldarrak, adibidez, luzaz egon ziren harkaitz famatuan, Iberian barrena cromagnondarrak hedatzen hasiak zirelarik.

Zenbait aldetatik garbi dago neanderthaldarrak eta cromagnondarrok oso gizaki antzekoak garela.

Baina desberdintasunak ere, Arsuagaren ustez, handiagoak dira gurekiko, gaurko arrazen artean aurki ditzakegun guztiak baino. Eta alderaketa horretan eskimalak ditu gogon, hotentoteak eta australiarrak (272).

Bi espezie adimendunen artean, informazioa truka daiteke, baita teknikak ere, nahiz generik ez trukatu (274).

Cromagnondarrek halako genozidio eskerga eta iraunkor batez suntsitu zituztela pentsatu dutenak ez dira urri. Biafrakoa, Ameriketako indioen sarraskia eta nazien “azken solu-

zioa” ezaguturik, aipatutako hipotesia ez bailitzateke guztiz harrigarri gertatuko.

Gehienek, alabaina, besterik uste dute.

Horrelako hilkintza masiboak gertatu izana ukatu gabe, gehiago dira cromagnondarren gaintasuna beste zerbaitetan bilatu nahiago dutenak.

Eta, oso bereziki, mintzamenaren alorrean egon bide daiteke gakoa.

“Para un buen número de autores –irakurtzen dugu Arsuagarenean– la ausencia de un auténtico lenguaje en los neanderthales fue una de las principales causas, y puede ser tal vez la principal, de la sustitución de los neanderthales por los humanos modernos... Sencillamente el rudimentario lenguaje de los neanderthales limitaba su complejidad social, restringiendo su capacidad de transmitir información esencial para explotar los recursos del medio” (317).

Neanderthaldarrak, esana dugunez, sendoago ziren cromagnondarrak baino. Suntsiketaren gakoa ez datza, beraz, indar fisikoaren mailan. Hain zuzen ere, badirudi neanderthaldarra ez zela malgua. Eta bere teknikak aldatu gabe suntsitu zela.

Konrad Lorenzek egokiro azaldu zuenez, animaliek izari bakarreko interjekzioak jaurtitzen dituzte; gizakumeok, al-diz, bi izaritako hitzak ahoskatzen ditugu. Mintzatzen haste-ko, *adierazle* / *adierazi* bikotean topatzen dugu bikoizketara-ko ahalmena.

Badirudi desberdintasun honen eta hartzuloetako pintu-
ren artean, badagoela halako homologia bat. Goi Paleolito-
an topatzen dugun arte-lorakuntza harrigarrian (Lascaux,

15.000 urte; Altamira, 14.000; Ekain, 13.000) halako pen-
tsaera gaitasun berri baten sorrera sumatzen da.

Ez da seguru aski etendura bat-batekorik bilatu behar.
Badirudi koilareak eta zintzilarioak erabiltzen zituztela ne-
anderthaldarrek (are aspaldiko garaietan ere). Eta Eslovenia-
ko aurkikuntza (1995) bide beretik etorri da. Txistu bat aur-
kitu baitzen neanderthaldar zulo batean (adina: 67.000 /
43.000 urte) (ik. Baur-Ziegler, 164).

Prozesu luze bat izan daiteke giltzarria.

Anatomiaren aldetik, bestalde, baita garunaren tamainari
begiratzen bazaio ere, bazuten neanderthaldarrek mintza-
tzen hasteko oinarri fisiologikoa (J.L. Ham, D. Frayen,
Arensburg). Hortaz?

Hitz batez, eta amaitzeko, badirudi neanderthaldarrek
eta guk, atzerago begiratu, oso aspaldian izan dugula aita-
so komun bat: *Homo heidelbergensis* bataiatutakoa, esate ba-
terako. Baina etendurarik gabeko sekuentziarik ez dagoela
Neanderthal eta Cromagnonen artean.

Neanderthal gizona gure herengusu edo laurengusua
dela esan daiteke, trebeska; baina ez gure guraso edo aitona,
zut joanda.

Gizaki moten bakuntza

Orain dela 50.000 urte, 3 gizaki zeuden munduan:

1. Europan, Ekialde Hurbilean eta Erdialdeko Asian,
Homo neanderthalis zegoen.
2. Javan (Indonesia) azkeneko *Homo erectus* bizi zen.

3. Ekialdeko Afrikan, gure arbasoak bizi ziren: *Homo sapiens sapiens*.

Eta Arsuaga eta Ian Tattersall batera datoz puntu honetan: *hiru* bilakabide nagusi egon dira, elkarrekiko loturarik gabe.

Handik 300 mendera, aldiz, eta orain dela 20.000 urte, hortaz, Cromagnondarrak besterik ez zegoen. Europako eta Javako gizajendea ordezkatuta zeuden.

Aurrerago ikusiko dugu, nolana ere, orain dela oso gutxi (2004) Indonesian, Flores uhartean, *Homo floresiensis* giza espezia azaldu zela.

Seguru asko adar franko zeukan eboluzioaren zuhaitzak, eta adar guztiak galdu ditu ia-ia mendeetan barrena. Astronomian topatzen ditugun supernoven leherketan ikus daitekeenaren oso antzera.

Homo floresiensis

Orain dela hiru urte, 2004ko urriaren 28an preseskiago, albiste garrantzitsu bat argitaratu zuen prentsak: Indonesiako Flores uhartean (Java eta Sumbawaren ekialdean eta Timorren mendebaldean) beste giza espezie bat aurkitu zela.

Albisteak *Nature* aldizkari ospetsuak kaleratutako informazioa zekarren oinarri.

Gara egunkariak egun hartantxe (5. or.) izenburu hau zekarren: “Fósiles encontrados en Indonesia revelan una nueva especie humana”.

Eta artikulua mamitsu batez borobiltzen zuen iragarpena.

Ondorio nagusitzat hau azaltzen zuen: *Homo erectus*-etik etorrira, eta isolamenduaren eraginez, giza espezie berria sortua zela Flores uhartean, eta gizaki berriari *Homo floresiensis* izena eman zaiola.

Atapuercako indusketako buruordearengana jo, eta Eudald Carbonellek adierazpen batzuk egin zituen, funtsezko ideia hau azpimarratuz: “Orain dela 28.000 urte neanderthaldarrak desagertu zirenean, *Homo sapiens*-a ez zegoen bakarrik. Hain zuzen, beste gizakume batzuekin batera bizitzen gure planetan”.

Oso-osorik aurkitutako kaskezur txikia, emakume bate-na segururu aski, Ling Buako hartzuloan agertu zen.

Eta geroztik halako jarraipena egon da euskal prentsan ere gaur arte.

Berria-k, adibidez, Arantxa Iraolaren lumaz, eta gizakume bitxiaren irudi galant batez, ikerkuntzaren berri eman du aurten (2007ko urtarrilaren 31, 26. or.): “*Homo floresiensis* giza espezie berezia izan zela frogatu dute –zioen–. Espezie haren izaera kolokan jartzen dutenen teoriak atzera bota ditu ikerketak”.

Marrazkian ageri den gizakumeak makila bat darama ezkerreko besoan eta arratoi erraldoi bat besaburutik zintzilik: *Papagomys armandvillei* bat zehazki, oraindik ere bizirik aurkigarri Flores uhartean, baina, gaurko gizonak etengabe ehizaturik, azkar suntsitzekotan dagoena.

Donostian bertan urriaren 28 hartantxe berria azaltzen zuen beste egunkariren baten bila hurbildu nintzen betiko kioskoetara, eta data bereko *Figaro* bat topatu nuen.

Bi kaskezur erakusten zituen elkarren parean argazki eder batean: *Homo sapiens*-arena eta *Homo floresiensis*-arena. Eta idazpuru adierazgarri hau: “La découverte étonnante en Indonésie d’un nouvel hominidé au petit cerveau. Il y a 18.000 ans, *Homo erectus* a coexisté avec l’homme moderne”.

Isabelle Brissonnek sinatzen zuen artikulua CNRSk prestatutako eskema zehatz bat erantsi zuen, aurkikundearen ondorioz berresten ziren lau espezieak kokatuz: *Homo floresiensis* delakoa, Indonesian; *Homo erectus*, Txinan; *Homo sapiens*, Afrikan; eta *Homo neanderthalis*, Europan.

“Le fossile s’ajoute à l’arbre généalogique de l’humain, qui a divergé du lignage du chimpanzé il y a environ 7 millions d’années”.

Chris Stringer eta Peter Andrews liburuan (174-175 or.) Floresko indusketa zuzentzen duten bi ikertzaileen argazkiak ageri dira: R. P. Soejono indonesiarra eta Mike Morwood australiarra; baita beste bat Ling Bua-ko hartzulo esker gako indusketena (uharteko mendebaldean), eta prentsak eskainitako gizakiaren irudia ere ikus daiteke liburuan (175).

Tamaina oso txikikoa da (1,06 metro luze), buru txikerrekoa (380 cc). Egia da Lucy australopitekoa ere oso txikia zela. Baina Lucy orain dela 3,18 milioi urte bizi izan zen Etiopian; eta ez orain dela 18.000 urte Floresko gizakia bezala.

Darwinen teoria berriro berretsi da: isolamenduaren ondorioz espezie zaharrak, baita giza leinuetan ere, espezie desberdin bat sortzen du.

Animalia handietan, espezie berria jatorrizkoa baino txikiagoa izaten da (gizona kasu). Elefanteak ere “Stegodon” izeneko elefante ñimiñoa eman du.

Baina, beste muturrean, animalia txikiek handiagoak sortzen dituzte: irudian erakutsi duten arratoitzarra, adibidez; edo Komodo izeneko herensugea.

Morwood ikertzaileak berak, bidenabar, oraingo indusketan ari, beste ikerlan bat argitaratu zuen 1998an.

Uharte berean, erdialdeko Soa zelaian, orain dela 800.000 urte prestatutako harri-tresna trauskilen berri eman zuen.

Hitz batez, portugesez 1667an aurkitutako Flores uhartea modan jarri da. 14.250 km karratu azaleraz (400 km luze, 30-40 km zabal batez beste), 1.250.000 biztanle ditu gaur.

Beste xehetasun azpimarragarri bat: aspaldidanik diharduten sumendi beldurgarriak dauzka. Hain zuzen: orain dela 12.000 urte sekulako erupzioa izan zen uhartean, eta honek suntsitu bide zuen Floresko gizona.

Bazterrak astindu zituen aurkikundeak; eta espainierazko *Investigación y Ciencia* aldizkariak, Kate Wong-en lumaz, lan luze bat argitaratu zuen 2005eko apirilean (22-31 orrialdeetan), xehetasun gehiago erantsiz.

Oso harrigarria da, esate baterako, malaisiar folklorean, basoan antzina bizi izan omen zen gizaki txiki baten oihartzunak aurkitzea. Oraindik ere orangutanak eta giboiak Indonesian primate ezagunak izanik, urrutirago jo gabe, aiputan daudenak berberak izan daitezkeela uste dutenak ez dira falta. Noski. Baina oraingo honetan Floresko gizakia tartean ote da goen pentsatzen dutenak ere ez dira urri.

Badirudi Floresko gizonak “Stegodon” elefante iratxoa harrapatzen zuela ehizan. “Txikia”, baina tona erdikoa. Hau lortzeko, ordea, Wollongong-eko Unibertsitateko R. Roberts irakasleak uste du, ezinbesteko koordinazioa dela-eta, gizaki

hark mintzabidea bazuela. Eta, utzitako aztarrenetan antze-
man daitekeenez, sua erabiltzen zuen bere sukaldaritzan.

Floresko gizakia, “hobbit” bataiatua, hitz batez, oso argia
zen; nahiz buru txikikoa izan.

Homo floresiensis-aren gazezurraren urria azpimarratzen
da. Baina ikertzaile batzuen ustez garrantzitsuagoa da garu-
naren barne egitura, tamaina baino. Kate Wongek bere arti-
kulan gogorarazten duenez, Anatole France idazle ospetsua-
ren gazezurrak (Nobel Saria 1921ean irabazia) 1.000 bat zen-
timetro kubiko baino ez zeukan.

Geroztik, nolana ere, Floresko beste bost gizabanako-
ren hezurreria agertu da Lian Buako kobazuloan. Eta bostok
dira Floresiensis.

Horrez gain, lehendabiziko gizakiaren besoak agertu dira,
ikertzeko materiala harrigarriro osatuz.

Gauden beha!

Aurkitutako hezurreria guztiak ezaugarri berak edo ber-
tsuak baldin baditu, gorputzen txikitasuna banako bakar ba-
ten bereizkuntza edo gaixotasuna denik ezingo da esan.

Oxfordeko Unibertsitatean aurkitutako giza aztarnen
ADNa ikertzen ari dira. Floresen jasaten diren tenperaturak
eta umeltasun graduak zailago egiten dute ikerketa horien
arrakasta, baina Floresko gizonaz arduratzen den ikertzaile
mordoak oso gogotsu jarraitzen ditu lanen gorabeherak.

Eta frantsesezko munduan ere nornahik froga dezakee-
nez, kezka bera dago (ikus *Sciences et Avenir*, 2006ko apiri-
lekoa alean, 65-67 or.). “Badakigu gaur –irakurtzen dugu–
aspaldian oso adartsua izan zen giza multzoaren zuhaitza,
bakandu egin dela. Gaur bakarrik munduan, izan ditugula

bizikide gutxienez Neanderthal eta Floresko gizakidea. Orain dela 95.000 eta 13.000 urteetan gure leinua ez zen munduan bakarra”.

Sumendiko erupzioak Flores uharteko gizateria deuseztatu bazuen ere, baliteke Indonesiako beste uharteren batean (Lombok, Sumbawa) gizaki haren leinuak gugandik hurbilago arte iraun izana.

Hemen ere, Europan neanderthaldarrekin gertatu zen bezalaxe, bi giza espezie elkarren ondoan 15.000 urtez egon izan gara.

Eta Europan bezalaxe, *giza mota bakarra ez garela* jakiteak, txorabiatu egiten gaitu, sakonki astindu.

Garbiago agertzen baita eboluzioaren helburua ez garela gu.

Txiripa hutsez helduak garela geure honetara.

ANTROPOKERIAK

Orain dela zenbait urte gertatu zitzaidan. Hamar, hamabost agian. Nik dakita?

Baina dataren zehatzak ez dio axolarik.

Afrikako eskualderen bati buruzko dokumental mamitsua ari ziren telebistaz ematen.

Halako batez, gizaseme beltz mordo bat agertu da bertara, biluzik. Tutu luze-luzeak jotzen zituzten, eta jiraka neka-gaitz ari.

“Debruak uxatzen ari dira”, azaldu du filmaren gidariak.

Luzaz ari izan dira horretan, jiraka eta jiraka.

Txundituta begira gu ikusleok, geure etxeetan txukun-txukun.

Eta nik neure artean hau pentsatu dut: “Posible dea gizon heldu horiek beren ekitaldiaren balioan sinestea”.

Erritu harrigarri haren eraginkortasunean sinetsi ahal izateko, nabarmenki, logikatik at kokatu beharra zegoela neritzon (eta deritzot gaur ere).

Baina gu gogoeta horiek harroxko burutzen ari ginelarik, ez bide geunden beltz haiengandik uste bezain urruti.

Euskal Herrian bertan nagusi eta ohiko ditugun zenbait ospaketaz, zeharo beste kultura mundu batetik inor hurbil balekigu, baluke esatekorik asko.

Geuk ere bagenuke zerbait, egia esan.

Baina etxe barrutik egiteko adina adore eta bertute izatea, zail gertatzen da. Kanpotik datozenek errazago dute.

Kristau fedetik at bizi den begirale bati, adibidez, zer irudi dakioke, bestetara gabe, gure meza arrunta bera?

Gu ohituta gaude.

Baina otamen borobilean Kristoren gorputza, eta kalizan Kristoren odola, zein bere aldetik, benetan daudela sinesteko, umilki aitor dezagun, fedeak eskatzen duena ez da txantxa.

Pertsona sinestun orok merezi du errespetua, ordea, sinesgogorregandik. Kristauek ere bai.

Baina baita tutu luzeetako afrikar haiek ere.

Pogrom-ak, jihad-ak eta guruzadak oro (1936koa barne) behar dira errotik gaitzetsi. Tolerantzia da gizartean bakea eraikitzeko ezinbestezko lehen urratsa.

Eta, hau esanik, bihur gaitezen geure harira, eta goazen gurean sakratutzat hartzen diren izkribu batzuetara.

Banaka batzuk hautatuko ditut.

Eta ongi dakit neure teologo herri honetan, gai labain hauek ukitzea arrisku gaitza dela. Baina irakurleak gauza bat atxiki behar du gogoan: saiakera liburu hau ez dela ezertan ere “azkeneko hitza” edo pentsamendu orokor bat eskaintzea. Ez naiz batere filosofoa.

Gogoeta egiten duen gizon zahar baten iritzi batzuk plazaratzea besterik ez da nire xedea. Eta agian honengan edo harengan kezka eta galderak eragiteko “lehendabiziko hitza” proposatzea.

Jerasatar deabrudunaren sendaketarena, hasteko.

Hiru ebanjelari sainduk azaldu digute gertakaria: Mateok, Markosek eta Lukasek. Joanes sainduak, aldiz, ez du honen berririk eman.

Testamentu Berria behin eta berriz euskaratu izan denez, badaukagu non hauta. Eta Murde Duvoisinin itzulpena baliatuko dugu (Paue, 1898).

Iturrira jo nahi duenak, hemen dauzka gertakariaren kondaira azaltzen duten pasarteak: Mk 5,1-20, Mt 8,28-34, Lk 8, 26-39.

Hona hemen Markosena:

Eta goan ziren itsasoz haindira Jeresatarren eremuetara.

Eta Jesus untzitik ilkhi orduko, hobietarik aitzinera agertu zitzayoen izpiritu lohiak zadukan gizon bat, zeinak hobietan baitzuen bere egoitza; eta nihork etzezakeen burdinaz ere estekaturik iduk edo atchik, ezen oin-burdinak chehakatatu, eta nihork etzezakeen zeba.

Eta bethi hobietan eta mendietan zabilan gau eta egun, oihuka, eta bere burua harriekin sakhituz.

Bada, urrundik ikhustearekin Jesus, laster egin zuen, eta adoratu zuen; eta heyagoraka edo oihuka erran zuen: zer da zure eta ene artean, Jesus Jainko guziz goraren Semea? Jainkoaren izenez errekeitzen zaitut, ez nezazun oinhazta edo gaizki erabil.

Eta Jesusek erraten zioen: gizon hortarik ilkhi hadi, izpiritu lohia.

Eta galdatzen zioen: zer duk izena?

Eta ihardesten dio: araldea edo multzoa da ene izena, zeren asko garen.

Eta othoitz errekeika hari zitzayon, aurkhintzatik edo toki hartarik etzezan iriaz.

Bada, han bazen urdalde bat, alhan mendi ingurunean edo aldapetan.

Eta izpirituak othoizka hari zitzazkon, erranez: urdeetara igor gaitzazu, barnera sar gatzazkioten.

Eta berehala Jesusek onhetsi zioten.

Eta ilkhirik, izpiritu lobiak urdeetan sarthu ziren; eta aralde guzia tarrapata gaitzean itsasora jauzi zen bi mila ingururen ingurutsu, eta itsasoan itho ziren.

Pasadizo txundigarri honetan, garai hartako kulturako gizon gisa mintzo da Jesus; eta ez ezertan ere Jainko hirukunaren bigarren pertsona gisa.

Judutar herri jakinduriaren arabera mintzo zaio deabrudun gizajoari; bere jainkotasunak ezelako eraginik ez balu bezala. Debru mordo batek dauka gaixoaren kontrol osoa.

Gertaera harrigarri horretan, bestalde, urdeen etsai porrokatu agertzen da Kristo. Zeren-eta bi mila debruk harrapatuta omen zeukaten gizarajoa sendatu nahiz, beste hainbeste urderengana sartu, eta itsasoan itotzera bidali baitzituen. Hots, bi mila urde batera, kurrinka latzetan ari, itotzen ikustea ez da eguneroko ogia.

Baina gertakari hau bakanka baizik ez dute gaurko predikariek aipatzen.

Ez naiz ni sendagile, eta nekez eman nezake irizpide klinikorik batere hiru Ebanjelioetan deskribaturik datorren eritasunaz. Baina eskaintako sintomak ezagututa, badirudi beste azalpenik badagokeela, gaitzaren gakoia bi mila izpiritu lohiren haragikuntza edo urdeetaraketa alde batera utzita. Misterioen eta parabolen munduan gaude, jakina.

Baina gertakari guztiz bitxi eta sineskaitz baten aurrean ere bai.

Bide beretik agertzen dira arraildurak eta zalantzak Kristoren “ethorkia”ri dagokionez (ainhoar aduanazain eta itzul-tzaile ospetsuak “genealogia” ideiarako hautatutako hitzez esateko).

Mateo eta Lukas ebanjelariak 42 belaunaldi zehazten dituzte Abraham-engandik Kristo-ganaino. 14 dira Abrahamengandik Dabid erregearenganaino, beste 14 Dabidengandik Babiloniako deserripenera; eta beste 14 Babiloniatik Jesusengana. Gutxitxo, Abrahami buruz ditugun datuak ezaguturik.

Baina bego hori, eta gozen atzerantz.

Alegia, goazen Adam-engandik Abraham-enganago etorkia aztertzeraz. Lukasek emana, Duvoisinin testuan (270. or.).

Jainkoaren beraren goi-argitasunez idatziriko kondaira, egia historikotik guztiz at, are arrunt kontra ere, agertzen zaigu. Ez dago horretan sinesterik.

Eta orri-oinean erantsitako oharrak berak aitortzen du hitzerdika (23, 270), Eliza katolikoaren iritzi ofiziala mugatuz:

“Maria Dabidengandik datorrela” sinetsi behar bide da soilki. Gainerakoa libro uzten da.

Urrun gaude, ordea, lau ebanjelioen kritika zehatz, orokor eta zorrotza burutzeko xedetik. Makina bat aldiz egin izan da. Hemen, berriro errepikatuko dugu, zenbait gogoeta idarokitzeko asmoa besterik ez dakargu.

Batez ere kristau fedearen bi oinarri nagusiei buruz jaurtiko ditugu geure galderak: gizonaren hilezkortasunaz, batetik; eta Jainkoaren egoteaz vs. ez-egoteaz, bestetik.

Gizonaren hilezkortasunari dagokionez, oso nabaria da *besteen* amaitu beharraz eta *geure buruarenaz* zein jarrera desberdinak izaten ditugun.

“Jaiotakoak oro behar du hil” zioten estoikoek. Edota beste hitz hauetaz: “Orduak iritsi eta iragan egiten diren bezala, ni neu ere, iritsia naizenez, iragan egin behar dut”.

Besteei begira, are familiartekoak edo maitatutako pertsonak diren ber, hil-beharra estoikoki begiratzen dugula dirudi.

Baina... Lazaroren isilpeak izutzen gaitu.

Geure hilondoko bizierari buruz testu sakratuak, harrigarri, guztiz mutu topatzen ditugulako.

Hona hemen Lazaroren pizkundearen kondaira Joanes ebanjelariaren arabera (ikus Duvoisin berriro, 465-471 or.).

Bethaniako gizon hura hila zen lau egun hartan, eta chortzia.

Jesusek beraz, Martha eta Maria ikhusi zituenean nigarrez, eta haiekin ethorri juduak ere nigarrez, barnea lastu zitzayoan, eta kantitu zen, eta erran zuen: non ezarri duzue?

Ihardetsi zioten: Jauna, zato, eta ikhusazu.

Eta nigar egin zuen Jesusek.

Horren gainean Juduek erran zuten: Begira nola zuen maite.

*Aldiz hekietarik zenbaitek erran zuten: Sortzetikako itsua-
ren begiak ideki dituenak, ez othe zezakeen bada hau hiltzetik
debek?*

*Jesus berriz-ere bere baithan lazten zelarrik, ethorri zen ho-
bira; hura zen harri zilo bat, eta lauza bat gainetik.*

Jesusek erran zuen: Khen zazue harria.

*Jauna, dio Marthak, hil zenaren arrebak: usaindua da
oraikoz, ezen hau laugarren eguna da.*

*Jesusek ihardesten dio: ez othe darotzut erran, ezen sinhes-
ten balinbaduzu, ikhusiren duzula Jainkoaren indar ospetsua?*

Khendu zuten beraz harria.

*Jesusek berriz begiak zerura goitituz, erran zuen: Aita, es-
kerrak darozkitzut bihurtzen, zeren entzun binauzu. Nik
bada banakien entzunen nauzula bethi; baina mintzatu
naiz inguruan dagoen populu hunen ariaz, sinhets dezaten
zuk bidalia naizela.*

*Horiek erran ondoren, gora egin zuen oihu: Lazaro, kan-
pora zato.*

*Eta berehala hila ilkhi zen, oinak eta eskuak cherrendez
lothurik, oihala begithartean.*

*Jesusek erran zuen: Khen diozotzue lokharriak, eta bego go-
atera.*

*Lazaro benetan hila zela baietsi zuen Kristok berak: Haren
heriotzaz mintzatu zen orduan Jesus. Hekiek aldiz uste izan zu-
ten lo egiteaz zuela aiphu.*

*Orduan beraz Jesusek garbiki erran zioten: Hil da Lazaro;
eta zuen gatik atsegin dut, ez bainintzen hau, sinheste har de-
zazuen.*

Baina goazen haren gana.

*Thomasek beraz, Didimo deitzen zutenak, erran zioten di-
zipulu lagunei: goazen gu ere, hil gaitezen hunkin.*

Lazaro hila zen, hitz batez; eta kirasten hasia ere bai, hi-
londoko laugarren egunerako normala denez.

Hots, Lazarok ez zuen ezertxo ere esan lau egun horietan
gertatutakoaz. Ez buruz buru gertatutako Jainkoaz, ez beste
munduaz zipitzik ere, ez deusik ezertaz.

Benetan dirudi Ezerezarekin egin zuela topo, eta ez zuela
ezertxo ere kontatzeko modukorik topatu. Eta horregatixe
egon zela mutu.

Bigarren aldiz munduratu izanaz, oker ez banago, inork
ez digu lerrorik edo oharririk batere utzi. Noiz arte bizi izan
zen Lazaro pizkundearen ondoren? Zenbat egunez? Zenbat
urtez? Non kokatu zen? Nolako harremana izan zuen Betha-
niako herrikideekin? Nolakoa, batez ere, Marta arrebarekin?

Honetaz guztiaz Joanes ebanjelariak ezertxo ere ez argi-
tzea, harrigarria da oso.

Jerasatar debrudunaren pasadizo bitxia eta Lazaroren pizkundeko isilpea aski dira, ene ustez, Ebanjelioen egia historikoaz zalantzak indartsu sortzen sentitzeko.

Jauzi egin dezagun orain, eta gogora ditzagun 1973an eta 1979an kaleratutako bi liburu ospetsu.

1970ean Waterlootik eta 1971n Bordenetik Euskal Herrira itzulita, “Dieu existe-t-il?” iritzi bilduma bikoitza agertu zen.

Lehenengo saila (“ez” erantzuleena) 1973an argitaratu zuen Fayardek, oraindik Franco bizi zelarik, eta ni Iparraldean kokaturik. Eta bigarrena (“bai” erantzuleena) 1979an Stock argitaletxeak kaleratutakoa, Donostian harrapatu nuen.

Christian Chabanisek gidatu zuen inkesta.

Lehenengo liburukian, oso intelektual eta jakintsu ezagunek eman zuten iritzia. Alfred Kastler alsaziar fisikariarenak, esate baterako (Nobel Saria, 1966) gaur ere oso interesgarri.

Bazekartzan, era berean, Edgard Morin soziologoaren edo François Jacob biologoaren iritziak; baita Jean Rostand naturalista ospetsuarenak ere. Edmond idazlearen seme eta biologo famatuak bazeukan gainera halako hurbiltasuna euskaldunokin.

Cyrano de Bergerac eta *Chantecler* famatuen egileak Kanbon eraiki zuen 1903an “Arnaga” jauregi zoragarria, behin eta berriz ospakizunen eta zinemaren gertaleku izana. Eta honekin izan zuen lotura bihozkorra naturalista ospetsuak.

Hain zuzen, Kanboko Herriko Etxetik bidalitako xehetasunei esker, Jean Rostanden euskaltasuna baiesteko arrazoiak daudela gogorarazi nahi nuke.

Vincent Bru Kanboko auzapezaren lañotasunari esker, xehekiago funtsa dezaket gaur arestian aipatu dudan “euskal hurbiltasun” hori, eta frantsesez Rostandek berak idatzitakoak errepikatuko ditut hemen:

J'ai passé à Cambo toute mon enfance, ou presque, et la plus grande partie de mon adolescence: c'est dire que je suis lié à cet endroit – que j'ai connu village – par les plus profonds et les plus précieux souvenirs. Bien que né à Paris, c'est du pays basque que je me sens originaire, c'est en lui que plongent toutes mes racines spirituelles et affectives. (“Souvenirs d'enfance”, in *Gure Herria*, 1968).

Eta hor egon dira bi liburuok, Donostian eta Amasako Bidarten, urteetan barrena. Eta irakurri eta berrirakurri ondoren, eta azpimarraketa ugari egien bitartez, nire iraganaren lekuko agertzen dira, eta barne kezka nondik nora zebiltzan sumatzeko lagungarri.

Baiezkoen bilduman, André Lichnerowicz matematikariaren iritziak topatzen ditugu, adibidez; eta Charles Fehrenbach astronomoarenak, P. Paul Grassé zoologoarenak, Albert Delaunay biologoarenak eta beste.

Eta gauza batek harritu ninduen gehienik; baita orain ere, liburuok berrirakurri ditudanean: jainkogabeek “hala ere” beren jarrera ezkorren azalpenetan erakusten duten deserosotasun giroak. Eta, simetrikoki, sinestunak beren segurantzien urrian murgilduta bizi bide zirela.

Zoru labainean ibilki denak.

Ez da horrelakorik topatzen, jakina, Nietzscheren, Sartre-ren edo Russellen iritzietan.

Baina Chabanisek elkarriketatuenetan bai.

Uste dut, hitz batez, eta ondoko orrialdeetan erakutsiko denaren arabera agertuko da, soziologikoki bederen gotortu egin dela ateismoa gure gizarte fededun ohietan.

Hain zuzen ere, argi iturri bikaina izan daiteke Christian Chabanis-en bilduma bikoitza batetik (1973 eta 1979), eta berrikiago gaia ukitu duten aldizkari batzuen inkestak eta emaitzak bestetik alderatzea.

Aldizkari hauek hartuko ditut kontuan:

La Recherche (Hors-série, 2004). *Dieu, la Science et la Religion*. (Gérard Chevalier-en zuzendaritzapean).

Science et Vie, 2005eko uztaila, 1054 zb., “Qu’y avait-il avant le Big-Bang?” 54-70.

Science et Vie, 2005eko abuztua, “Pourquoi Dieu ne disparaîtra jamais” 46-66.

Ciel et espace (Hors-série, 2005) *Astronomes et philosophes*.

Ciel et espace (Hors-série, 2006) *L’Univers a-t-il besoin de Dieu? 13 scientifiques en témoignent*. (Jean-François Robredo astronomo eta Paris IV-Sorbonneko filosofi irakaslearen zuzendaritzapean).

Hemen eskainiko ditugun ataletan eta laburtzapenetan, ia-ia aipatu besterik ez ditugu egingo interes berezia duten izurkribuak eta egileak. Eta horretan gelditu baino hobe du irakurle jakinminak frantsesezko inkestetara jotzea.

Azkeneko bilduma honetan, modako kezkarik egokitu nahiz, *Hatsarre Antropikoa* dago erantzunen ardatz (ingelesez “Anthropic Principle”).

Teoria hau, bere “aldakirik gotorrenetan” batez ere, koloka dago gaur. Alegia, kosmos osoa gizonaren etorrerarako aurreikusia eta bideratua izan dela aldarrikatzen duena.

Laburbilduz, hitz hauetaz egiten du Robredok: “Parmi les mondes possibles, celui qui nous a donné naissance apparaît comme nécessaire. De là à dire que cette nécessité observée est le signe d’une intention supérieure”... Gehiegitxo.

Horra hor, berriro, janzkera berritan disimulaturik dator-kigun ptolomeismo zahar berritua. Izar eta galaxia guztien zentroa... gure Lurra da (!). Horra hor gure harrokeria puzten duen antropozentrismoa.

Izkribuen multzoak ez du ezer baiesten eta ez ezesten. Arazoa irekita uzten du. Baina balegoke ziplo zer gaineraturik.

Zeren giza arima hilezkorra baldin bada, eta atzera baldin bagoaz, non amaitzen da Hatsarre Antropikoa, eta non heriotzaren ondoren gerorik ez duten gizaireen saila? Orangutanari ere ba al dagokio guri dagokigun zentraltasuna?

Gureak, jakina, cromagnonenak, segurtaturik bide dauka amaierarik gabeko bizia. Noski! Kosmos osoa gure zain zegoen. Orangutanen zain ez ala?

Baina neanderthal gizonaz zer esango? Eta *Homo erectus*-az zer deritzogu? Eta australopitekoez, zer? Eta proconsulaz? Non da hilezkorren muga?

Zeren-eta, babuinoak hilezkor?

Beude zalantza horiek horretan.

Albert Einsteinek Fisikan eta Filosofian izan duen garrantzi aparta ezaguturik, berebiziko interesa du Emmanuel

Monnier (ez Mounier, kasu) kazetari zientifikoak (12-22 or.) kontaktzen duenak (*Ciel et espace*, 2006).

1929 urtean Herbert Goldstein New York-eko Sinagoga-ko rabinoak telegrama hau bidali zion Einsteini: “Jainkoagan sinesten duzu? Emazu erantzuna 50 hitzetan (aurre-ordainduta daude)”.

Fisikariak honela erantzun zion: “Nik Spinozaren Jainkoagan sinesten dut. Alegia, dagoen guztiaren harmonia harri-arrigarrian. Ez, ordea, gizadiaren patuaz eta ekintzez arduratu omen litzatekeen jainko batengan”.

Baruch Spinoza filosofoa, bidenabar argitzeko, Amsterdam-go judutarra zen.

Richard Dawkins Oxfordeko Unibertsitateko irakasle ospetsuak, bere aldetik, zorrozki aztertu ditu Einsteinen ideia horiek Jainkoari buruz *The God delusion* bere liburu trinko eta zalapartatsuan.

Dawkinsen iritzia oso aintzakotzat hartzeko modukoa da. Zeren-eta *The Guardian Weekly* astekarian irakurri dugunez, “munduko hiru adimen argitsuenetakoa baita; Daniel Dennett eta Steven Pinker-ekin batera”.

Hain zuzen ere, azkeneko TLS astekarian (5449 zb., 2007-IX-7, 3-6 or.), Christopher Hitchens-en *God is not great* liburuaz eskaintzen du kritika zorrotza Richard Dawkinsek, ateismoaren alorrean gailen dagoela berriro erakutsiz.

Hots, harira etorritz, hitz hauek jarri ditu Dawkinsek Einsteinen ahotan: “Ez dut Jainko pertsonal batengan sinesten; eta ez dut neure irizpide hau sekula ukatu. Hain zuzen, argiro azaldu dut ideia bera behin eta berriz. Zeren-eta ezer bal-

din badago nigan erlijiozkorik, Zientziak ezagutarazten duen egitura orokorrarekiko nire mirespena baita. Izan, sakonki naiz sinesgabea. Halako erlijio mota berria da enea, agian. Inoiz ez diot ezarri Naturari xederik edo helbururik batere, edo antropomorfitzat har daitekeenik ezer. Baina Naturan hau ikusten dut: egitura bikaina dela, guk erdizka bakarrik ulerturik ere. Eta honek halako apaltasun sentimendura eramaten nau. Erlijiozko izari honek, hala ere, ez du deusik ikus-tekorik mistizismoarekin. Jainko pertsonalaren ideia arrunt zait arrotz, eta are inozo ere iruditzen” (Dawkins, 15).

Spinozaren panteismotik hurbil gaude Einsteinenean.

“Deus **sive** Natura” zioen amsterdandarrak (“Jainkoa **edo** Natura” euskaraz; euskal “edo” horretan bi terminoen balio-kidetza azpimarratzen dugularik).

Honetan zeharo urrun gaude “Liburu”ko hiru erlijioetan (judaismoa, kristautasuna eta islamismoa) agertzen den Jainko pertsonal, haserrekor eta antropomorfitik.

Einstein jatorriz judua izanik, ideia jainkogabe horiek judaismotik at kokatu zuten fisikaria, “judaismoaren aurkakoak zirelako” (Dawkins, 16).

Eta zientzialari gorena biraogiletzat gaitzetsi zuten sinagogetan.

Isilik egon balitz, baketan utziko zuten rabinoek. Baina ez zen isildu. Berriro ere Einsteinek gizarteak onartutako ideien kontra jokatzeko bertuterik aski izan zuen. Fisikaren eta Kosmologiaren alorretan izan zuen bezala.

Orain *Ciel et espace*-ren monografikoetara berriro itzuliz (2006), aipa ditzagun bildumako iritziak.

Khalatbari-ren esaldia argitsua da oso: “Jainkoaren izen berria al da Hatsarre Antropikoa?”.

Carlo Rovellik, Marseillan grabitate kuantikoaren ikertzaileak, espanturik gabe aitortzen du: “Nik ez dut Jainkoagan sinesten” (55).

Jean Seidengart Paris X-Nanterreko irakasle eta kosmologoaren lana aipa daiteke ondoren: “La question de la place de l’homme dans l’Univers est toujours d’actualité”. Baina gizakia kosmosaren helburua dela sinestea, ez ba bidezkoa.

Denis Savoie Parisko Behatokiko astronomoarena, berriz, Galileo-Inkiszioa arazoaz dator (24-34). Eta ondorio hau nabarmentzen du: Zientziaren aurrerapena Elizaren kontra mamitu izan dela behin eta berriz, Galileoren kasuan bezalaxe.

Hubert Reeves (58-59) eta Gabriel Chardin (62-63) astrofisikariaren esanak irakur ditzakegu; luze etorri ez arren, mamitsu.

Alain Bouquetek, berriz, Hatsarre Antropikoaren antipodetan, ironiaz dio gizona arrotz dagoela hain zuzen kosmosean: “L’Univers est presque partout extrêmement inhospitalier, et peut-être devait-on plutôt évoquer un *principe misanthropique*: l’Univers n’est pas fait pour nous” (61). Alegia, badirudiela mundua ez dela gizonarentzat sortua.

Oso kritikoa ere Hatsarre Antropikoari buruz Michel Paty (68-69) fisikari eta filosofoa bere lerro mamitsuetan.

Eta irizpide gogorrek, bide beretik, amerikar “Intelligent Design” delakoaz eta Templeton fundazioari buruz (36-47).

Oso zehatza, azkenik, Jean-François Robredo filosofi irakasleak egiten duen txostena “Big-Bang”az eta Georges Le-maître belgikar apaiz fisikariaren eta Einsteinen arteko adiskidetetasunaz (90-98).

Hain zuzen, erruz saldu omen da hilabete hauetan Robredoren liburua: *Du cosmos au big bang: la révolution philosophique*, Puf, Paris 2006.

Oro har, Chabanisen inkestaren arabera, oraingoan Jainkoaren arazoa pittin bat ahuldurik agertzen dela esango nuke berriro.

Begira dezagun segidan, gaingiroki bederen, *La Recherche*-ren saila (2004).

Honetan beste ikertzaile mordo batek (24 guztira) erantzun du “Jainkoa, Zientzia eta Erlijioa” eztabaidagaiaz.

Jainkogabeak irmo ageri dira, eta ez dira ezkututzen.

Frances Westall andereak, esate baterako, Orléansko CNRSko exobiologia saileko zuzendariak, zakar erantzun du: “Ni jainkogabea naiz, eta nire lankiderik gehienak gauza bera. Baina Estatu Batuetan hau argiro aitortzea oso arriskugarri gerta daiteke” (8).

Bide beretik beste emakume astronomo batek: Cathérine Cesarsky Nazioarteko Astronomi Elkarteko lehendakariak hauxe dio: “Jainkoaren kontuak ez nau kezkatzen. Laplacek esan ohi zuen bezala, behar ez dudana hipotesia da” (6).

Guillaume Lécointre ikertzaileak gupidarik gabe kritikatzeko Templeton fundazioa, eta berriro gogorarazten Gali-

leok bere irizpidea zapuztu behar izan zuela, “eppur si muove” famatua erantsi arren (32).

Baita Giordano Bruno astronomoa bizirik erre zutela Erromako Campo-Fiorin 1600ean, Tomasso Caccini fraide dominikarrak Inkisiziora salatu ondoren.

Geroak, ordea, arrazoi eman dio Brunori; beronek irakatsi baitzuen milioika izarren inguruan milioika planetak jirutzen dutela. Eta, Spinozak bezalatsu, baina hark askoz lehenago, Jainkoaren eta munduaren hedakidetzaz defenditzen zuen.

Bruselako U.L.B. unibertsitateko filosofi sailean ari den Isabelle Stengers, berriz, zorrotz mintzo da xedetasunari buruz (22-25 eta 38-42); eta azkeneko Whiteheadi buruz xehe-tasunak ematen.

John Hedley Brooke Oxford-eko Unibertsitateko irakasle ohiak hezkuntza mamitsua eskaintzen du bere artikuluan Charles Darwini buruz.

“Benetako materialismoak –irakurtzen dugu– ezinezko egiten du Jainkoa, errebelazioa ipuin hutsal bihurtzen, eta geroko bizia zentzugabekeria soil” (27). Eta eboluzioaren iragarlearen galderak gogorarazten: “Eman dezagun gizon prestu bat zuhaitz baten azpian gerizaturik. Tximistak jo du, eta gizon hori hilik gertatu. Maiz gertatzen. Benetan sinetsiko duzu zuk Jainkoak apropos hila denik?”.

Hots, kontingentea maiz gertatzen da, eta maiz baldintzatzten du eboluzioa. Zoriak agintzen bide du.

Irakurgarria baita ere Parisko Alain Bouquet kosmologo eta ikertzailearen lana (34-37).

Eta txit dokumentatua eta zehatza Anne Harrington Harvard Unibertsitateko irakasleak Templeton fundazioari buruz prestatutako izkribua (51-55).

Mamitsua oso Jean Louis Schlegel *Esprit* aldizkariko kidearena (74-77).

Laburtzapen ona Elisée Réclusena: “Alourdies par leur énorme bagage de survivances des temps immémoriaux, se laissant toujours devancer par les conquêtes de la science, les religions sont fatalement vouées à combattre tout d’abord ce que cent ans plus tard elles seront forcées d’admettre ou même de prêcher” (74)

Ondoko urtean (2005-VIII) kaleratutako *Science et Vie* aldizkariak arretagune bertsua hartu du mintzagai, jadanik idatzi dugunez: “Pourquoi Dieu ne disparaîtra jamais” (47-66).

Baina honetan alderantzizko ikusmoldeak agintzen du.

Hona hemen atalburuen izenak:

1. Notre cerveau est programmé pour croire (48-53).
2. La foi, remède miracle contre l’anxiété (54-57)
3. L’irrésistible ascension de Dieu depuis les origines (58-63).
4. La religion bouscule notre perception du monde (64-66).

Ikertzaile hauen abiapuntua zeharo desberdina da: neuronek agintzen dute gugan, eta sinestera bultzatzen. Ia-ia federearen oinarri biologiko-neurologikoa frogatzeko mugara iritsi bide gara.

Baina inkestak alde batera utzitakoan, bi liburu burrunbatsutan barreiatutako iritziak azalduko ditut:

Traité d'athéologie – Michel Onfray – Ed. Grasset – Paris, 2005 – 283 or.

The God delusion – Richard Dawkins – Bentam Press – Chatham, Kent, 2006 – 406 or.

Baina hasi aitzin, gogora dezagun Hume-ren esaldi gogor hau: “Religion is a sick man’s dream”. Alegia, erlijioa gizon gaixoaren ametsa dela.

Onfrayk bi oinarri ideologiko hauek proposatzen ditu abiapuntutzat:

–Jainkoaren ez-izatea.

–Giza arimaren hilkortasuna.

Eta honela mintzo zaigu: “Gizakiaren sineskorkeriak aise gainditzen du suma genezakeen guztia. Ebidentziari ez-ikusia egitea, ikuskariaren beharra, itsukeria ontzat hartzea”.

“Haurrentzako ipuinak nahiago egiazkoaren doilorkeria aurrez aurre begiratzen ausartu baino. Honek munduaren izari tragikoa aitortu beharrera eramaten duelako”.

“Sinestunak, inozo eta zozo, badaki, jakin, bera hilezko-rra dela, eta planetaren hondamendiaren ondoren ere, bizirik iraungo duela” (28).

“Hauxe da arazoa sinestunekin: asmazioak ez direla hiltzen, lilurak ez direla inoiz suntsitzen, eta umeentzako ipuinak gezurtatu nahiak ez duela funtsik” (38).

Zenbait aldiz gure Unamuno mintzo bide da Onfrayren ahotik, bi pasarte hauen alderaketaz ondoriozta daitekeenez:

“Dieu fabriqué par les mortels à leur image hypostasiée –idatzi du Onfrayk– n’existe que pour rendre possible la vie quotidienne, malgré le trajet de tout un chacun vers le néant... parce que l’existence s’inscrit brièvement entre deux néants” (39, 94).

Unamuno parafrasatuz bezala:

“Si al morirseme el cuerpo que me sustenta, y al que llamo mío para distinguirlo de mí mismo, que soy yo, vuelve mi conciencia a la absoluta inconciencia de que brotara, y como a la mía les acaece a las de mis hermanos todos en humanidad, entonces no es nuestro trabajado linaje humano más que una fatídica procesión de fantasmas, que van de la nada a la nada, y el humanitarismo, lo más inhumano que se conoce” (*Del sentimiento trágico de la vida*, 61; ed. Alianza Editorial, 1997).

Urrun daude bilbotarra eta frantsesa helburu filosofiko-
etan; baina harrigarriro antzeko agertzen dira batzuetan.

Ez al den guztiz bitxia galdetzen du Onfrayk: “Gure Jainkoa antropomorfikoa da bere itxuraz, eta zuria, eta arra; eta arrazaz ariarra, noski” (16).

Einsteinek ardatz zeukan B. Spinozak “arimaren hilezkortasuna ukatzen zuen” (Onfray, 51).

Eta Freuden hitzak bere eginez, eta umore sarkastikoz hitz eginez, Darwinek gure narzismoa larriki zauritu zuela gogorarazten du: “Aita Saindua makakoaren lehengusua? Horixe falta genuen!” (122).

Oker egon behar Darwinek. Jakina!

Eta aurrerago, beti Freud eragile: “Toute religion procède d’une névrose obsessionnelle” (123).

Zenbait aldiz politikaz iritzi batzuk ausarki ematen dizkigunean, “apología del terrorismo” delakoaz ahaztuta mintzo da Onfray: “La résistance est légitime: vouloir bouler hors de son sol des armées d’occupation qui imposent leur langue, leurs lois, leurs coutumes par la force, justifie toujours la résistance, la rébellion, le refus et la lutte, fût-elle armée” (152).

Eta Vatikanoren politikabideen kontra eskaintzen dituen orrialdeak (221-223 bereziki) antologikoak dira; eta maiz sumatutako ondorio nagusia txuri eta beltz agertzen du bere ondorioetan. Zeren-eta Izpiritu Sainduak etengabe iradokitzen baldin badu Aita Sainduaren jokabidea (“grâce d’assistance” delakoaz), hau darraikio: Jainkoa eta Izpiritu Saindua nazien aldekoak direla.

Nola uler daiteke, galdetzen du Onfrayk, Hitlerren *Mein Kampf* liburua sekula “Index”ean ez sartu izana; aldiz Bergson, Descartes, Gide, Hume, Kant, Locke, Sartre eta Simone de Beauvoir daudelarik? (109, 229).

Beude horretan Onfrayren aipamenak, eta goazen Dawkinsengana.

Arestian aipatu dugunez, *The God delusion* liburu entzuetetsuan bere burua jainkogabe aitortzen du Richard Dawkins biologo-filosofoak.

Ironia eta zorroztasuna aldika tartekatuz, guztiz lan erakargarria lortu du.

Eta bidaide topatu du Bertrand Russell filosofoa: “The immense majority of intellectually eminent men disbelieve in christian religion, but they conceal the fact in public, because they are afraid of losing their incomes” (97).

Dawkinsek, hasteko, ez ditu konfuzionismoa eta budismoa erlijiotzat hartzen, Txinako eta Indiako sistema etiko edo biziera filosofiatzat baizik (38).

Zalantzarik gabe honetan datza, sumatzen dugunez, Kondairan barrena Asiako bi pentsamendu olde indartsuok, eta gure inguruko hiru erlijio abrahamdar nagusiek, horren joera desberdinak izatea.

Abrahamdar jainkoa Jainko pertsonala da (38). Gautama Budak eta Kung-fu-tseuk, aldiz, ez dute jainkorik sinesten: ez pertsonalik, ez bestelakorik.

Hori bakarrik ez. Ezen Dawkinsen hitzez esatekotan: “The abrahamic God is (to put it mildly) aggressively male” (35).

Eta aurreraxeago: “I don’t believe in an old man in the sky, with a long white beard” (36).

Batzuk –dio Dawkinsek– gure jainkoaren arkeria hori konpontzen saiatu dira. Zertarako horretan nekatuko, ordea? “What is the difference between a non-existent female and a non-existent male?” (36).

Eta erdi isekazko giro beretik, 1981ean Joanes Paulo II.aren aurkako atentatua gertatu zenean, bala nork desbideratu zuen? Erantzuna Aita Sainduak berak eman zuen: Fatimako Ama Birjinak preseski (35).

Ez Lurdekoak edo Guadalupekoak, ez Aketakoak, ez Garabandangoak. Ez. Ageri denez, Birjina hauek oso lanpetuta zeuden une hartan beste mandatu batzuetan (35). “Errands” hitza irakurtzen dugu ingelesez.

Baina zirtoak eta txantxak alde batera utziz, Dawkins bere pentsaera seriotan azaltzen saiatu da IV. kapitulu luze eta

trinkoan: “Why there almost certainly is no God” (111-159). Alegia, zergatik segurki ia jainkorik ez dagoen.

Kapitulu honetan Dawkins biologoa mintzo da batez ere; eta Darwinek, kanpoaldeko eragile naturaz gaindikorik gabe, egia aurkitu zuela azpimarratzen du behin eta berriz. Eta ez kapitulu horretan bakarrik.

Gorago Chabanisen iritzi bildumaren berri eman dugu. Jean Rostandek (Chabanis 1973; 54) lorea bera nola sortu ote den katramila zitzaiola aitortzen zuen.

Baina Darwinek aitortutako kezka bera berriztatu zuen, egia esan. Zeren-eta honek ere begiaren “miraria” hautatu baitzuen berezko hautaketaren adibide eredutzat.

Kolpez edo behingoz horraino iristea ezinezkoa dela aitortzen dute bai Darwinek bai Dawkinsek; amildegiaren zolatik eta kolpez goraino jauzi bakar batez igotzea ezinezkoa den bezala (122).

Gainera, dio Dawkinsek, begiaren osotasun biribila mailaz maila iritsi zen Darwinen ustez (123). Pausoka, “through smooth gradients” (124).

“Design is not the only alternative to chance” irakurtzen dugu. “Natural selection is a better alternative... a real solution” (121).

“Hatsarre Antropikoaz” ere mintzo da luzaz, bere aldaki leunean: “Its weak version is good”, (137). Alegia: gu hemen gaudenez, Naturak posible izan du gizona agertzea.

Eta hor Dawkinsek astronomia deitzen du argi bila: “Gure planeta da, hain zuzen, ezinbestezko baraderak eta baldintzapenak oro gainditu dituen **bat**” (141).

Bakarra ote? Bilioika izar eta milioika galaxia daudela da-kigularik, “uste dut nik –dio Dawkinsek– adimendun bizia hortik zehar ere badagoela” (138).

Daniel Dennet britainiar filosofo ospetsua aipatzen du maiz; eta gauzak beronek bezalatsu ikusten dituela aitortzen (157).

Gero bere pentsaeraren oinarriak biltzen ditu sei puntutara. “Ia-ia segurki, egon, Jainkorik ez dago. Hauxe da liburua-ren hariak honaino erakutsi duen ondorio gailena” (158).

Hortik aurrera, Biologiaren alorretik irtetea, Darwinen mailako jakintsurik beste sailetan oraindik agertu ez dela dio; eta honegatik iruditzen zaio Jainkoaren ez-egotearen arazoa osoki burutu eta borobildu gabe dagoela.

Zain dagoela aitortzen du.

Baina beharrezko jenio hori aurki agertuko dela uste du; eta orduan jainkogabetza guztiz tinkoki funtsatuko dela.

Dawkinsen liburu mardula ez da *beste bat*, beste liburu arrunt bat. Benetako apostolua da Dawkins (Onfrayren antze-ra); eta hau eranskinetako datu zerrendetan nabarmentzen da.

Elkarte jainkogabeen sorta luze bat eskaintzen du 375-379 orrialdeetan. Ingelesez ari diren ikerguak dira, oro har, Dawkinsek berak ahulezia gisa aipatzen duenez: 19 elkarte, USAn, Britainia Handian, Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian eta Indian sakabanaturik.

Autoreak eskainitako bibliografia ez da makala: 165 liburu (386-387); gehi testuan barreneko beste 156.

Ahal delarik, arretaz irakurri behar den liburu aparta.

Eta kapitulu honi amaiera emateko, gogora dezagun aurkezpenik ez duen **Bertrand Russell** filosofo matematikaria.

Nobel Sariaren obra eskergaz orokorki hitz egin nahi izateak porrotera eramango gintuzke segurki.

Lan honetan, beraz, Russellen hitzaldi ospetsua jarraituko dugu orpoz orpo (“Why I am not a Christian”, Battersea-London, 1927ko martxoaren 6an emana). Zergatik ez naizen kristaua, alegia. Espainierazko itzulpeneko orrialdeak baliatuko ditugu koka-iturri (*Escritos Básicos*. Ed. Planeta-Agostini, II. liburukia, 1984; ingelesezko izkribuan *The basic writings of Bertrand Russell*).

Eta iritziok osatzeko, Lee Eisler-i emandako erantzun mordoa ere erabiliko dugu (Russell – *Respuestas* – Ed. Península, Barcelona 1997). Multzo zehatz eta anitza: 330 orrialde.

“Zer da kristaua izatea?” galdetzen du lehenengo testuan.

Eta funtsezko bi oinarri hauetan kausitzen du kristautasuna: kristaua izatea **Jainkoagan** sinestea da batetik; eta **giza arimaren hilezkortasunean** sinestea bestetik.

“Hots –dio Russellek– nik ez dut Jainkoagan sinesten, eta gure hilezkortasunean ere ez” (533-534). Beraz, nekez izan liteke kristau.

Hasteko, Russellek ez du onartzen Kausaren argudioa. “Guztiak kausa bat izan behar badu, Jainkoak ere kausa bat behar du. Kausarik gabeko ezer egon badaiteke, hain zuzen, gauza bera gertatzen da munduaz, eta argudioak bere balio eza erakusten du. Ez dago arrazoirik batere mundua kausarik gabe sortua dela ez pentsatzeko; eta, bide bertsutik, ez dago arrazoirik batere mundua beti egon dela ez sinesteko.

Ez dago, egon, ezta munduak inoiz hastapenik izan duela suposatzeko ere. “Gauzek hastapena dutela dioen ideiak gure asmamenaren ahulezia erakusten du bakarrik” (535).

Orain modan bide dagoen Hatsarre Antropikoa aipatu gabe, Russellek ukatu egiten du errotik zertarakotasuna. Hemen bizi ahal izan gintezen dago dena aurreikusirik eta prestaturik (“design” delakoa). Besterik deus desberdina balitz, gu ez ginateke hemen egongo.

Baina ideia honek Voltaireren zirto famatua gogorarazten dio; zeren honek esaten baitzuen gizonari sudurra eman ziola Jainkoak bertan antiparrak pausa ahal zitzaizkion (537).

Bestetik, ezin sinets zezakeen Russellek izaki ahalguztidun eta orojakile batek, milioika urtetan, gure mundu latz hau baino hoberik ezin asmatu izana. Benetan –zioen– ezin horrelakorik sinets.

Kontuan har, gainera, astronomiak erakusten duenez, halako batez bai giza bizia, eta baita bizidunak oro, arrastorik utzi gabe suntsituko direla (538).

“Horren jakitun egonez gero, nola eutsiko genioke bizitzeari?”, galdetzen omen dute batzuek. Baina Russellek, askotan baliatzen zuen ironiaz, hau errepikatzen zuen: “Espantuka hori adierazten bada ere, inor ez da zinez kezkatzen hemendik ez dakigu zenbat milioi urtetara gertatuko bide denaz”.

Ondoren Russellek orrialde batzuk eskaintzen dizkio Kristoren irudiari.

Ebanjelioetan gauza ezin garbiagoa da Kristok berehalakotzat zeukala bere bigarren etorrera, loriazko hodei gainean gauzatzekoa. Eta esan egin zion aurrean zeukan jendetza hari, berek ikusiko zutela gertakaria hil baino lehenago.

Hots, etorrera ez zen gertatu.

Onartezina zaio Russelli, bestalde, Kristok proposatutako bidetik joango ez zirenek amairik gabeko zigorrak jasango zituztela aldarrikatzea: “Urrun zaitezte nigandik, madarika-tuok, eta zoazte betiereko surtara!”. Eta halakoak.

Jerasatarren pasadizoa gogoratzen du harriduraz (saiakera honetxan hasieran azaldua). Eta, hitz batez, Buda eta Sokrates, gizatasunaren aldetik, gorago ikusten ditu Kristo baino.

Hain zuzen, Russell erlijio guztiekiko etsai porrokatua izan arren, Budari dagokionez alde onak azpimarratzen ditu.

Budak ez zuen inoiz bere burua inongo jainkorekin lotu. Jainkogabea zen bera, gainera, hastapenetako budismo guztia bezala. Eta budistek ez dituzte kondairan barrena kristauek Kristoren izenean burututako sarraskiak eragin. Budismoa ez da erlijio jazarlea izan (551).

Jainkoaren ideia osoak, hitz batez, Ekialdeko despotetan du oinarria; eta gizaki askeontzat baztergarria eta duintasunik gabea da.

Baina hitzaldi ospetsu horretan bezain gordinki, gordinkiago ez bada, agertzen da Russellen jainkogabetza Lee Eisler-i emandako “Erantzun”etan.

“Egon daiteke, bai –dio Russellek–, kristauen Jainkoa; baina baita Olinpoko jainkoak ere, eta antzinateko Egipto-koak, eta Babiloniakoak. Baina hipotesi horien artean ez da bata bestea baino gertagarriago edo funtsatuago: denak daude ezagueraren alorretik at, baita probabilitateei dagokienez ere. Eta, horretaz, ez dago arrazoirik batere hau edo hura aintzartatzat hartzeko” (*Respuestas*, 113).

“Gehienok, hala ere, beste sineste batean hezi gaituzte. Unibertsoak jakinduria mugagabe eta ahalguztiko Sortzaile-ari zor diola bere existentzia esan zaigu, eta beronen helburuak mesedegarri direla, are kaltegarri agertzen zaizkigunean ere... Horrelako izaki horren frogarik ba al dago? Zalantzarik gabe kontsolagarri gertatzen da Harengan sinestea; eta zenbait aldiz eragin moral egokiak ditu izaeretan eta jokabideetan. Baina ez dago frogarik batere sineste hori egiazkoa dela pentsatzeko” (113-114).

Bere buruaz eta heriotzaz mintzo denean ere, ez du Russellek leunkiago erantzuten: “Ni hiltzean usteldu egingo naiz, eta nire nitasunaren azken arrastoak berak suntsituko dira. Bizia maite dut, eta ez naiz jadanik gaztea. Baina mespretxagarri iruditzen zait deuseztearen ideia-aren aurrean ikararak harturik dardaratzea” (244).

Honetan Russellek Rostand dauka irizkide.

Teilhard de Chardinek hau zioen adiskide baten heriotza ezin onarturik: “Le néant n’est pas possible; si c’était le néant, on ne pourrait pas vivre”...

“Or je dis –erantzuten zuen Rostandek– au contraire: c’est insupportable, mais ça est. Je n’admets pas la preuve par l’horrible” (in Chabanis, I, 41).

Gogorra da mundua, gupidagabea; latza giza patua.

Baina gauzak horrela dira. Eta ausart izan behar dugu, ipuinetan kulunkaturik geure burua ez desbideratzeko.

Bitxia, gainera, honetaraz gero, bi multzo agertzea. Batean jainkogabeak daude, etsia hartu dutenak, patua irentsiz. Beste-

an, berriz, “hala ere” “zerbaitetan” sinesteari eusten dioten kristau ohiak, baita biraoka ari direnean ere.

Shakespearek adierazi zuen egokiro: “hiltzea... lo egitea... amets agian”.

Ezin amore eman!

Berantegi da bizi osoko kultura eta sinesteen kate gotorra eteteko. Niretzat ere bai, aitor dut.

Honen jakitun agertzen da Bertrand Russell: “Las afirmaciones categóricas y reiteradas, sobre todo durante la infancia, originan en la mayoría de la gente una creencia tan firme que llega a dominar incluso el inconsciente; y muchas personas que imaginan que su actitud hacia la ortodoxia refleja una emancipación completa, en realidad siguen dominadas inconscientemente por sus enseñanzas” (*Respuestas*, 94).

Idea bera defenditzen du Dawkinsek, baina kolore berriekin, 115. orrialdean kontatzen duena gogoratuz: “In Australia and New Zealand you can buy maps of the world with the South Pole on top”.

Iparburua bat-batean mapen behealdean topatzean, asaldatu egiten zaigu barrena! Ez gaude gu horrelakorik zinez eta ondorio guztiakin irensteko. Zorizko erreferentziak ukigaitz zaizkigu. Eta Koperniko ez bide dugu osotara sinetsi...

Irmo, ausart, Marko Aurelio edo Epikteto estoikoen kastakoa izan behar.

W.H. Auden-en lerro etsi azkarrak datozkit gogora:

*All proofs or disproofs that we tender
of His existence are returned
unopened to the sender.*

Alegia: bidalitako eskutitzak oro, Haren existentziaz pres-
tatutako frogak eta kontrafrogak azalduz, denak, ireki ere ga-
be, bidaltzaileari itzultzen zaizkio.

Zilegi bekit bere horretan uztea.

Ezen zer nik erantsiko?

Erants beza irakurleak ongien deritzona.

GURE GALAXIAN BARRENA

Unibertsoaren erraldoitasunaren zantzu batzuk

Gaur, 2006ko urtarrilaren 17an, hasi naiz zazpi saiakerak osatuko duten *Horretaz* multzo hau idazten.

Hain zuzen, NASAk prestatutako “New Horizons” zunda Pluton planeta nanorantz abiatzekoa den egunean (19an bidaliko dute, azkeneko berrien arabera; daraman plutonioa jaurtiketakoan gerta daitekeenaren beldurrez, hiru aldiz atzeratua).

700 milioi \$ kosta eta gero, oraindik ere nola edo hala gizonak “ukitu” ez duen bederatzigarren “planetarantz” abiatuko da (International Astronomical Union-ek, 2006-VIII-24an erabaki du Pluton ez dela planeta zentzu klasikoan, planeta nano baizik); eta 11 kilo plutonium-238k elikatutako bultzagailu azkar batek hurbilduko du helburu hartaraino.

9 urtetan barrena, 5.000 milioi kilometro kurrituko ditu Eguzki Sistemari zehar. Eta, dena aurreikusi bezala burutzen baldin bada, 50.000 kilometro orduko ziztu bizian joanda, 2015eko uztailaren 14an iritsiko da Plutondik 11.095 km-tara.

Eta hango berri irratia uhinez bidaltzen hasiko da.

Uhin horiek, irakurleak berehala egiazta dezakeenez (argiaren ziztua oso ezaguna delako, $c = 299.741 \text{ km/s}$), 4,63 ordu beharko dituzte guganaino iristeko. Eta gauza bera hemendik hara igorriko ditugun seinaleek.

Beraz, zundarekiko edozein “elkarrizketa” bideratzeko, 9 ordu beharko dira.

Pluton (2.300 km diametro) eta Karonte bere satelitea (1.186 km diametro) ez baitaude hortxe izkinan!

Hubble Teleskopioak berriki fotobidez irakatsi digunez (iazko maiatzaz geroztik, zehazki), Plutonek baditu beste bi satelite txiki (160 km diametro), oraingoz S/2005 P1 eta S/2005 P2 erreperekoak.

Orduan Plutondik aldendu, eta aurrera jarraituko du; eta 2016-2020 urteetan **Kuiper Gerria** deritzon eskualde eskerga, huts eta iluneko astro batzuk bisitatuko ditu (gure Lurretik oso nekez ikusgarri: magnitude 23koak direlako).

Kuiper Gerria 30 UAtik hasi, eta 1.000 UA tara hedatzen da.

1 UA (Unitate Astronomikoa) = 150 milioi km, Lurretik Eguzkirako balio ertaina.

Eguzki Sistemaren bilakabideaz oroitzen bagara, beronen jatorrian disko txapala egon zen, ertzetara urrundu ahala gero eta txapalagoa; eta gero eta materia gutxiagoz oratua.

Hau dela bide, Kuiper Gerria deritzon eskualde eskerga urrunean, Neptunoren orbitaz harago, badaude “izarkiak” (KBO bataiatuak, “Kuiper Belt Objects”). Oso sakabanatuta, dentsitate ertain orokorra oso apala dutenak. Milaka daude; eta 1992az geroztik sailkatzen hasiak dira. Hain zuzen, berrietaz mintzatuko gara ondoko orrialdeetan.

Are hutsago eta arinago **Oorten Hodeia** deritzona (20.000 UAatik 200.000 UA tara), kometen biltegitzat har daitekeena. Bilioi bat objektutan estimatzen dute astronomoek honen edukia. Gorpuzkin arinez osaturik (kometa buruak oro har), denen artean, eta guztira, Lurraren masa baino 30 aldiz gehiago besterik ez dute osatzen.

Betirako ohar orokor bat distantziei dagokienez:

$$1 \text{ argi-urte} = 9,46 \text{ bilioi km} = 63.240 \text{ UA}$$

$$1 \text{ parsec} = 3,262 \text{ argi-urte} = 206.265 \text{ UA}$$

Plutonen berri

Plutonen orbita elipse luzanga da. Beronen ekzentritatea $e = 0,249$ da; gure Lurrarena, ia-ia zirkulu hutsa, $e = 0,017$ besterik ez delarik. Antzekoak dira planeta “klasiko”en ekzentritateak. Guztiz txikiak. Anormala, Plutonen ekzentritatea da; eta anormala haren tamaina ere: Merkurio bera baino txikiagoa.

Ekzentritatearen handia dela-eta, bere orbitan barrena distantziak desberdinak ditu arrunt Plutonek Eguzkiarekiko: 4.500 milioi kilometro perihelioan (30 UA), 7.000 milioi km afelioan (47 UA).

Horregatik hautatu dute 2006ko hasiera hau (5.000 milioi inguru kilometrotara dagoelarik) jaurtiketa egiteko. Alegia, planeta bere afeliorantz urrundu baino lehenago.

Plutonek 248 urte behar ditu Eguzkiaren inguruko bere inguraketa egiteko (bere “urtea” burutzeko, nolazpait esateko). Eta bere orbitaren makurdura ere, ekliptikarekiko, anormala da berriro: $i = 17^\circ$.

Planeta bitxiegia Pluton; xehekiago ikusiko dugunez.

Eta han zer (edo zertsu, hobe) aurkituko?

Hotz ikaragarria, hasteko: 240 grado zeropetik, -240° .

Antartidan 1960an erregistratutako -88° ak, urrun gelditzen dira... Antartida epela da oso Plutonen aldean.

Nitrogenoa -196° tan urtzen da. Pluton, afelioko garaie-tan batez ere, “une glace d’azote brillante” gisa ageri da, azal-tzen digute frantsesez: nitrogenozko izotz distirantea. Meta-noa eta karbono monoxidoa ere, hormaturik; han aurki dai-tezkeen gainerakoak bezalaxe.

Beste gauza bitxi bat.

Karonte satelitea Plutondik oso bertan dago, 19.649 kilo-metrotara bakarrik, “gain-gainean”... bikote urrun hau bene-tako planeta bikoitza bailitzan. Gure Ilargia 20 aldiz urrutira-go dugu, irakurleak dakienez: 384.400 kilometrotara.

Plutondik ikusia, azkenik, argitasunaren mailari dagokio-nez, Eguzkia ozta-ozta gailentzen da gainerako izarretatik: 1.600 aldiz ahulagoa guk ezagutzen dioguna baino; eta dia-metroaz ere, guk Artizarra garairik egokienetan ikusten du-gun baino handiagoa ez.

Eguzkia handik begiraturik, izar arrunt kaxkar ageri.

Gure Sistemako “azkeneko” planeta nano hau (aurrerago mintzatuko “azkentasun” horretaz) urrun dago, bai.

Hartan dena zaigu hotz, ilun, doilor, eta gizakiarekiko ezin arrotzago.

Geldi gaitezen pentsakor unetxo batez aurrera jarraitu bai-no lehenago.

Eta egin dezagun “jauzi” bat. Nora?

Gugandik gertuen dagoen izarrera. **Alpha Centauri** deritzonea, beraz. 4,35 argi-urtera.

Izar hirukoitza da. Baina nagusia Centaurus denez, honi dagokion 4,35 kopurua hautatuko dugu adibidea aurrera eramateko.

Plutonen distantzia ertaina 38,5 UA da, arestian adierazi dugunez. Edota, kilometrotan mintzatuz, $4,35 \times 9,46$ bilioi = 41,15 bilioi km.

Eta has gaitezen zatiketa ximple batzuk egiten (egin bitza irakurleak ere).

Alpha Centauri 7.126 aldiz urrunago dago Pluton baino. Zehazkiago: Pluton bere perihelioan dagoenean baino 9.145 aldiz urrunago dago Alpha Centauri; eta bere afelioan dagoenean baino 5.837 aldiz urrutirago.

Plutoneraino zunda bat bidaltzea balentria harrigarria dela ezertan ere ukatu edo gutxietsi gabe, Plutonera iristea, Kosmosaren arabera begiraturik... hutsaren hurrena besterik ez da.

Mugitu ere egin ez dela esan daiteke gehiegikeriarik gabe.

Cristobal Columbus gogoan

Urtarrilean zerurantz abiatu den “New Horizons” zunda omen da orain artean jaurtiki den azkarrena: 58.000 kilometro orduko abiatzerakoan.

Hori dela-eta, 9 ordu besterik ez du zundak beharko Ilargiaren orbitaraino heltzeko, eta 13 hilabete bakarrik Jupiterreraino.

Zenbat denbora behar luke, hala ere, Alpha Centaurira joateko?

Berriro zatiketa ximple batez irakurleak egiazta dezakeenez: 63.460 urte behar lituzke. Ziztu bizi horretan 63.460 urte behar izarrik hurbilenera iristeko!

Nekez suma daiteke gizakiak Eguzki Sistematik at irteteko sekula aukerarik izango duenik. Eskala kontua da.

Zinez: Kosmosa handiegia da. Izarrak urrunegi daude.

Eta gizona hutsalegi da, eta igarokorregi espazio horietan mugitzeko.

Kazetari txoro burugabe batzuek kontaktzen digutenaren kontra, inoiz izar honetara edo hartara iritsiko garela esatea, zozokeria eta jakinezaren neurria baizik ez da. Ez gaude 1492 berri batean...

Milaka urtetan gizaki bat (edo mordo bat, berdin da) zunda hertsu batean sarturik, inoiz beste izarren batera iritsiko dela aldarrikatzea... txorakeria galanta da.

Beharrezko jauzia ez da, inondik ere, europarrak XV. mendean Ameriketara iritsi zirenaren errepikapena. Ameriketako bidaiak posible zen jauziaren izariaren aldetik. Izarretarainoko giza bidaiak, berriz... haurtxoentzako ipuin hutsalak.

Gure giza patua Eguzki Sistemaren barruan gauzatzen eta gauzatuko da.

Modelo didaktiko bat Kosmosaren eskergatasuna garbikiago sumarazi nahiz

Begi bistan da distantzia eskerga horietan galdu egiten garela erabat.

Eta, zertaz ari garen nolabait behintzat “sentiarazteko”, egokia izan daiteke Joachim Herrmann astronomoak bere *Atlas zur Astronomie* bikainean (1976 behin eta berriz eguneraturik eta hizkuntza askotan argitaraturik) proposatu zigun eskala trukea egitea: **distantziak oro ehun mila milioi aldiz ttipitzea**. Alegia: egiazko milioi bat kilometro, modelo ttipituan, zentimetro bat bihurtzea.

UA Unitate Astronomikoa, horretara, 1,50 m bihurtzen zaigu; eta argi-urtea, 94,6 km. Eta argiaren lastertasuna 3 mm/s. Gertakariak, “kamera geldoan”...

Zer aurkituko genuke?

Eguzkia 14 mm-tako puxtarri argitsua izango litzateke; eta gure Lurra, 0,13 mm-tako hondar ale urdin bat, aipatutako puxtarri argitsuaren inguruan 1,50 m distantzian jiraka ari.

Marte planeta, berriz, hondar ale gorri txiki-txiki bat (Lurra baino txikiagoa, jakina, eta 0,08 mm-takoa), puxtarri argitsuaren inguruan 2,28 m-tara jiraka.

Jupiter handia mini-puxtarri bat bihurtua (diam. 1,4 mm), puxtarri argitsuaren inguruan 7,80 m-tara jiraka; eta eraztunen Saturno famatua, beste mini-puxtarri bat, urruntxoago jiraka: distantzia, 14,27 m.

Pluton, azkenik, egun hauetan oso modan jarri den “berderatzigarren planeta” (kakotx artean utziko dugu oraingoz ohiko izendapena) beste hondar kaxkar bat (diam. 0,05 mm), puxtarri argitsutik 59,00 m-tara (bere perihelioan hori; afelioan, badakigunez, are urrunago baita), eta beste orbiten planetatik dexente at, jatorriz “familia”koa ez bailitzan...

Eguzki Sistema, osoa (Kuiper Gerria, Oort Hodeia, eta zalantzan dauden planetak salbu, jakina), modeloan, Iruñeko Gaztelu Enparantzan kokatu ahal izango litzateke.

Bego hori horretan.

Berehala aipatuko dugu xehekiago Plutonen “planetata-suna”ren kontua zertan den.

Izarrak modelo horretan

Eta beti ere modeloari gatzexkiolarik, goazen orain Eguzki Sistematik kanpora. Goazen izarretara.

Hurbilena, **Alpha Centauri**, jadanik aipatua, 411 km-tara aurkituko genuke modeloan. La Rochelle inguruan, demagun.

Barnard izarra, berriz, 566 km-tara, Konpostelan.

Sirius 814 km-tara, Lisboan adibidez. Eta **61 Cygni**, 1.069 km-tara: Antwerpenen, Flandrian.

Eta, hortik aurrera, gainerakoan, hauta ditzagun beren distiraz famatuena:

Vega	2.365 km-tara
Arcturus	3.216 km
Antares	49.381 km
Betelgeuse	132.240 km
Deneb	141.900 km

Iruñeko Gaztelu Enparantzatik irten gara arrunt!...

Gure **Galaxia**, bestetik, 300.000 milioi puxtari argitsuz osatua, disko eskerga bat izango litzateke: hamar milioi kilometro diametrokoa. Betiere modelo ttipituz ari garelarik...

Eta **Andromeda galaxia**, gurearen bizkitzat har daitekeena (baina handiagoa dena zehazki mintzatzekotan), 400.000 milioi puxtarriz osatua, beste disko eskerga bat (ez gurekiko planokide) eta 210 milioi km-tara egongo litzateke. Modeloan ari gara...

Espazioa hutsik dago ia-ia.

Ez dezagun ahantz, gainera, gure Galaxiaren araberrako Zenitean eta Nadirrean, hutsarteak are hutsagoa dela (disko batean gaudela ez ahantz).

Normalean honetaz ahaztu egiten baikara: zero eskerga mugagabea ez dagoela gure buruen *gainean* bakarrik. Geronen azpiko Lur borobilaz behealdean ere... hutsarte bera dago, ezin eskergago. Eta gu hor hegaz, jiraka.

Eta urrungo galaxiak ez leudeke modeloan plano berean: batzuk aurrez aurretik ikusiko genituzke, beste batzuk soslaiz edo saihetsetik.

Oro har, hutsarte hutsa da Kosmosa. Nork ez du zorabiorik sentituko? Bego horretan Herrmannen modeloarena, eta itzul gaitezen geurera.

Iazko uztailaren 29an, Pasadena-ko *Caltech* (California Institute of Technology) delakoak zalaparta handia sortuko zuen berria hedatu zuen.

Michael Brown astronomo gazteak eta beronen hiru taldekideek “hamargarren planeta” aurkitua zutela iragarri baitzuten lau haizeetara. Eta erreperere hau ezarri zioten: 2003 UB 313. Geroztik batzuek **Xena** birbataiatua.

Oso orbita eliptiko luzairean mugitzen zela, eta bere ingururaketa (bere “urtea”, nolazpait esateko) 560 urtetan burutzen zuela kalkulatu zuten.

Une hartan bere afelioan zegoela: Eguzkitik 97 UAtara; baina periheliora datorren 2.285 urtean iristean, 36 UAtara egongo zela.

Batez beste, beraz, Pluton baino hiru aldiz urrunago.

Gorago emandako datuak berrikusiz irakurleak egiazta dezakeenez, diametroz handiagoa da Xena, Pluton baino: 2.800 km (ia-ia gure Ilargiaren tamainakoa: 3.476km).

Ekliptikarekiko makurdura tasa ere, handiagoa: $i = 44^\circ$ (benetan handia).

Izendapenean agertzen den 2003 hori, aurkikundearen datari dagokio. Baina beharrezko kontrolak egin ondoren, iragarpen ofiziala 2005eko uztailaren 29an izan zen.

Nolanahi ere, Kuiper Gerriko “asteroide” (edo “objektu”) baten aurrean gaudela aitortzen dute denek.

Hain zuzen ere, “planeta” izendapena desegokitzat hartuz, Harvard-eko Brian Marsden astronomoak, Plutoni “planeta” izena kendu, eta KBO sailean sartzea proposatu du 1998az geroztik, KBO (Kuiper Belt Objects) direlakoan artean kokatuz.

Baina, jakina, 75 urtez ohitu gara Pluton “bederatzigarren planeta” irakurtzen... eta lanak izango ditugu.

Brownen eskutik, Kuiper Gerriko “objektu” horien zerrenda etengabe ari da luzatzen:

2002ko ekainean	Quaoar	diam. 1.280 km
2003ko azaroan	Sedna	diam. 1.500 / 1.800 km
2004ko otsailean	2004 DW	
2004ko maiatzean	2003 EL 61	diam. 1.500 km
2005eko uztailan	2003 UB 313.	diam. 2.800 km
2005eko uztailan	2005 FY 9	diam. 1.200 km

Eta ezerk ez du iradokitzen zerrenda itxita dagoenik. Eguzki Sistema uste genuen baino zabalagoa eta aberatsagoa da.

Plutonena bezala, Xenaren gainaldea ere metanozko hormaz estalia da, amoniakozko aztarnak agertzen direlarik. Urrunago egonik, jakina, are hotzagoa da Xena Pluton baino.

Eta satelite txiki bat dauka, *Gabrielle* deritzona.

Kometez zerbeitxo

Eguzki Sistemako planeten kopuruari buruz sortu den ikamikaz laburki mintzatu ondoren (hamar diren, hamabi, hamabost, ala... hogeiren bat!), guztiz beste maila batean agertzen zaigu kometen alorra.

Orain milioika, are bilioika ere, ote diren erabaki behar baita. Eta, oro har, behaketaren laguntza hutsaren hurrena izanik. Isatsik ez duten bitartean, kometa buruak ezin baitira ikusi.

Tamainari dagokionez, hain zuzen, zeharo beste maila batean kokatu behar dugu; kometak astro txikiak direlako. Kometa buruen izaria, batez beste, 10 kilometrotan jarri behar da; eta tarte 1 km-tik 100 km-tara. Desberdintasun bera orbitetara eta inguraketa aldiari dagokienez.

Encke kometa dugu gugana maizenik hurbiltzen dena: 3,28 urtero; eta 59 aldiz ikusia gaur arte. Orbita luzairea du ($e = 0,8471$); baina ez da oso urrutira joaten: $Q = 4,09$ UA.

Halley famatuak, berriz, 76 urtero egiten digu bisita: azkeneko aldiz 1986an etorri zenez (eta kaxkar etorri), 2062ra arte ez dugu berriro ikusgarri izango. Orbitan barrena plane-

ta nagusien eraginez apur batez berandutzen ez bada... Baina Antzinatetik ezagutzen dugunez gero, 30 aldiz ikusia dugu jadanik.

Beste kometa asko eta asko, gehienak, arestian esan dugunez, ez ditugu inoiz ikusiko. Eguzkiaren inguruko beren jiraketa misteriotsua 10 milioi urtetan lasai burutu, eta aurrera ilunpean.

Beste batzuk, behin hurbilduko dira Lurrera; baina bigarren agerraldirik ez dute izango. Orbita parabolikoa edo hiperbolikoa dutelako. Edota, eliptikoa izan arren, oso periodo luzekoak direlako.

Hale-Bopp kometa, adibidez, dotore samar 1997an ikusia, ez da 2400 urtera arte itzuliko...

Berriro ere giza eskalatik urruti gabiltza...

Itzul gaitezen, ordea, ondoen ezagutzen dugun Halley kometara.

Periheliotik 88 milioi kilometrotara pasa ondoren (ziztu bizian une horretan: 55 km/s), 38 urtez urruntzen da, gero eta polikiago, 5.245 milioi kilometrotara duen bere afelioraino. Honetan poliki samar mugitzen da: 0,9 km/s. Kepler-en bigarren legea betetzen baitu, irakurleak zatiketa ximple pare batez aise berrets dezakeenez.

Zifra horiek ikusita, garbi dago Halley-ren ekzentrizitatea guztiz handia dela: $e = 0,967$. Kontuan har $e = 1$ denean, orbita paraboliko bihurtzen dela.

1910eko maiatzaren 20an gure Lurrak Halleyren isatsa gurutzatu zuenean (100 bat milioi kilometro luze zeukan!), zerua marra argitsu batek erdibitzen zuelarik, jende askok, gertatuko ziren deskalabru ezin larriagoen beldurrez, bere

burua hil zuen. Besteak beste, isats horrek azido zianhidriko pozoitsua zekarrelakoan.

Ez zen deusik gertatu, ordea; bai zianhidrikoa eta bai gainerako osagaiak isatsetan oso dentsitate txikian egoten direlako. Hain zuzen ere, materia dentsitate hori hutsaren hurrena izaten delako sortzen ditu Eguzkitikako “haizeak” isats luze harrigarri horiek.

Kometa burua txikia izaten da: urezko izotz bola bat eta partikula ñimiñoz osatutako hauts geruza bat. Tempel 1era jaurtikitako “Deep Impact” zundak hein batez ideia hori aldaraziko badu ere (2006ko otsailean ekarri dituen emaitzen arabera), kometa buruetan ura dagoela berretsi du osotara.

Baina buru txikiak dira; oso nekez ikus daitezke. Halley-renak 7 km besterik ez du, esate baterako.

Eguzkirantz hurbiltzean, kometek isats bikoitza erakusten dute: zuzena eta estua bata, gasezkoa, urdinxka; eta makoa eta zabala bestea, hautsezkoa, zuri-horixka kolorekoa.

Kometetan karbonozko molekula desberdin batzuk topatzen ditugu; eta hau funtsezkoa izango zaigu aipatuko ditugunak ulertzeko.

Kometak, oro har, bi eskualdetan aurkitzen dira.

Parte bat, ugariena, ia-ia hutsik dagoen Oorten Hodeian, Eguzkitik guttiz urrun: 40.000 UAtatik, 100.000 UAtara (gogoan har Alpha Centauri izarra 275.000 UAtara dagoela, 4,23 argi-urtera). Zenbatsu? Ezin esan: bilioi bat kometa-buru espazioan barrena sakabanaturik.

Eta bigarren multzo handi bat (nahiz aurrekoa baino txikiagoa) jadanik ezaguna dugun Kuiperen Gerrian. Zenbat? 200 bat milioi kometa-gunetan.

Hots, Eguzkia, izan, izar arrunt bat baizik ez da; eta, gure Galaxian bakarrik, 300 bat mila milioi izar daude.

Kalkula beza irakurleak laburki zenbat milaka bilioi kometa egon ote daitekeen... Hamargarren planeta hemen... bilioigarren kometa bihurtu da!

Ptolomeo, Koperniko eta antropozentrismoa

Lehenengo urrats zaila, ongi dakigunez, Nikolas Koperniko poloniar astronomoak egin zuen XVI. mende hasieran; nahiz “De revolutionibus orbium coelestium” bere izkribu nagusia zahartzarora arte (1543) argitaratua ez izan.

Eta beldur ikaragarriaz kaleratua!

Eta Ptolomeoz geroztik oinarri tinko eta aldakaitz gisa ezarririk zegoen **geozentrismoa** porroskatu zuen. Alegia, Lurra ez dela Unibertsoaren erdigunea.

Lurra, Artizarra, Marte, Saturno, planetak oro hitz batez, baita asteroideak ere, eta meteoritoak, eta kometak ere bai, oro har, Eguzkiaren inguruan jiraka ari direla erakutsi zigun. Eta, nolazpait bederen, geozentristotik **heliozentrismora** pasa ginen.

Eguzkia, ordea, noraino da horren izar berezia? Noraino du kokapen berezia Galaxiaren barruan? Berehala laburki ikusiko dugunez, Eguzkia ere edonolako erdigune izatetik urrun dago arras. Berriro ere gizonaren zentralitatearen ametsak uxatu behar ditugu ausarki.

Eguzkia izar arrunt

Gaurko iritzi nagusiaren arabera, 300 bat mila milioi izar daude gure Galaxian. Eta Eguzkia, alde guztietatik, horietako bat besterik ez da.

“Orionen besoan” gaude; Galaxiaren erdigunetik 8.500 parsec-etara. Edo, kilometrotan mintzatzekotan, 262.300 bilioi kilometrotara. Beste galaxia batetik begiraturik, *koka-pen arruntean* erabat.

Hobe honela, dena dela; Galaxiaren erdigunean sekulako “zulo beltza” dagoelako!

Galaxiaren planoan Eguzkiak jiraketa edo bira bat burutzeko 240 milioi urte behar ditu. Bestela esanda, Eguzki sistema sortu zenez geroztik, hoguei bat aldiz bakarrik burutu ahal izan du bere biraketa.

Tamainari dagokionez, bestetik, Eguzkia ez da batere aparta. Mutur batean neutroizko izarrek daude, askoz ere txikiagoak; eta beste muturrean izar erraldoiak eta super-erraldoiak daude.

Super-noven leherketa ikaragarrien ondorioz sortzen diren neutroizko izarrek (“pulsar” deritzenek) kilometro gutxi-ko erradioa izaten dute: 8, 20, 50 gehienez. Eta sinetsi ezinezko dentsitatea: milaka milioiko tona zentimetro kubikoko.

Hori dela bide, izar hauetatik ihes egiteko abiadura argiaren erdia izaten da; alegia, 150.000 km/s.

“Zulo beltzetan”, muturreko egoeran, argiak berak ez dauka izarretik jaregiterik; S. Hawking britainiar fisikari ospetsuak hori gerta dadin zirrikitu bat sumatu uste badu ere. Eta harritzeko moduan biratzen dute, jaió berritan batez ere.

Vela konstelazioko pulsar “zaharrak”, adibidez, 11 bira bakarrik egiten du segundoko; eta CP0950 zaharragoak, are gutxiago: 3,95 b/s.

Karramarro Nebulosa famatuaren erdigunekoak, aldiz, oso “gaztea” delako (mila urte eskas duela zehazki dakigu), 33 bira egiten du segundoko; eta moteltzen ari dela ziur dakigu, teoriak ondorioztatzen duenaren arabera.

Maila berean, berriki (2003) aurkitutako EXO 0748-676 neutroi-izarrak (bikoteen sailekoa), 45 b/s egiten du, erradioa 11,5 km duenarik.

Orain arte txapelduna izan den pulsarrak (PSR 1937 + 21 izenekoak) 641 b/s-ko abiadura du.

Baina oso berriki aurkitu den **Terzan** multzokoak, PSR J1748-2446ad deritzonak... 8 km erradio, 716 bira egiten du segundoko! Munstro galanta.

Gure Galaxian, bestalde, 100.000 pulsar bide dago. Zaharrrak gehienak. Eta horien artean 50 bat besterik ez bide daude maiztasun handikoak.

Zeharo pulsarrez beste muturrean, motela da Eguzkia; mantso-mantso biratzen baitu: 25,38 egunetan behin. Eta erlatiboki handia diametroz.

Betelgeuse super-erraldoia, esate baterako (alpha Orion), 400 aldiz handiagoa da Eguzkia baino. Alegia, 280 milioi kilometrotako erradioa du; Eguzkiarena 700.000 kilometro izanik. Eta bolumenaz, hortaz, 64 miloi aldiz handiagoa.

Antares super-erraldoi gorritzak, berriz, 330 aldiz handiagoa, 231 miloi kilometrotako erradioa du. Gogoan har, nolnahi ere, Lurrak bere orbita burutzen duenean, Eguzki-

tik 150 milioi kilometrotara egiten duela. Izarraren barruan mugituko ginатеke!

Baina bada handiagorik.

Zeta Aurigae deritzonak 1.400 bat milioi kilometrotako erradioa du. Kasu honetan, Saturnoren orbita kokatu ahal izango litzateke izarraren barruan.

Horien aldamenean, txikitxo gertatzen da gure Eguzkia.

Tamainaz horren erraldoiak izan ez arren, nabarmenak dira beren *distirarengatik* oso ezagunak diren izar batzuk: **Aldebaran, Rigel, Arcturus, Capella** eta abar.

Rigel, hasteko, 23.000 aldiz distiratsuagoa da Eguzkia baino.

Eta hala ere Eguzkiaren indarra, erreakzio termo-nukle-arretan sortua, txundigarria da erabat. Funtsean hidrogenotik helioa sortzekotan segundoko 2 milioi tonelada xahutzen baitu.

Eguzkia luzerako abian

Guztiagatik ere, Eguzkiak bere masaren %0,3 baizik ez du eralgi; eta bere horretan jarraituz oraindik beste 3.500 milioi urtez iraun dezakeela kalkulatzen da.

Orduan hasiko da Eguzkiaren hedakuntza, berau izar erraldoi bihurtu arte.

Lurraren orbitari dagozkion 150 milioi kilometroak aise gaindi ditzake, itxura denez; Merkurio eta Artizarra segurki, eta Lurra bera menturaz, osoki irentsiz eta deuseztatuz.

Esan beharrik ez, hedakuntza hau gauzatu ahala, dena kiskali, eta bizia erauzita desagertuko dela Lurretik.

Eta oraingoz hipotesi mailan baizik agertzen ez bada ere, plegu horren lekuko izango garela dirudi (ikus *Ciel et Espace*, 402, 2003ko azaroa, 27-29 or.).

V838 Monoceratis kasua

V838 Monoceratis erraldoi gorriak horrelako irensketa ikusgarria eragin bide zuen 2002 urtean.

Hidrogenozko bere edukia amaitzean, izarren teoriak irakasten duen hedakuntzan barrena abiatu zen. Eta hiru leherketa harrigarri erakutsi zuen segidan: urtarrilaren 6an lehendabizikoa, otsailaren 2an bigarrena, eta martxoaren 5ean hirugarrena.

Hiru flash erraldoi horietan Eguzkiaren distira baino 600.000 aldiz handiagoa iritsi zuen.

Lehergunearan litio aztarnak agertzeak erakusten omen du garbikienik Monoceratisen inguruko lehenengo hiru planetak irenstean gertatu zirela hiru distiraldiak.

Alegia, V838 sistemako Merkurio, Artizarra eta Lurra planeten kideak elkarren segidan irentsi balitu bezalaxe.

Edonor pentsakor uzteko modukoa.

Horrelako gertakari kataklismiko baten data urrun bada ere, milioika urtetan hozitutako biosfera guztia (gizateria, eta honen ondoko leinu edo espezieak oro) erraustuta gertatutako direla jakiteak ondorio ezin larriagoak ditu maila filosofikoan.

Eta berriro ere gizona, luzaz edoski izan ditugun ametsak funsgabetuz, arrotz agertzen zaigu kosmosean.

Karramarroaren leherketa

1054ko uztailaren 4an edonor txunditzeko adinako gertakari bat ikusi ahal izan zen zeruan.

Izar distiratsu bitxi bat agertu zen, eta 23 egunez, baita eguerdi iriko orduetan ere, bazterrak argitu zituen; eta ondoko beste 22 hilabetez jarraitu ahal izan zen.

Astronomoek kalkulatu dutenez, izar hark $m = -6$ magnitudea iritsi zuen.

Sirius izarrik distiratsuenak $m = -1,46$ baizik ez du lortzen.

Eta planeten artean, urrun kokatzen dira bi argitsuenak: Jupiterrek $m = -2,7$; eta Artizarrak, bere gorenean, $m = -4,5$ magnitudea.

Magnitudeon eskala logaritmikoa denez, guztiz fenomeno aparta izan zela ondorioztatzen da.

Garai hartako astronomoek harriturik begiratu zuten izar berriaren eboluzioa. Yang Wei-Te txinatar begiraleak ikuskariaren berri eman zuen zehazkiro: “Xi aldiko lehenengo urtean, eta bostgarren ilargikoan, Txi-Txu egunean, Tien-Kwan izarraren ondoan, itsasargi moduko izar bat agertu zen”. Gaur dakigunez, Taurus Dsedaz ari zen.

Garai hartako nipondar eta arabiar astronomoek ere gertakariaren berri utzi digute. Orduan Antso IV Gartzesek (Antso Handiaren semea) agintzen zuen Iruñean. Eta, nik daki-dan apurraz behintzat, gure arbasoek ez zuten gertaera harrigari hartaz ezelako aztarnarik utzi. Gure auzoek ere ez.

Gure europar harropuzkeriari gaitzi zaion arren, Europatik ateko zibilizazioek bakarrik erreparatu zuten gertakari historikoa.

Supernova hark utzitako arrastoari M1 deritzo katalogo-
etan; edota, herrikoia, Cancer edo Karramarroaren Nebu-
la. Kataklistimo beldurgarri horren aztarna Taurus konstelazio-
an dago; Galaxiaren gunetik urrun, eta gugandik 6.500 argi-
urtera (beraz, 60.000 bat bilioi kilometrotara).

Oraindik gaur egun, leherketa hura gertatu eta ia mila ur-
tetara, espazio aldera urruntzen diren gasek, 1.300 km/s-ko
ziztuan egiten dute.

Lurrera 1054 urtean iritsi ziren fotoiek, milaka urte lehe-
nago gertatutako leherketa super-erraldoiaren lekukotza ze-
karkiguten; Egipto Zaharreneko eraikuntzen garaian burura-
tzean abiatuak.

Nolako leherketa izan zen hura, ezin hitzez adieraz.

Astronomo batzuek trilioika bomba atomikoren mailako
zerbait izan zela diote.

Beste batzuek, aldiz, beste honetara adieraziz: Eguzkiak
zenbait urtetan barrena hedatutako erradiaketa osoa bidali
zuela supernova hark segundo bakar batean.

Edota honetara: Eguzkia baino mila milioi aldiz distira-
tsuago bihurtzen direla supernovak, bat-batean bera dagoen
galaxia osoa baino argitsuago bilakaturik.

Karramarroaren Nebulak hedadura gaitza iritsia du, 12
argi-urte diametroko gas hodeia sortuz.

Hala ere, distantziaren ikaragarria dela-eta, dagoen le-
kuan eta begi hutsez ezin daiteke deusik ikus; $m = +8,4$ mag-
nitudea baizik ez duelako. Eta $m = 6$ tik aurrera, ezer ikusiko
bada, prismatikoak bederen behar direlako.

Lehergunetik urrun ginen, eta ezer berezirik ez genuen nabaritu. Horretan funtsatzen da horren maiz poetek aipatzen duten “zeruetako bake isila”... Gure miopia, gure itsutasuna zehazkiago, olerki iturburu. Alimaleko eztandak, gelditasun arraro...

Geroztik gure Galaxian lehertu diren supernova bakanek ere oso urruti harrapatu gaituzte (1604ko Keplerrenak, esate baterako).

“Beharrik!” esan beharko.

Urrunagoko supernovak

Are urrutiago, jakina, beste galaxietan gertatu direnak.

Magallanes Hodei Handikoak (Nubecola Maior), esate baterako, 1987ko otsailaren 24koak, urte osoan iraun zuen begi hutsez ikusteko moduan, $m = +2,8$ ko magnitudea iritsi zuelako.

Baina, jakina, berau ere, “urrunsko” lehertu zen: 160.000 urte-argira... Eta Ipar Hemisferiotik, gainera, ezin ikus.

Dena dela, ohar hau egin behar orain 1987ko supernovaz. Leherketa hau, gertatu, Neanderthal arbasoen garaian gertatu zela; nahiz guk oraintsu arte ez erreparatu.

Eta beste ohar hau ere bai: izar leherkor horietan ez beste inon sortzen direla gure munduan (are gure soinean ere) ezinbestezkoak ditugun elementuak: kaltzioa (20), burdina (26), nikela (28), iodoa (53), eman dezagun; eta besteak: erradioa (88), eta uranioraino (92).

Edozein pentsaera moldatzerakoan ezinbestezko datu zaizkit hauek. Baina ideia hau nagusi beste edozeren aurretik:

unibertsoan aurkitzen diren elementuak eta guk Lurrean bertan aurkitzen ditugunak, berberak direla.

Honetan ere arrunta da Lurra. Ezer apartekorik ez.

Baina itzul gaitezen “etxera”; Eguzki Sistemara, alegia.

Bakarrik al gaude geure Eguzki Sistematan?

Bi ataletan eman beharko dugu erantzuna.

Lehenengo multzoa osatzen duten sei planetetan, erantzuna ezezko borobila izango da. Eta ez gara erruz luzatuko.

Bigarren multzoak, berriz, elementu bakarra du: Marte planeta. Eta honi dagokion erantzuna “ez, baina” izango da. Eta xehekiago azalduko dugu, astronomoen arreta oso bereziki jarria baita Marten azken urte hauetan.

Goazen banan-banan, Eguzkitik abiatuz, panorama gainbegirada batez argitzen.

Sei planeta arrotz

Merkurio dugu lehendabiziko planeta, hasteko.

Eguzkitik 58 milioi km-tara jiratzen ari. Oso orbita luzairean. Ekzentrizitate handiaz: $e = 0,206$. Perihelioan, $q = 69,82$ milioi km.

Inguraketa 88 egunetan burutzen du.

Merkurio planeta txikia da ($r = 2.440$ km); Ilargiaren parekoa ($r = 1.738$ km) gutxi gorabehera.

Bere buruaren biraketa 58,6 egunetan egiten du.

Nekez ikus daiteke ($m = +0,0$); eta garaiaren arabera egoten da edo kiskalita ($T = +430^\circ$), edota hormatuta ($T = -183^\circ$).

Atmosfera arrastorik ez du ia-ia (bilioiren bat bar gainazalean). Eta sateliterik eta eraztunik ere ez.

Gainaldea kraterrez josia dauka; guztiz Ilargiak bezala. Haren eta honen fotoak elkarretarik bereizi ezinak dira, erabat berdinak.

Bizi aztarnarik ez, jakina, baldintza horietan.

Artizarra edo Venus dugu bigarren planeta.

Eguzkitik 108 milioi km-tara burutzen du bere jiraketa. Lurraren mailako erradioa du ($r = 6.052$ km); eta bere buruaren biraketa 243 egunetan burutzen du.

Zeruko objekturik argitsuena da ($m = -4,7$ gorenean).

Berotoki-efektua dela-eta, gainaldea oso beroa du ($T = 460^\circ$). Anhidrido karbonikoak sortzen du, atmosferan %96,54 CO_2 dagoelako, gainerako apurra nitrogenoa delarik.

Gainaldean presio ikaragarria dago: $p = 92$ bar, itsaspeko 900 metro sakonerakoa.

Urte hauetan bidalitako zundei esker jakin dugu hodei geruza lodiaz behera zer dagoen.

Sateliterik ez du Artizarrak, eta eraztunik ere ez.

Bizi aztarnarik ez baldintza horietan.

Jupiter dator 5. lekuan.

Eguzkitik 778,3 milioi km-tara egiten du bere jiraketa 11,862 urtetan.

Eguzki Sistemako planetarik handiena da (71.492 kilometroko erradioa ekuatorean; eta 66.854 km poloetan); eta, oro har, gasezko bola eskerga da.

Bere buruaren inguruko biraketa harritzeko moduko ziztuan burutzen du: 9 ordu eta 50 minutu. Eta honetxek azaltzen du Jupiter oso planeta txapaldua izatea.

Distirari dagokionez, Artizarraren ondokoa da (zeruko bigarrena) $m = -2,7$ magnitudea irits dezakeelarik.

Bere erdigunean oso beroa bada ere ($T = 20.000^{\circ} \text{C}$), eta sekulako presioa duena ($p = 45$ milioi bar), azaleko hodei urrunetan guztiz hotza da ($T = -143^{\circ} \text{C}$).

Jupiterren konposizioa oso adierazgarria da (H, %89,8; He, %10,2). Hain zuzen hastapenetan Eguzki Sistema sortu zen makro-diskoaren plegukoa; eta beste izar askoren sorreran aurkitutako bera.

Jupiterren masa guztiz handia da; 318 aldiz handiagoa gure Lurrarena baino.

16 satelite ditu (gutxienez). Aspaldidanik ezagunak ditugun 4 galileotarrak daude: Io, Europa, Ganimeses eta Callisto, kanporantz goazelarik aurkezten baditugu. Eta Voyager bi zundek berrikiago aurkitutakoak.

Eraztun ahul bat ere badu.

Gainaldean sekulako haizeteak daude ($v = 650$ km/ordu). Eta sortzen diren zikloi ekaitz erraldoiek (Hodei Gorriak, bereziki, tamainaz Lurra baino zabalago) mendeetan barrena irauten dute.

Bizia egoteko Jupiterren ez da giro; eta sateliteetan ere ez.

Saturno da 6. planeta.

Eguzkitik 1.427 milioi km-tara burutzen du bere jiraketa 29,457 urtetan.

Ia-ia Jupiterren tamainakoa da: erradioak 60.270 km eta 54.365 km, hurrenez hurren ekuatorean eta poloetan; eta bere eraztunek famatu dute.

Saturno, Jupiter bezala, gasezko esfera eskerga da.

Oso azkar biratzen du bere buruaren inguruan ($t = 10$ ordu eta 14 minutu). Eta, honetan ere Jupiter bezalatsu, oso txapalduta dago, gorago emandako bi erradioak alderatuz ondoriozta daitekeenez.

Distirari dagokionez, ozta-ozta iristen du $m = -0,4$.

Saturno oso hotza da ($T = -195^\circ \text{C}$); eta hidrogenoz (%96) eta helioz (%4) osatua da.

Hiru eraztun eskerga ikusgarri ditu inguruan; eta beren artean Cassini-ren tarte hutsa dago. Honetaz bestaldera oso ongi ikus daiteke planetaren bola, itzalean zein eguzkitan, fasearen arabera.

Saturnon are Jupiterren baino haize gogorragoak daude: $v = 1.800 \text{ km} / \text{ordu}$.

Gehiago izan badaitezke ere (46 zenbatu uste dute batzuek), gutxienez eta ziur 20 satelite ditu.

Titan deritzo famatuenari. Izariz ($r = 2.575 \text{ km}$) Jupiterren inguruko Ganimedesen kidea lirudike ($r = 2.631 \text{ km}$). Baina Ganimedesek atmosfera mehe-mehea besterik ez duelarik, metanozko atmosfera lodi mardula du Titanek.

Titan guztiz hotza denez ($T = -180^\circ$), han aurkitu diren ibar-arroak metano urtuaren emaitza direla uste da; hango

metanoa, hemengo uraren kidea izanik. Adibidez: Titanen euria ari duenean, metanozko tantoak erortzen dira; eta hango uholdeak metanozkoak dira.

Hitz batez, Saturnon eta Titanen nekez aurkitu ahal izango dugu bizi arrastorik.

Urano dugu 7. planeta.

Eguzkitik 2.870 milioi km-tara egiten du bere jiraketa 84 urtetan, eta bere buruaren biraketa 17 ordu 12 minututan.

Urano ere gasezko beste bola eskerga bat da (H, %83; He, %15, gainerako apurra metanoa delarik). Eta 25.559 km-tako erradioa iristen du.

Eguzkitik oso urrun dabilenez, oso tenperatura hotzak jasaten ditu ($T = -197^{\circ}$).

Atmosferan hegan dauden metanozko kristalek erradiaziorik gehienak irensten dituzte; eta urdin berdaxkak bakarrik uxatzen. Honetxek azaltzen du Uranoren kolore urdinxka.

Gunea silikatoz oratua da.

Bere ikus magnitudea $m = +5,5$ izanik, oso nekez errepara daiteke prismatikoen laguntzarik gabe.

11 eraztun ditu eta 17 satelite txiki. *Titania* handienaren erradioa 789 km besterik ez da.

Hemen ere, beraz, bizi aztarnarik ez.

Eta **Neptuno**, azkenik, sistemako 8. planeta da.

1846ra arte ezezaguna, are urrunago egiten du bere jiraketa ($d = 4.500$ milioi km), 164,8 urtetako “urtea” izanik.

Neptuno ere, aurreko beste hirurak bezala, gasezko bola erraldoia da (H, %85; He, %15); erradio handia iristen du ($r = 24.704$ km); eta azkar biratzen du bere buruaren inguruan ($t = 16,1$ ordu).

Begi hutsez ezin ikus daiteke ($m = +7,8$); eta honek azaltzen du antzinatean ezaguna ez izatea.

Neptuno oso hotza da ($T = -220^\circ$ C).

Zortzi satellite ditu. Triton ezagunena ($r = 1.353$ km); eta biraketa kontraka egiten duena, aspaldian kanpo aldetik itsatsitako objektua dela iradokiz.

Kolorez urdina da (Urano bezalatsu), eta 8 eraztun ditu.

Esan beharrik ez: baldintza horietan bizi arrastorik ez.

Eta balantze eginez, sei planeta hauetan behintzat, gizona eta bizia bera arrunt arrotz.

Zer diote astronomoek Marte planeta gorriaz?

Martitz edo Marte, Eguzki Sistemako laugarren planeta, Lurraren ondokoa da, eta Jupiterren aurrekoa.

Planeta erraldoi gasezkoekiko kontrakarrean, Merkurio, Artizarra eta Lurrari bezala, terrestre edo teluriko deritzo Martitzi ere.

Kolore gorritzat burdin oxidoei zor die.

Eguzkitik 227,9 milioi kilometrotara (balio ertaina) biratzen ari, bere “urtea” (bere Eguzkiaren inguraketa, alegia) gure 1,881 urtetan burutzen du (edota gure 687 egunetan). Orbita eliptiko samarra du ($e = 0,093$); eta, ondorioz, afelio-

an 249,1 Mkm-tara egon ondoren, 206,7 Mkm-tara egotera pasatzen da.

Bi hemisferioen urtaroak, horregatik, Lurrekoak baino askoz desberdinoak dira; eta, hori dela bide, Iparburuan eta Hegoburuan ikus daitezkeen kaskete zurien izariak ere, desberdinak dira.

Keplerren bigarren legea dela-eta, Hegoburuko uda, perihelioan kurritua laburra da (eta abiadura handiagoaz burutua); 154 “sol” baizik ez du irauten (“sol” = Marteko egunari ematen zaion izena); eta “epel” samarra da. Aldiz, negu luzea dagokio: 178 sol.

Iparburuko uda, alderantziz, lehenengo hurbilketan, afelioan mamitua, luzea da; 178 solez irauten du; eta oso hotza da. Baina negu laburra datxekio (154 sol). Kaxketetan, ageri denez, ez dago simetriarik.

Marte gure Lurra baino txikiagoa da. Erradioa 3.397 km, vs. 6.358 km gurean.

Txikitasun hori masaren aldetik ezagun da (%10,7); baita bolumenarenetik ere (%15,1).

Marte txikiagoa izanik, lehenago hoztu zen Lurra baino.

Ez da pentsatu behar, hala ere, Marte planeta txikia denik. Beraren gainaldeak 145 milioi kilometro ditu (700 aldiz Euskal Herriaren hedadura; 15 aldiz Europarena). Dentsitatea txikiagoa du Martek (3,94 vs. 5,52). Burdina gutxiago dago Marten Lurrean baino; eta honek ondorio garrantzitsuak ditu magnetismoaren aldetik.

Denak ematen du aditzera Marten kanpo magnetikoa oso aspaldi galdu zela: planeta sortu eta berehalatik; 3.800 milioi

urte, eman dezagun. Eguzkitikako izpiak eta “eguzki haizea” deritzona aspaldidanik iristen dira lasai Marteren gainaldera.

Bi dentsitateen arteko diferentzia hori adierazgarria da planeten konposizioari dagokionez, eta burdinaren proportzioaren desberdintasuna salatzen du.

Marte Eguzkitik urrunago dagoenez, bestetik, Lurra baino aise hotzagoa da: tenperatura ertaina -63° C izanik, muturrak 0° eta -120° dira. Ura, beraz, izatekotan, izoztuta dago gaurko Marten; eta anhidrido karbonikoa bera ere normalean hormaturik.

Posizioaren eta distantziaren arabera, azkenik, ikus-angelua aldatu egiten da: $13,5''$ tatik, $25''$ tara. Eta dagozkien magnitudeak bide beretik $m = +1,8$ tatik, $m = -2,8$ tara. Mementorik onenetan Jupiter eta Artizarra besterik ez dago ortzean Marte baino argitsuagorik.

Marten noiztenka ageri diren hodei zuriak izotzezkoak izaten dira; eta horiak, berriz, hautsezkoak.

Dagoen atmosfera apurra bi gazez oratua da: karbono dioxidoa CO_2 (%95,3) eta nitrogenoa N_2 (%2,7); ia-ia Artizarrean aurkitzen diren *hein berean*. Ez, jakina, presio orokor berarekin: Artizarrak presio gaitza jasaten du, Martek, aldiz, ia-ia hutsarte hutsean dagoelarik.

Marten karbonatorik ageri ez denez, berotegi efektua aspaldian amaitu zela ikusten da.

Martek lusagar itxurako bi satellite itsusi ditu: *Deimos*, urrunena, 15 km luze; eta *Phobos*, hurbilena, 27 km Biek erakusten diote beti alde bera planetari (guri Ilargiak bezala, beraz).

Gaur egun foto ikusgarriak ditugu: bai Marteren gainaldearenak, bertan hartuak; bai ikerketan ari diren “Spirit” eta “Opportunity” robotek bertatik sateliteei ateratakoak.

Marteren fotoei begiratzean hartzen den lehendabiziko inpresioa hau da: kolore gorritzat salbu, bigarren Ilargi batean gaudela. Tamaina desberdinetako kraterrak ikus ditzakegu bazter guztietan, hauts gorrixkak betetzen ditu harri koxkorren arteko zirrikituak; eta, noizean behin, gainaldetik gora altxatzen dira zirimolak, haizeak eraginik.

Hondamendi oso eta etsiaren irudi bat bilatuz gero, hoberik ez jadanik, koloretan, argitaraturik dauden argazki gupidagabeak baino. Ikus, adibidez, *Ciel et Espace* hilabetekarian, 422. zb., 2005eko uztailekoa.

Deplauki aitortua izan denez, *bizi aztarrenen aurkikuntza* izan da 30 urte hauetan Martera bidalitako dozenaka zunden eta lur-roverren helburu nagusia.

Hots, oraingoz bederen (2006ko udaberrian) porrota baizik ez dute bildu. Gaurko bere horretan Marten bizirik egotea *ezinezkoa ere* badela esan liteke.

Aspaldiko denboretan ere bai?

Eta erantzuna, ahobatez, bestelakoa da. Antzinako Marten bizia egotea posible da oso. Tenperatura beroagoa egon zen antzina; eta *beharrezko oinarria den ura ere* luzaz egon zela jotzen da gaur.

Aste hauetan aipatu da behin eta berriz, Spirit zundak erakutsi duenez Gusev kraterra, gaur Ilargikoaren parekoa itxuraz, laku bat izan zela aintzina, eta Ma’adim ibaiak ureztatzen zuela.

Ozeanorik ez, ikertzaileen ustez. Baina, ziurta daitekeenez, laku mordo bat bai, eta ibai galantak, geroago erakutsiko dugunez. Kolore gorrixka, azkenik, jadanik adierazi dugunez, burdinazko oxido batek sortzen du: *hematites* izenekoak.

Mars, Viking, Mariner zunda sailen kondaira xehearen eta jasandako porroten berri emateak urrutiegi eramango gintuzke.

XXI. mende honetan Martera bisitari izan diren hirurak aipatuko ditugu bakarrik:

Mars Odyssey. Jaurtiketa: 2001eko apirilaren 7an.

Mars Express. Jaurtiketa: 2003ko ekainaren 2an.

Mars Reconnaissance Orbiter. Jaurtiketa: 2005eko abuztuaren 12an. Berriki Martera ongi iritsia: 2006ko martxoaren 11n.

Helburu laukoitza esleitu zaie:

1. Ura aurkitzea; izoztuta, jakina.
2. Mapa orokor eta zehatz bat osatzea ($d = 200$ m).
3. Marten lur hartzeko eskualde egokiak bilatzea.
4. Aspaldiko urak utzitako aztarnak. Buztinen eta silikatoen berri bereziki.

Bidenabar, esan beharrik ez, Marteren inguruan sortutako mitologia faltsuaren ezeztapena burutzea. *Schiaparellik* 1877an espantu handiz aldarrikatu zituen “canalli” ospe-tsuak, esate baterako, behin eta betirako ezestea, irudimenaren emaitza hutsa izan direla garbi utziz.

Eta, bide bertsutik, Percival Lowell astronomizaleak bere ondasunak oro Flagstaffen (Arizona, U.S.A.) eraikiarazitako

behatoki pertsonaletik “aurkitu” omen zituen ubideak eta lan hidrauliko eskeragak, bere kaskoan eta beste inon ez zeudela frogatu da urte hauetan.

Aldiz, benetakoa da Olympus Mendia deritzon sumendi itzalia, edozein mementotan laba botatzen hastekoa. Eguzki Sistemako handiena da gainera: 26.000 metro gora, 80 kilometro diametro bere oinarrian.

Eta benetakoa da, eta harrigarria, Vallis Marineris deritzon arroila aparta: 4.000 km luze, 200 km zabal eta 7.000 metro sakonerakoa. Arizonako Colorado Canyon famatua txikitxo gertatzen!

Bide beretik, ondorio segurutzat har daiteke Mangala Vallis izenekoa ibai baten isurbidea izana dela.

Lurrean ez bezala, berriz, Martek ez du ozonozko geruzarik. Hori dela-eta, izpi ultramoreak indartsu iristen dira Marteren gainalderaino, bertan legozkeen bizi arrastoak oro erauziz, eta beroriei datxezkien ekai organikoak berak ere suntsituz.

Bizia aurkitzekotan, hitz batez, edo osagai aminatuak, adibidez, eskualde oso berezietan baizik ez dira agertuko. Segurkiago lurrazpiko metro pare baten sakoneran. Agian bakterio “chemo-litho-autotropho” delakoen pleguko zer-bait ager daiteke halako batez txoko honetan edo hartan.

Bi aurkikunde aipagarri

Aipamen berezia merezi dute, honetaraz gero, 2004 eta 2005 urteetan burutu ziren bi aurkikunde nagusik.

Bata, *Opportunity* izeneko berebilare gurpildunak lortu du 2004ko udazkenean Terra Meridiani eskualdean. Halako “ahabiak” topatu ditu (frantsesez “Myrtilles” hitza darabilte).

Bizpahiru milimetrotako bolatxo grix ñimiñoak dira; leku askotan behin eta berriz fotografiatuak eta ikertuak. Oraingoz behintzat ez diete astronomoek jatorri organikorik sumatu. “Konkrezioak” direla diote. Baina arras bitxi agertzen dira.

Bestea urari dagokio.

Aspaldidanik jotzen zen Marten ura izana dela. Hain zuzen, Saturnoko Titan satelite hormatuan ere ura aurkitu da berriki; eta kometetan ere bai.

Hala ere, guztiz ikusgarri, eta 2005eko abuztuan prentsa berezituak eta arruntak batera aldarrikatua, hauxe izan zen: izenik gabeko krater bateko zolan (35 km diametro) izotzezko laku borobil zuri-urdinxka bat fotografiatu zuela, Iparburutik hurbil, orbitan jiraka ari den *Mars Express* zundak.

Izari handikoa da: 12 kilometro, eta 200 bat metro sakonkoa.

Horra hor argi eta garbi Marten ura **ziur** egon dela bermatzeko falta zen azkeneko froga: laku handi bat izoztuta.

“This boosts plans to send a manned mission to Mars”, bota zuen prentsak lau haizeetara. Giza bidaia bat prestatu behar dela ahalik eta azkarrenik.

26 hilabetero errepikatzen da jaurtitzeko egokiera.

Hautatzen hasi behar...

Gauden beha, beraz. Sorpresen ilara ez baita amaitu.

Exoplaneten aurkikuntzaz

Katalogatutako exoplaneten kopurua gora doa etengabe. 2006ko otsailean hauxe zen zifra: 180. *Ciel et Espace* hilabetekariaren 449 zenbakian esaten zaigunez, 2007ko irailaren leian hauxe da egoera: 249 exoplaneta detektaturik.

Areago. Kanpoko “exoplaneta” horien aurkikuntza, azkartzen ari dela esan behar da. Orain dela 2 urte, esate baterako, exoplaneten kopurua 120 zen.

Gauza bat atxiki behar da kontuan: sumaturik ere, frogarik ez genuela 1995eko irailera arte, Eguzki Sistematik kanpoan beste planetarik zegoenik.

Exoplaneton zerrenda Michel Mayor eta Didier Queloz suitzar astronomoek zabaldu zuten data horretan.

51 Pegasi izarraren inguruan jiraka planeta handi bat (Jupiterren masaren 0,47) aurkitu zuten.

Suma zitekeenez, aurkikuntza hau izar “hurbil” batean lortu zuten (51 Pegasi izenekoak gugandik 50 argi-urtera dago). Planeta, bestalde, gure Lurra Eguzkitik baino askoz bertago ari da jiratzen: 7,5 milioi kilometrotara bakarrik. 20 aldiz bertago, beraz.

Oro har, oso planeta bitxiak dira zerrendetan agertzen direnak.

1996 urtean bertan, Marcy eta Butler astronomoek beste bi exoplanetaren berri eman zuten. Batetik **47 Ursa Maior** izarraren inguruan, gugandik 46 argi-urtera, Lurra baino askoz handiago bat dago: Lurra baino 890 aldiz masa handiagokoa. Eta, urte berean, beste bat aurkitu zuten **70 Virgo** izarraren inguruan, gugandik 59 argi-urtera. Be-

rau ere, Lurra baino aise handiagoa: 2.100 aldiz Lurraren masa.

Oro har, oso handiak dira exoplaneten zerrendetan agertzen direnak, eta gasezkoak seguru aski. Bestetik, oso orbita hurbiletan mugitzen dira.

Baduke bere eragina topatzeko erabiltzen den teknikak berak. Metodo horiek finduko eta bestelakotuko ez direno, ez bide dugu exoplaneta “normalagorik” hautemango.

Distantzien arazoak, batetik, ez du konponbiderik. Ikertu behar diren objektuak *ehunka bilioika kilometrotan* daude. Zerrendako hurbilenetakoa **Lalande 21185** deritzon dago, 8,23 argi-urtera. Gehienak askoz urrutirago.

Eta beste arazo gaindigaitz bat ere badago: izarrak mila milioi distira handiagoa hedatzen duela planetak baino; eta, beraz, ikusezin bihurtzen dela exoplaneta.

Zantzu esperantzagarriak badaude zerrendetan, hala ere.

Ypsilon Andromeda izarreko exoplaneten sisteman, *hiru planeta* agertzen dira. Bigarrena eta hirugarrena, gainera, oso handiak izan arren, distantzia “normalago”an mugitzen bide dira: hurrenez hurren, 120 eta 400 milioi kilometrotara. Zifra hauek “etxeko” itxura dute.

Ez dago arrazoi garbirik, hitz batez, izar asko eta askotan planeta sistematik ez dagoela pentsatzeko. Alderantziz, exoplaneten kopurua gora joango dela sumatzen da jadanik; eta berauek mota desberdinetakoak izan daitezkeela zalantzan jartzea ausarkeria izango litzateke.

Gure Galaxian bakarrik **300 bat mila milioi izar** daukela gogoan hartuz, exoplanetak ere milioika egon daitez-

keela pentsatzea ez zait inondik ere zentzugabekeria iruditzen.

Zentzugabekeriatzat hartuko nuke, aitzitik, Eguzkiaren inguruan ezagutzen dugun gure eredu hau (hamar-hambost planeta, bere kometak eta asteroideak barne) **Galaxia-ko bakarra** dela aldarrikatzea.

Gaindi ditzagun behingoz eta betirako Ptolomeoren alienazioa eta antropozentrismoari datxezkion harrokeriaitsuak.

Besterik pentsatzera bultzatzen gaituzte zentzuak eta zientziaren historiak.

Abiatu berri dugun exoplaneten zerrenda hazkorrak milaka planetaren panorama aurkezten digu.

Izan dezagun egia aurrez aurre begiratzeko ausardia.

GALAXIETAN BARRENA

Belgika ez da lekurik aproposena izarrak behatzeko.

Eta hala ere Waterloo eman nituen bost urteetan (1965-1970) zerura begiratu izana gogoratzen zait.

Waterloo Bruselatik urrunsko (18 km Hegoalderantz), eta gure bizilekua zelai batean kokaturik, zenbait aldiz, zerua garden zegoenean, etxeko seiok (eta zakurra!) irten ohi ginen farolik gabeko ingurura; eta izarrak aurkitzen saiatzen ginen.

Izar batzuk, jakina, gutxi baikenekien. Errazenak. Hartz Handia eta Hartz Txikia kokatzen genituen; eta Arcturus, eta Lirako Vega, eta Deneb. Eta denok pittin bat astronomiazaletu ginela esango nuke.

Teleskopiorik ez genuen. Eta, beraz, begi hutsez ikus zitekeena begiratzen genuen bakarrik.

Orduantxe egin nituen lehenengo saiaketak tresnarik bati gabe ikus daitekeen Andromeda galaxia aurkitzen.

Brusela aldera begira jartzen ginen.

Hartz Handia udan topatzea erraza zenez, Merak-etik Dubhe-ra joan, Hartzaren organ, tarte hura bost aldiz neur-

tu (geure irudimenaz), eta hortxe Iparizarra, Hartz Txikiaren muturrean.

Hortik jaitsi, eta aise topatzen genuen Kasiopea, bere bost izarrez “W” itxuran ezaugarri. Eta hortik behereago... Andromeda!

Nekez. Zeren guk oso kostata lortzen baikenuen tatxa argitxo ahul xabal hari antzematea.

“Hor dago Andromeda, bai”, azaltzen nien etxekoei; baina osoki sinetsi gabe itzultzen ginen etxera.

Andromeda “gure Galaxiaren bikia” dela errepikatzen nien, gurea baino handiagoa ere bai, eta 400.000 milioi izar dituela. Baina gugandik 2.400.000 argi-urtera kokaturik, ozta-ozta sumatzen dela ezer.

Liburuetako argazkiak begiratzen genituen orduan, eta etsita aitortzen genuen... teleskopioren bat erosi behar genukeela.

Zoritxarrez, gaur arte behintzat, sekula egin ez dudana.

Astronomiaz dakidan apurra liburuetan eta aldizkarietan ikasi dut. Liburutako sasi-astronomoa naiz, beraz.

“Urteak joan, urteak jin”... berrogei, amateur gisa jarraitu ditut Astronomiaren gorabehera nagusiak, liburu honetako lehenengo kapituluan erakutsi dudanez.

2005eko apirilean, “Ciel et Espace” hilabetekariak harpidedunoi dohainik eskainitako oparia jaso nuen. Hubble behagailu ospetsuak lortutako fotoaren kartel handi bat zeterren (75 cm x 40 cm), koloretan, kartoizko bilkari batean kibrildurik; eta geroztik hortxe dago, neure bulegoko horma batean ezarria.

Astronomo guztiek diote Hubble behagailuak 1990ez geroztik lortutako milaka argazki harrigarriek gizonaren ikusmoldea bera aldatu dutela. Unibertsoaren eskerbaren berri bagenekien, jakin, baina 600 km gora birakako bere orbitatik, eta 2,40 metro diametroko ispiluaz baliaturik, lurrazaletik sekula ikusiko ez genuena erakutsi digu Hubblek.

Ezaguera hotzetik ikuspen zirrarsura pasatzean, zertasunezko jauzia egin dugula iruditzen zait.

Zeren arestian aipatutako argazkira itzuliz, zer agertzen da bertan?

10.000 galaxiatatik gora, mota desberdin guztietakoak: espiral batzuk, kumulu itxurako beste batzuk; eta horrela azkeneko sakoneran ozta-ozta agertzen diren beste ehunka ikus daitezkeelarik.

Foto liluragarri hori Hubble behagailuak zehazki nola lortu zuen azaldu digu Jérôme Fenoglio astronomo ospetsuak (*Le Monde*, 2005-IV-22, 24-25 or.).

Argazki bikainean ikus daitezkeen galaxia batzuk gugandik 13.000 milioi argi-urtera daude.

Hamaika eguneko esposizio luze baten ondorioz, eta 276 harraldiren elkarketaz lortu da emaitza hilezkor hori. Eta izendapenak berak adierazten du zehazkienik zer izan den: “Ultra Deep Field”.

Hots, zein eskualde fotografiatu zuen Hubblek? Nongoa? Zeru atal zabalekoa ote?

Hartz Handia hartu, eta Megrez izarraren ondoko gurenetxo batean, orgatik kanpo aldera, Phaeda izarretik urrunduz, hortxe dago “Ultra Deep Field” izeneko argazkiaren ikergune ñimiñoa.

Horren tamaina irakurleari nola sentiaraziko? Kartel-argazkian ageri dena, ortzeko puntu bat besterik ez da.

Besoa luzatu –proposatu dute H. Couper eta N. Henbestek (*Enciclopedia del Espacio*, 2003; 228)– eta Megrez izarraren ondoko gunetxo batean, orratz muttur baten buruak hartzen duen tamainakoa litzateke Hubblek begiztatutako mikro-eskualdetxo.

Hutsa!

Heda dezagun orain fotoan ageri dena ortze guztira, es-trapola dezagun, eta emaitza txundigarria da guztiz. Kosmo-sean milaka milioika galaxia daude.

Eta ziur dakigu hau. Alegia, ez da teoria batek edo bestek postulatzeko duena, fotografiatutako ortzeak erakusten digun lekukotza baizik.

Kosmologia gaur galaxien azterketatik abiatutik eraiki daiteke, eta eraiki behar da. Kosmologiak pentsarazi egiten du.

Baina ez da barne-iradokitzapenetatik abiatzen, tresna bidezko behaketatik baizik. Zerk dardaritzen gaitu? Gure hutsaltasunaren zorabioak.

Eguzkia gure galaxiaren barruan “beste izar bat” besterik ez dela erakutsi dugu aurreko kapituluan. Eta Galaxiak 300.000 milioi izar dituela. Eta Andromedak berak, esana dugunez, 400.000 milioi izar.

Kokagunearen aldetik ere, ezertan ez da “berezi” agertzen. Ez dago erdian, eta oso kanpoko aldean ere ez. Erdigunerainoko distantzia 27.700 argi-urtekoa da.

Berriro ere agur esan behar harrokeria mota guztiei. Etsi dezagun. Ez gara munduaren ardatza.

Gure Esne-Bidea ezin baztergabeagoa izan arren, “beste galaxia espiral bat” besterik ez da azken buruan.

Herri koskorretako festetan zezensuzkoa itzaltzera doanean, itxafero jirakorrek agurtzen gaituzte. Galaxiek ere, nabarmenki jiratzen ari, besoak arrastaka gisa daramatzate. Nahiz galaxietan, hori bai, jiraketak milioika urtetan burutzen diren.

Itxura kiribil horretantxe ikusten dukete gure Galaxia beste munduetatik.

Nola adieraziko hemendik balizko begirale horiei, hortxe gaudela gu, abandonaturik, eta sarri geure patuaz pentsakor?

Aski du irakurleak argitaratu diren katalogoetan txunditurik irudiak begiratzea.

Hor dugu M81 erreperetako, Hartz Handia konstelazioan, “hurbil samar”: 8,5 milioi argi-urtera; eta 1993an supernova baten emale.

Edo M82 deritzona, 11 milioi argi-urte.

“M” saileko hauek, badakigunez, “Messier” zerrenda klasikoaren erreperetako dira.

“C’est l’embarras du choix”, diote frantsesek. Dozenaka daudelako.

M101 izenekoa, adibidez, NGC 5457 ere bataiatua, 25 milioi argi-urtera. Berriki (2006-III) Hubblek inoiz baino xehekiago fotografatuta. Hau ere gure Galaxia baino handiagoa: 170.000 argi-urte luze.

Edota M51 (NGC 5194-95), 22 milioi argi-urte, “Canes Venatici” edo Ehiza-zakurrak deitua.

Edo M 104 errepererekoa, oso ikusgarria, “Sombrero Nebula” izenaz ere ezaguna.

NGC 2997, 35 milioi argi-urte. Gabriele Vanin-en foto bilduman, adibidez, zoragarri. Edota, formatu txikiagoan, Hervé Burillier-ena, ed. Bordas

Edo NGC 1566 (Seyfert motakoa), 50 milioi argi-urte. Argia handik guganantz abiatu zenean, urruti zegoen giza-kuntza: “Proconsul” tximuaren garaian gu...

Zenbait aldiz, “talka” baten ondorioz, bigarren galaxia bat ondotik erakarria ageri da: NGC 2207, esate baterako, ondotik IC 2163 dakarrelarik.

Ezinbestez onartu behar “hutsal” hitza geure buruaz mintzatzean; eta, horri atxikita, arestian erabili dugun “hutsalta-sun” berba.

Baina gaindi ditzagun geure zauskadak.

Zer dio jaiio berri samarra den Kosmologia zientifikoak?

Hauxe izango da ondoko lerroen azterkizuna.

Berriro diot: gogoeta batzuk iradokitzeko asmoa dut, eta ez, inolaz ere, kosmologiaren alorrean maisukiro idazteko. Otoi! Ez nago burutik egina.

Ongi ezagutzen ditut neure mugak, ongi dakit ez dakidala... ezer.

Eta has aitzin ohar hau: Kosmologia zientifikoa Albert Einsteinen eskuz sortu zela; beronek Erlatibitate Orokorra-ren teoria 1915ean ezagutarazi, eta Merkurioren perihelioaren prezesioa, ordura artean ulertu ezina, azaltzea lortu zuenean.

Esaldi hau ipiniko dut idazpuru: “Funtsean ikuspegi kosmologikoa da Erlatibitate Orokorra” (in *Histoire et Géographie de l’Univers*, Alain Blanchard, 5).

Eta Einsteinen Erlatibitate Orokorra aipatuz gero, bai Fisikaren alorrean, eta baita Matematikarenean ere, ezaguerak gaitzak izan behar direla ohartarazi behar. Nik ez dauzkadanak, derradan deplauki.

Baina albait zorrotzenik irakurri ditudan liburuak ditut lagun. Nola jokatu, bestela?

Eskuragarri diren (eta neronen zaletu-liburutegian dauzkadan) aldizkari eta liburu batzuen berri emanaz.

Has gaitzen aldizkarietatik.

Ciel et espace – 2004ko iraila – Hors-série.

Kosmologiaren alorra ezinbestean ukitzen da: “Ale berezi honen azkeneko atala –dio J.F. Robredo biltzaileak– preseski eskaini zaio Kosmologia zientifiko deritzonari”. Ikuspegi orokorra aurki daiteke.

Einstein bakezale eta intelektual konprometitua aurkezten da, Françoise Balibar-en lumaz (10-15); baita haren maitasun eta ezkontza arazoan berri ematen ere (Leila Hadad, 16-21). Einstein gizona baitzen aurrenik.

Garrantzitsuena Erlatibitateari buruzko partea da: “Les 10 notions clé de la relativité”, 42-63. Erantzuleen artean goren agertzen den Alain Blancharden lana topatzen dugu: “Big bang: la preuve par les faits”, 70-75. Baita J.F. Robredo biltzailearena ere: “La philosophie du big bang”, 82-87.

Science et Vie – 2005eko abuztua – “100 questions, 100 réponses: Relativité, big bang, physique quantique” – 68-139.

Les archives du Monde – “La révolution Einstein” – 66-79
– 2005eko martxo.

Goazen orain liburuetara.

Fundamentos de las teorías del espacio-tiempo, 1983an ingelesez Princeton U.P.k agertu, eta 1991n Alianza Universidad argitaletxeak espainierara itzulia, guztiz ona (455 or.).

Michel Friedmanek prestatua, Matematikak kikiltzen ez dituenek lan gotor bat aurkituko dute hor; Erlatibitate Orokorrean erabiltzen diren kontzeptuak beren jatorriaren arabera aurkeztuak: idazketa tentsoriala eta abar.

Giro berekoa, baina zailagoa ere bai, Edgard Elbaz-en *Cosmologie* – Paris, 1992 – 272 or.

Minkowskyren espazioa, Christoffel-en sinboloak, makurdura tentsorea, Bianchiren kidetza, Ricciren tentsorea, Einsteinen ekuazioak, etab.

Liburu bikaina, trinkoa, baita guztiz zaila ere. Einsteinek bere inguruan sortu zuen ulertu ezinaren beldur giroa, liburu hauen irakurreran konprenitzen da.

Askoz ere ulergarriago, beste bi liburu hauek gomendatzen ausartuko naiz: *Que sais-je?* saileko guztiak bezala, espezialista ezagunek idatziak:

La relativité – Stamatia Mavridès – Puf, Paris 1988 (2000) – 128 or. Aurkezpen klasikoa; eta formulen eta ekuazioen atzean funtsaren erakusle. Bigarren partean (93-128), Erlatibitate Orokorra aztertzen du, baita Merkurioren perihelioaren aurrerakuntza, masen eraginezko argiaren desbideraketa (Eddingtonen baiespena, 1919), eta abar ere.

L'univers – Jean Audouze – Puf, Paris 1997 (2000) – 128 or. CNRSko ikertzaile, Parisko Palais de la Découvertako jau-regia guztiz bisitagarri ipini duena; eta azkeneko aurkikunde-en jarratzaile. 80-128 orrialdeetan batez ere (“Le monde des galaxies”) txit interesgarria.

Ene ustez guztiz gomendagarria, eta ez zaila, jadanik aipatua dugun *Histoire et Géographie de l'Univers* – Alain Blanchard – CNRS éditions – Paris, 2001eko maiatza. Aparatu matematikorik gabe ideia nagusiak ulertaraztekotan idatzia. Eta neronek saiakera honetan erruz aipatzekoa.

Du Cosmos au Big-bang – Jean-François Robredo – Puf, Paris, 2006ko azaroa – 135 or.

Bide beretik beste liburu hau ere guztiz gomendagarria:

El legado de Einstein – Julian Schwinger (1987; esp. 1995). Scientific American liburu sailekoa. Oso emaitza zehatzetz hornitua.

Oso irakurgarriak, eta matematikazko baraderarik gabe prestatuak, Marc Lachièze-Rey kosmologo gorenaren bi lan hauek:

Connaissance du Cosmos – Ed. Albin Michel, Paris 1987. Hubert Reeves ezagunaren hitzaurre batez kaleratua. – 232 or.

Initiation à la Cosmologie – Ed. Dunod, Paris 1992 (eta 2004 arteko epe laburrean lau aldiz berrinprimatua). – 148 or.

El futuro del espacio-tiempo – Ed. Crítica, Barcelona 2003. Readings gisa artikulua mordo batekin: Stephen Hawking, Thorne, Noikov, Ferris, Lightman; gehi Richard Price koordinatzailea. – 216 or.

Eta azkenik, last but not least, bi liburu bikain hauek, nik neuk ahalean kontsulta gidatzat hartuak.

Mark Jones eta Robert Lambourne, ed. Cambridge U.P., 2003, 412 orrialde: *An introduction to Galaxies and Cosmology* bata. Neure saiakera honetan orpoz orpo jarraitua. Aparta zinez.

Datu pilaren emale, eta zehaztasunez zerturik, kapitulu honetan ukituko diren puntu guztiak azaldu, eta foto ederrez ilustratua.

Gure Galaxia zer den azaltzen da lehen kapituluak (3-60 orrialdeetan).

V. kapituluak, aldiz, Kosmologia du ardatz: “Introducing Cosmology: the Science of the Universe” (213-254).

Eta VI.ak Kosmologiaren hipotesi nagusia aztertzen du (255-306): “Big Bang Cosmology”. 1978ko Nobel Saria jasotako Penzias eta Wilson ikertzaileen berri zehatza ematen da, eta mikro-uhinen garrantzia azpimarratzen.

Ondoko kapituluetan Hubbleren konstantea nola kalkulatu den azaltzen da, eta dentsitate kosmologikoa eta materia/antimateria bikotearen arazoa.

Lan liluragarria; eta, iruditzen zaidanez, hezkuntza er-taina duen edonork aise jarraitu eta ulertzeko modukoa.

Hemendik aurrera irakurleak dauka azkeneko hitza. Nik neure apalean “puntuak” jarriko dut irakurri ditudanak baliatuz.

Eta biotan bigarrena beste hau: Marc L. Kutner-en *Astronomy: a physical perspective* – 2003, Cambridge U.P. – 582 or.

Kapitulu guztiak dira interesgarri. Baina guri dagokiguna bereziki kontuan hartuz, hauek izan daitezke mamitsuenak:

II. Relativity (special and general) – 123-153.

V. The universe at large (313-425). Kosmologiaz eta Big-Bang teoriak aztertzen dira xeheki.

Kapitulu bakoitzaren amaieran, burututako problemak datoz, baita irudi asko ere. Hemen, ordea, ez gara berorien azalpen luzetan barrena abiatuko. Horrek guztiak nigan sortu duen zauskadaren berri emango dizuet.

Unibertsoaren hedakuntzaz

1927an artikulu garrantzitsu bat idatzi zuen Georges Lemaître apaiz eta fisikariak Belgikako aldizkari batean. Gaia: Unibertsoaren egonkortasuna.

Einstein bere lagun handi eta ikerkide gorenak zenbait aldiz defenditzen zuenaren kontra (alegia, Unibertsoa aldakaitz eta iraunkorra dela), Lemaîtrek Unibertsoak ezinbestez hedatu egin behar zuela uste zuen; eta, hedakuntzaren ondorioz, urrutiko galaxien argiaren espektroa gorriantz lerratua ikusiko zela.

Artikuluak ez zuen oihartzunik izan.

Eddington astronomoak, ordea, Lemaîtreren iritzia zabalteza komeni zela uste izan zuen; eta ingelesez argitararazi zuen 1927an “Monthly Notices of the Royal Astronomy Society”aren aldizkarian.

Gatazka hori teoriaren mailan burutzen ari zen.

Baina handik urte askotara (1960 inguruan) are gotorki-
go finkaturik utzi zuen Stephen Hawking fisikari ospetsuak,
ez-egonkortasunaren eta hedakuntzaren beharra aurkituz.

Garai bertsuan, Edwin Hubble amerikar astronomoak
zeru behaketa nekagaitzez ekin zion bere ikerlan zabalari, ze-
feida izar aldakorrek aztertuz.

Berak zeukan teleskopio bikaina erabiliz (anartean mun-
duko handiena diametroz) sistematikoki galaxietatikako ar-
giaren espektroaren miaketa egin zuen.

“Hubbleren Legea” izenekoa aldarrikatu zuen 1929an.
Ongien ezagutzen ziren 24 galaxien datuak baliatuz, hau on-
dorioztatu zuen: “Galaxia guztiak ari dira gugandik urrun-
tzen”. Lachièze-Rey-ren hitzak errepikatu besterik ez dugu
egiten (*Initiation à la Cosmologie* – Dunod – Paris, 21).

“Aurkikunde hau –dio Blanchardek bide beretik– XX.
mendeko azpimarragarrienen artean dago” (Hist., 23).

Galaxia **guztiak** ari dira **gugandik eta elkarrengandik
urruntzen**, zenbat **urrutiago izan eta ziztu biziagoan**.

Salbuespen bakarra: “ondoko” galaxiak (Andromeda, adi-
bidez) ez dira urruntzen ari. Ez dira aski urrun –garbikiago
mintzatuz– urrunketaren fenomenoaz azal dadin.

Eta ideiak errotik astinduko zituen lege hau plazaratu
zuen: galaxien distantziak eta ihes-abiadurak proportzionalak
direla. Doppler-Fizeau baten aurrean ginela, alegia, eta eragi-
na orokorra zela. Ez zegoela lotuta galaxien inolako zertasun
edo ezaugarriekin.

Ez zen Hubble lehenengoa izan ikerbide honetan.

Vesto Slipher bere herrikideak 1914az geroztik iragarri zuen horrelako zerbait, eta 1917an jadanik hau zehaztu zuen: espektro gorriketa horiek jasaten duten objektuak gu-re Galaxiatik at daudela.

Kontrako jarrerak agertu ziren, eta urte luzeetan iraun; alegia, espektroen gorriketa horrek beharbada beste oinarriren bat izan zezakeela iradokiz.

Baina gaur egun guztiz finkatutako fenomeno da: galaxia urrunetikako argi uhinen luzera handitu egiten da.

Funtsean honetan zetzan aldaketa: unibertso aldakaitza-ren ideia alde batera utzi, eta unibertso **aldakor eta hedakor** batean gaudela hartu behar aintzakotzat.

Hubbleren konstantearen neurketa findu ahala, aldatuz joan da balioa. Hastapenean 550 eta 600 km / s.Mpc onar-tzen bazen ere, geroztik kopuru hori jaitsiz joan da. Gaur egun, Hubbleren zuzenaren maldatzat hau hartzen da:

$$H_0 = 72 \text{ km.s}^{-1}.\text{Mpc}^{-1} \text{ (A)}$$

$$\text{Mpc, Megaparsec} = 9,78.10^{11} \text{ [km]}$$

$$\text{Eta, beraz, } H_0 = 2,33. 10^{-18}.\text{s}^{-1} \text{ (B)}$$

Ikus Mark Jones, *Galaxies and Cosmology*, 379.

Lehenengo balioari (A) arrazoi historikoengatik eusten zaio. Baina bigarrenean (B) askoz garbikiago agertzen da balioaren izaria, maiztasuna alegia, eta Hz-etan neurtzen den balio baten aurrean gaudela.

Horren inbertsoak $1 / H_0$ ematen du “Unibertsoaren adina”.

Kalkulua eginda: 13.600 milioi urte.

Hauxe da normalean ikusten dugun kopurua.

Bidenabar, H_0 *handitzen* bada, Unibertsoaren adina *laburtu* egiten da. Eta alderantziz.

Kalkulu hauetan erabiltzen diren ihes-abiadurak, lehen-dabiziko urteetan batez ere, “txikiak” dira: alegia 0,2c baino gutxiago, esate baterako (edo 60.000 km/seg).

Hortik gora, ordea, Erlatibitatearen eraginak agertzen dira, eta Hubbleren linealtasunari utzi behar zaio (ikus Mark Jones, 192)

Baina beste arazo bat ere agertu da.

Batetik eta bestetik irakurtzen denez, **ihes-abiadura handitzen** ari da.

Ciel et Espace hilabetekariak bere azkeneko zenbakian (444; 2007ko maiatza) idazpuru hau dakar azalean: **L’expansion de l’Univers. Pourquoi elle accélère?** Artikulua Stéphane Fayk sinatu du, eta 26-30 orrialdeetan azaldu da.

Unibertsoaren hedakuntza gero eta abiada handiagoan gauzatzen ari bide da. Unibertsoa barreiatzen ari da, alegia, gesaltzen, lurruntzen. Eta berorren dentsitatea behera bide dator harritzeko moduan.

Ondorio kosmologiko ezin larriagoak izan ditzake honek. Unibertsoaren geroa dentsitate horren araberakoa izango delako, kosmologoek dioskutenez.

Gehiegi jaitsiz gero, Kosmos osoa suntsituko litzateke, lanbro hodeiak sargori lehorraren etorreran suntsitzen diren bezala.

Quasarrak

1963an idoro zen lehenengo quasarra; eta **3C273** izen-datu zuen Maarten Schmidt nederlandar aurkitzaileak.

Oso izarki berezia zelako bataiatu zuen “quasar” hitzaz, ingeles oinarriaren arabeko neologismoaz. Alegia: **quas-i** stell-**ar** source; funtsean quasaretan izar mota bitxi bat zegoela sinetsita.

Lehenengo begiraldian 13. mailako izar arrunta zirudien 3C273 hark, eta nekez ikusi ahal izateko modukoa (> 6).

“Red-shift” edo espektro-gorriketa nabarmena zeukan ($z = 0,158$). Eta uhin-luzamenduaren handiketa horri, Doppler-Fizeau legea dela-eta, distantzia harrigarria zego-kion: 660 Megaparsec. Hau da: 2.152 milioi argi-urte.

Andromeda galaxia (2,4 milioi argi-urte) “hurbil” dago horren ondoan (!).

3C273 quasarra ez zen, hitz batez, gure Galaxiako izarra inondik ere.

Hortaz, nola ikus ote dezakegu batere, orain dela 2.152 milioi urte gudanantz irtendako argia?

Geroztik quasarren aurkikunde aurrera joana da; eta zazpi bat mila dira dagoeneko katalogatutakoak.

Espektroko marren gorriketa neurtzeko z indizea erabil-tzen da: behatutako uhin luzera zati igorritakoa ken bat.

Galaxiak gugandik urruntzen diren ber, $z > 0$ da.

Gorriketa-tasa harrigarrietara iritsi gara, eta *behaketaz* iritsi.

RDJ 030117 + 002025 izeneko quasarrak, adibidez, $z = 5,5$ tasa eman du. Bere espektroko ultramorea (121 nm), infragorrietan agertzen da (786 nm).

Oraingoz beste quasar batek dauka marka: $z = 6,0$ (Jones, 138).

Kasu hauetan, distantziak hamar, are hogei, milako Megaparsecetan kokatu behar dira. Hau da, trilioika kilometrotan (!). Nolako distira dagokie quasarrei hala ere guk ezer ikus ahal dezagun?

Zer leherketa mota gertatzen ote da quasaretan, quasarrak berak galaxia osoak baino 100 aldiz distira argitsuagoa lor dezan?

Quasarra ez baita, oro har, espero zitekeen tamainakoa.

Blanchardek zehazten duenez, “le cœur des quasars a une taille du système solaire, pas plus... Mais il rayonne l'énergie de plusieurs centaines de galaxies, de millions de milliards de fois la luminosité du Soleil” (Histoire, 74).

Gunean zulo beltz bat egotea izan bide daiteke ulerbide bat. Hots, quasarren argitasun erraldoi hori, guztiz aldakorra da: zeharo alda daiteke egun batzuetan, are ordu batzuetan ere.

3C279a, esate baterako, 500 aldiz distiratsuago bilakatu izan da, gero normalera itzuli aitzin.

Materia / antimateriaren ezdeustea izan ote daiteke horrelako energia maila neurgaitz horien gakoa? Bestela ezin baita ulertu.

Hots, jadanik milaka aurkitu direnez gero, urte urrun haietan (has-leherketa edo “Big-Bang” delakoa gertatu eta urte “gutxitara”) quasarra galaxien urrats bat dela dirudi.

Unibertsoa arrunt leherkor agertzen da aspaldiko mendeetan; behaketaz urrunago iritsi, eta kataklismikoago.

“Gaur” eta “gure inguruko” zeru “baketsua”ren lilura faltsua bada, arrunt faltsuagoa da antzinate urrunari baga-gozkio.

Hastapenetan Kosmos guztia egon bide zen krisitan eta leherkuntza betean.

Hondo kosmologikoa

Beste aurkikunde funtsezko bat ezagutu du XX. mendeko Astronomiak.

1963an, helburutzat telekomunikazioen hobekuntza jarri, eta ECHO satelitearen irrati-seinaleak ahalik eta ongienik jasotzekotan, Bell Konpainiak antena berezi bat ezarri zuen Arno Penzias eta Robert Wilson astronomoen eskuetan (ikus tresneriaren foto bat Blanchard-en testuan, 57).

Eta orduantxe gertatu zen ezustea: irradiazio azkar eta aldakaitz bat zetorren zerualde guztietatik.

Neurketa zehatzak egin zituzten 7,35 cm uhin-luzeran (luzera milimetrikoetan gertatzen den absortzioa ekiditeko).

Norabide guztietan ikertu, eta emaitza bera: intentsitate handiko irrada bera zetorrela nondinahi. Irrada azkarra, hitz batez; eta isotropikoa.

Objektu guztiek ematen zuten irradiazio hori: eguratsak, zoruak, antenek, gizakiek.

Princeton Unibertsitateko ikertalde batek, artean, ia-ia une berean, arazo berarekin egin zuen topo bere aldetik aztertzen zuelarik. Eta oso emaitza antzekoekin.

Ondoko urteetan CO.B.E. izeneko satelitea igorri zuten amerikarrek (NASAk) irrada kosmologiko horren berri zehatzak biltzekotan (ikus satelitea, adibidez, Jean Audouze-ren liburuan, 102).

Zertarako bidali zuten?

CO.B.E. akronimoak berak ematen du aditzera: Cosmic Background Explorer.

Lortu zuen *distira/maiztasuna* kurba “gorputz beltza” deritzon hedaketari zegokion ondoko tenperatura hotz honetarako:

$$T = 2,736 \text{ K (Kelvin grado, jakina).}$$

Unibertso osoa dago irrada horretan blai murgilduta; eta horretatik espektroaren izendapena: hondo kosmologikoaren aztarna.

Bidenabar eta enkas: izpi kosmikoek eta orain azaltzen ari garen hondo kosmologikoak ez dutela zerikusirik.

Emaitzen kontrako jarrerak gainditurik, astronomoak ados dira gaur egun: hondo kosmologiko horrek jatorri termikoa du, eta gorputz beltza da egituraz. Eta Big-Bang famatuaren “aztarna fosila” da. Milioika urtetan Unibertsoa hedatu ondoren, hein horretan irauten du orain.

Gorputz beltzaren kurbek (100K-ri dagokiona... eta 3K-rena) itxura bertsua dute; eta eskuin aldean gailur bat erakusten dute (ik. Blanchard, 55)

Penzias eta Wilsonen aurkikundeak beste alde batetik ere birrindu egin zituen berriro Kosmos estatikoaren defendatzaileen iritziak.

Arrakasta honen ikurtzat Penzias eta Wilsonen Fisika Nobel Saria jaso zuten 1978an. Hondo kosmologikoak frogaturik utzi zuen Big-Bang-aren teoria. Alegia, denaren hastapenean (orain dela 14.000 bat milioi urte) ulertu ezinezko super leherketa bat egon zela, ezagutzen dugun espazio-denbora honi hasiera emanez.

Hubble-ren teoria, esan beharrik ez, sendotuta gelditzen zen.

Bai Fred Hoyle ospetsua, 1965ean bere gailurrean, bai orain dela gutxi hildako Bondi, eta Gold, eta beste, unibertso egonkoraren aldeko sutsuak ziren. Hain zuzen, trufatu nahiz asmatu zuen Hoylek “the big bang” izendapena.

Ondoko urteetan “gorputz beltza”ren espektroaren funtsa baietsi da; 2,6 mm eta 21 cm uhin-luzeretan bereziki.

Eta, oraingoz bederen, eta hoberik sortu artean, Big-Bang-aren teoria ematen da ziurtzat.

Zulo beltzak

Badirudi, eta quasarren berri eman ondoren areago, zulo beltzei buruz (‘black holes’) zerbait behintzat esan gabe liburu hau amaitzerik ez dagoela.

Zulo beltz batera erortzen direnak oro bertan geratzen dira: gas, izpi. Grabitazio maila erraldoia izanik, argia osatzen duten fotoiak berak bertan gelditzen dira.

Ezertxok ere ihes egiten ez duena, egia borobila dea?

S. Hawkingek ezetz dio 1974az geroztik, eta izpiren batzuk guri irits dakizkigukeela. Areago: azkenean zulo beltzak lehertu egiten direla dio.

Hortxe da Paul Strathern kazetariak ingelesez 1997an Hawkingez kaleratutako liburu laburra: *Hawking and black holes*. 1999an Siglo XXI argitaletxeak eman zuen espainieraz: *Hawking y los agujeros negros*. Eta nik, txiripaz ia-ia, Donostiako Miramongo Kutxa-Espazioan erosi nuen orain dela 4 urte.

Ikertzaile guztiek aipatzen dute gaur zulo beltzen muntrokeria; Jonesek eta Kutnerrek ere bai hemen gomendatutako beren liburukote jakintsuetan. Eta, gisa denez, Einsteinen ondorio zuzena duen Schwarzschild-en radioaren mugarekin lotzen dute.

Interesa eta gaitasuna dutenentzat, dagozkien orrialdeak gogoraraziko ditut:

Jones, Lambourne, etab. – *Galaxies and Cosmology* – 150-155.

Kutner – *Astronomy: a physical perspective* – 148-153.

Xinplekiago, eta oraingoan Blancharden testua jarraituz: “on estime qu’au centre de la plupart des galaxies réside un trou noir massif... pas observables directement... de plusieurs millions de fois la masse du Soleil (Histoire, 75).

Kalkuluak buruturik, ondorio txundigarria hau da: gure galaxian, Esne-Bidean, Sagitariotik haratago, alimaleko zulo beltz erraldoia dagoela. Eta izari hau duela: 2.600.000 Eguzki masatakoa!

Urrun dago gugandik. Oroitzen zarete? 27.000 argi-urte.

Hobe!

Eta bego honetan zulo beltzei buruzko aipamen xumea.

Zer esango galaxien munduan begiraldi hau eman ondoren?

Eralgiketa demasa dela nagusi. Neurririk gabeko indar xahutzeen bidez egin direla urratsak, eta bortizkeria ezin esker gagoen bitartez. Supernovak eta Quasarrak dira gure Kosmosaren irudirik aproposena.

Dena lehertzen ari, dena gehiegikeriaz mamitzen; baina **bortizkeria ikaragarrietatik aurrera (eta ez bestela)** sortu da, eta sortzen. Karbonoa, Oxigenoa, Nitrogenoa, bizia, eta gu garen kontzientzia ere bai. Giza asmamena aise gainditzen duten munstrokeria sinesgaitzetatik haratago gaude gu.

Leherketa sail ikaragarri horien ondokoak gara.

Gizona hemen da: Hatsarre Antropiko ahulak ongi asmatu du.

Baina galdera errepikatzen da gugan: hegalak dituztelako egiten dute hegan txoriek? Ala hegan egiten dutelako dituzte hegalak?

Zinez: badu gizonak pentsakor gelditzeko arrazoirik.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	5
Sartre: ehun urte	9
Galiza eta Rosalía	39
Ameriketako genozidioaz	77
Giza jatorriaz	107
Antropokeriaz	131
Gure galaxian barrena	161
Galaxietan barrena	197